



Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, **bake eta bizikidetzaren** arloan sortutako dokumentuen bilduma

---

1. Proiektu orokorra
2. Iragana argitzea
3. Biktimak
4. Memoria
5. Espetxe-politika
6. Hezkuntza

# 7. Bizikidetzarako kultura eta Giza Eskubideak

**2016ko urria**  
Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia



---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia



## Aurkibidea

---

Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra.	5
Liburu honen aurkezpena.	6
<b>1. dokumentua.</b> Elkarrekin Bonuen Programa.	9
<b>2. dokumentua.</b> Tokiko eremurako bake- eta bizikidetzapolitiken iradokizunak.	21
<b>3. dokumentua.</b> EGKrekin lankidetzaren hitzarmena eta balantze laburtua.	29
<b>4. dokumentua.</b> EiTBrekin lankidetzaren hitzarmena eta balantze laburtua.	39
<b>5. dokumentua.</b> UPV/EHUko Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra sortu, garatu eta bultzatzeko Hitzarmena	49
<b>6. dokumentua.</b> Europako lankidetzaren proiektuak bakearen eta bizikidetzaren arloan.	59
<b>7. dokumentua.</b> Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa.	67
<b>8. dokumentua.</b> Euskadiko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena.	77

---



---

## Zazpi libururen bilduma honen aurkezpen orokorra

---

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko hauteskundeak urriaren 25ean izan ziren. Azaroaren 20an, X. Legegintzaldiari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak. Abenduaren 13an, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakari izendatu zuten. Sailburuak lanpostuaz jabetu ondoren, abenduaren 18an, lehen aldiz bildu zen gobernu-kontseilua.

Hamalau hilabete lehenago, 2011ko urriaren 20an, ETAk jarduera armatua behin betiko utziko zuela iragarri zuen. Zenbait hamarkadaren ondoren, indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabe ekin zioten Legegintzaldi bati euskal politikak eta gizarteak.

Hori horrela izanik, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak hartu zuen lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikita, eta Lehendakariaren mende. 2013ko urtarrilaren 30ean, Jonan Fernandez izendatu zuen Lehendakariak Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi.

Idazkaritza horrek sail ezberdinetara atxikitako bi zuzendaritza bildu zituen egitura berean: Biktimen Zuzendaritza –ordura arte, Herrizaingo Sailaren mende zegoen– eta Giza Eskubideen Zuzendaritza –aurretik, Justizia Sailaren barruan zegoen. Hala, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren egitura berriak Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza bakar bat izan zuen, Monika Hernando buru zuela.

Legegintzaldi honetan, 14 plan estrategiko onartu ditu Eusko Jaurlaritzak; horietan lehena, 2013ko abendukoa, Bake eta Bizikidetzara Plana izan zen. Horren ondorio dira, hain zuzen, 18 ekimen eta programa eta jarduera ugari. 2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzara Plana garatzeko prozesuan, hainbat dokumentu sortu dira Legegintzaldi honetan. Liburu-bilduma honek, bada, dokumentu nagusienak biltzen ditu zazpi liburukitan.

Hona hemen zazpi liburuon izenburuak: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, eta (7) Bizikidetzaren kultura eta Giza Eskubideak. Zazpigarren liburu honek bizikidetzarako kulturaren sustapena helburu duten jarduketara desberdinei dagozkien dokumentuak jasotzen ditu.

---

## Liburu honen aurkezpena

---

Azken liburu honetarako, askotariko dokumentu batzuk gorde dira. Itxuraz zerikusirik ez duten gaiak jorratzen dituztela badirudi ere, bi ezaugarri garrantzitsu partekatzen dituzte: lehenik eta behin, erakundeen eta gizartearen arteko lankidetzaren moduei egiten diete erreferentzia eta, bigarrenik, bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura eraikitza bideratutako jarduerak sustatzen, eraikitzen edo proposatzen dituzte.

Bake eta Bizikidetzaren Plana garatzeari esker, interakzio ugari izan dira azken lau urte hauetan, eta, interakziook emaitza konstruktiboak ekarri dituzte. Horietako batzuek aurreko liburuetan hitz egin da, esaterako, hezkuntzaren edo unibertsitatearen eremuaren kasuan.

Liburu honetan jasotako dokumentuek sortu diren lankidetzaren esparruak islatzen dituzte. Hainbat eremutan sortu dira lankidetzak: herritarren parte-hartzearen eremuan, gizarte-erakundeekin eta Elkarteen Foroarekin; erakunde-eremuan, foru-aldundiekin eta udalekin partekatutako lanarekin; gazteriaren eremuan, Gazteriaren Kontseiluarekin; komunikazioaren eremuan, EITBrekin; Europaren eremuan, Peace Programme egitasmoarekin; giza eskubideen eremuan, nazioarteko erakundeekin; eta erlijioaren eremuan, hainbat erlijio-sinesmenekin.

Liburu honen 1. dokumentuak Elkarrekin Programa jasotzen du. Programa horren bidez, funts bat sortu da eta horri esker diru-laguntzak eskaini zaizkie gizarte-erakundeek; hartara, eskolei, udalei eta beste erakunde batzuei eskaintako prestakuntza-, dinamizazio- eta aholkularitza-ekimenak sustatu eta ugartzeko, hezkuntza, herritarren parte-hartzea, bizikidetzaren, gatazken konponketa eta beste gai batzuk direla hizpide. Programak hiru garapen-eremu izan ditu: gizarte-erakundeen eta ikastetxeen arteko lankidetzaren (6. liburuan aipatu da gai hori); gizarte-erakundeen eta udalen arteko lankidetzaren; eta, azkenik, herritarrek parte hartzeko ekimenak sustatzea.

Programa honen berriazko helburuetako bat ugartzeko hitzari buruzkoa zen. Ekintzak eta jarduerak ugartzeko hezkuntzaren, udalen eta herritarren parte-hartzearen eremuetan, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura bat sustatzeko helburuz. Hala, 487 ekimen garatu dira Legegintzaldi honetan; horiek denak programa honek ekarri duen bultzadari esker sustatu dira.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak lau urte hauetan izan duen helburuetako bat erakundearteko koordinazioa sustatzea izan da. «Tokiko eremurako bake- eta bizikidetzaren politikaren iradokizunak» 2. dokumentuak alderdi honetan definitutako ondorio eta orientazioak biltzen ditu. Dokumentu hori erakundearteko topaketa batean aurkeztu zen, 2016ko martxoaren 21ean. Ondoren, Euskadiko udal guztiei bidali zitzaion.

Bizikidetzaren kultura sustatze aldera, gizartearen parte-hartzea eta interakzioa sustatzearen filosofia bera jarraitzen du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenak; liburu honen 3. dokumentuan irakur daiteke. Gainera, egindako lanaren memoria bat dauka.

Legegintzaldiaren hasieran, bi helburu nagusi izan zituen Eusko Jaurlaritzak eremu honetan: batetik, bizikidetzaren gatazka konstruktiboki tratatzeko tresnak ematea gazteei eta, bestetik, sormena, ekintzailetasuna eta gizarte-berrikuntza sustatzea gazteen artean, bizikidetzaren proiektuekin lotuta. Sinatutako hitzarmenari esker, bizikidetzaren kultura sustatzen lagundu da, eta gazteek zuzenean parte hartu dute.

Bake eta Bizikidetzaren Planak garrantzi berezia eman zien sentsibilizazioari eta hedabide publikoen rolari. Legegintzaldiaren hasierako asmoen adierazpenean nabarmentzen zenez, Eusko Jaurlaritzak gizarte- eta hezkuntza-eremuko sentsibilizazio-ekimenak sustatuko ditu; gizarte elkartzeko prozesu bat gauzatu ahal izatera eta giza duintasunaren, giza eskubideen, printzipio demokratikoen, biktimikiko elkartasunaren, gatazken indarkeriarik ezeko kudeaketaren eta kulturartekotasunaren errespetuan oinarritutako bizikidetzaren kultura sustatzera bideratuta dauden ekimenak.

Jardun-ildo horrek bi garapen-ardatz izan ditu. Batetik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak giza eskubideen balioari buruzko gizarte-komunikazio kanpainak bultzatu ditu urtero, abenduaren 10ean; hain zuzen ere, Giza Eskubideen Egunean eta René Cassin Sariak ematen diren egunean (<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/informacion/rene-cassin/r48-pazconte/es/>).

Bigarren ardatza EITBrekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea izan da, erakunde publiko horren konpromisoak definitzeko eta garatzeko bakeari eta bizikidetzari egin diezaiokkeen ekarpenari dagokionez. Ekintza hori «Lankidetzaren akordioa EITBrekin» izeneko 4. dokumentuan jasotzen da liburu honetan. Dokumentuak, gainera, egindakoaren memoria txiki bat jasotzen du. Akordio horren emaitza garrantzitsuenetako bat «Oinatz galduak» telesail dokumentala izan da.

EITBk lankidetzaren akordioaren barruan hartutako hirugarren konpromisoa iraganari buruzko memoria kritikoaren sail dokumentala izan da. Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa jorratuko dituen sail hori hamarkadaka antolatuta egongo da; 1960an hasi eta egundaino. Saileko edukiari dagokionez, gertakarien eta testuinguru historikoaren berri emateko historiografia modu berezian zaindu behar zen. Historiografia horrek teknikoki oso ondo garatua behar zuen, eta zintotasunez, zorrottasunez, objektibotasunez eta anizta-

sunarekiko errespetuz emana. Alde horretatik, argitaratze-aholkulari talde fidagarri eta anitza izan behar zuen proiektuak. Juan Pablo Fusik, Mariano Ferrerek eta Mari Carmen Garmendiak egin zituzten aholkulari-lanak.

Bost orduko dokumentala bost kapitulutan banatu zen, eta 2016ko maiatzeko igande guztietan eman zen. Baliotsua eta interesgarria denez, haxe da lotura ikusi ahal izateko (<http://goo.gl/CXJpiw>). Telebistan eman ondoren, helburua da ikus-entzunezko materiala Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak, udalek eta elkarteek erabili ahal izatea oroimenari buruzko eztabaida eta hausnarketa kritikoetan, herritarren parte-hartzerako euskarri gisa. Hiru euskal unibertsitateak 2016an egiten ari diren proiektuaren helburua, hain zuzen, dokumentalok oinarri hartuta herritarren parte-hartzerako tresna bat sortzea da.

Zinearen erabilerak kultura eta gogoeta partekatuen berezko tresna gisa Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren jarduketan presentzia garrantzitsua izan du, Legegintzaldi honetan zehar. Lau urte hauetan eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari esker, Zinexit, Elkarbizitzaranzko Zine Erakusketaren lau edizio antolatu dira.

2016ko uztailan eta Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak eta Iñaki Goirizelaia Ordorika UPV/EHUko Errektoreak sinatutako hitzarmenaren bidez, Euskadiko Unibertsitate publikoan Unesco Katedren Sare Mundialean integratzea helburu duen Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra sortu, garatu eta bultzatzeko oinarriak jarri dira. Bere funtzio nagusiak hiru dira: (1) ikerketa eta dibulgazioa, (2) formazioa eta trebakuntza, eta (3) aholkularitza instituzionala. Hitzarmen hau 5. dokumentu gisa dator jaso liburu honetan.

Jarduteko beste ildo bat Europakoa izan da. Hiru truke-topaketa egin dira Legegintzaldi honetan Europako Peace Programme egitasmoaren esparruan bakearen eta bizikidetzaren alde lan egiten duen Irlandako Errepublikako eta Ipar Irlandako erakundeekin. Truke-esperientzia horietatik hurrengo urteetarako lan-dokumentu bat sortu da; liburu honetan, 6. dokumentu gisa jaso da, hots: «Europako lankidetzaren proiektuak bakearen eta bizikidetzaren arloan».

Bake eta Bizikidetzaren Planak, gainera, bizikidetzaren kulturarekin erlazionatutako beste ekimen eta jarduketak batzuk garatzea aztertu zuen, indarkeria amaitzeko prozesuak eskaintzen duenaren bestelako ikuspegi bat aintzat hartuta. Bizikidetzaren eta giza eskubideen agenda berri baten ekimenak dira, eta nabarmendu egin behar dira; ziur asko, gero eta garrantzi handiago hartzen joango dira datozen urteetan.

Mota horretako ekimenen adibide bat 7. dokumentuan («Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa») islatzen dena da. Programa hori 2011z geroztik garatu da. Programari esker, giza eskubideekiko konpromisoagatik zaurgarritasun-egoeran dauden hiru pertsona hartzen ditu Eusko Jaurlaritzak urtero. Defendatzaileak babesteko programak garatzea oso gomendagarria da nazioarteko erakundeen aburuz, esaterako, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aburuz (60/161 Ebazpena), bai eta eskualdeko erakundeen ustez ere, giza eskubideen defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren 2004ko Zuzentarauetatik ondorioztatzen den bezala. Gainera, Eusko Jaurlaritza arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez birkokatzeko plataforma orokorraren parte da –Europako Batzordearen ekimen bat da hori.

Erlijio eta kultura arteko bizikidetzaren Legegintzaldi honetako lan-eremu bat izan da. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak adituen batzorde bat eratzeke eskatu zien Ellacuria Fundazioari eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuari, «Euskadiko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena» egin zezan. Liburu honetan jasota dago lana, 8. dokumentuan. Testuinguru horretan, erlijio ezberdinetako buruekin bildu zen Lehendakaria 2015eko otsailaren 20an, Lehendakaritza, eta 2016ko martxoaren 2an, erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko jardunaldi bat egin zen Bilbon, aipatu dokumentua aurkeztu eta eztabaidatzeko.

Txosten horren eranskinean, EAEko kultu-zentroei buruzko legearen aurreproiektua jasotzen du. Aurreproiektu horren testua Euskadin errotuta dauden erlijioetako adituen eta ordezkarien batzorde batek egin zuen aurreko Legegintzaldian. Adostasun maila handia du.

2016ko irailaren 12an, 13an eta 14an, ia Legegintzaldiaren amaieran, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak, Unibertsitate Konplutentsearekin lankidetzan, «La construcción de la Paz: la perspectiva de la historia» ikastaroa antolatu zuen, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan. Bakea –XVIII. mendeaz geroztik, modu nabarmen eta atzerazinean– eredu moral eta herrien, komunitateen eta nazioen gizarte-bizitzarako funtsezko gizalegezko eskubide (Mendebaldean, zalantzarik gabe; baina baita mundu osoan ere) bilakatzeko prozesu intelektual, filosofiko eta politikoa luzea eta zaila izan da. Ikastaro honetan, bada, hainbat adituen hitzaldi laburren bidez, prozesu horren oinarritzko uneak aztertu eta ezagutu ahal izan dira.





---

# 1. dokumentua

---

**Elkarrekin Bonuen** Dekretua

---



---

# 110/2014 Dekretua,

## ekainaren 17koa, **Elkarrekin Bonuen**

### Programa arautzen duena

---

“Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016 - gizarte-topaketa helburu” izeneko Plana Eusko Jaurlaritzak onartu zuen; Planaren ekimenen artean dago Elkarrekin Bonuen Programaren bidez erakundeen eta euskal elkarre- sarearen arteko lankidetzeta, alegia, erakunde publikoen eta sozialen artekoa, garatzea.

Azken 25 urteetan euskal gizarte zibileko elkarte eta erakundeek eginkizun baliotsua izan dute bakearen eraikuntzan. Aro berri honetan, ekarpen horrek jarraipena izatea sustatu nahi du Eusko Jaurlaritzak, erakun- de publikoen eta gizarte zibileko eragile antolatuen arteko lankidetzeta-estrategia baten bidez.

Programa hau errefortzu osagarri bat da, testuinguru historiko berri baterako. Indarkeriaren ondoko egoera honetan, bizikidetzan inbertitzea lehentasuna da, eta Elkarrekin Bonuen Programak lehentasun horri eran- tzuten dio, hain zuzen ere.

Programa honen bidez, “bonu” izeneko ekarpen ekonomiko bat ematen zaie bake- eta bizikidetzeta-gaiekin lotutako irabazi-asmorik gabeko elkarteei, hezkuntzaren, tokiko bizikidetzaren edo herritarren parte-hartzea- ren arloetan prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan jardundako eta justifikatutako ordu bakoitzeko. Zerbitzuen hartzaileak eskolak, udalak edo bestelako erakunde batzuk izan daitezke, eta gai zehatz haue- tan eman dakieke zerbitzua: besteak beste, bakearen kultura, giza eskubideak, biktimekiko elkartasuna, adiskidetzeta edo gatazken konponketa.

Programa honen bidez lagundutako prestakuntza- edo dinamizazio-ekimen horiek guztiek “Gizalegez, Gi- zarte- eta Hezkuntza-arloko Konpromisoa” sustatzea izango dute lokarri gisara. Azken horrek indarkeriari aurrea hartzeko eta bake- eta bizikidetzeta-kultura sustatzeko gutxieneko oinarriak ezartzen ditu, hau da, ai- patutako Bake eta Bizikidetzeta Planak aintzat hartu eta bultzatzen duena.

Ekimen hau garatzeak esan nahi du lankidetzan jardun behar dutela antolatutako gizarte zibileko erakundeek, batetik, eta eskolek, udalek eta bestelako erakunde publikoek, bestetik, honako eduki hauek bultzatzeko:

- Elkarrekin bizitzea da onartzea gure itxaropenak ez direla beti betetzen. Errealitatearen halabehar hori ulertzeko, giza izaeraren mugak onartzearen hezkuntza-esperientzia sustatu behar da. Horrek esan nahi du kontziente izan behar dugula gizakiok izaki mugatuak garela eta, horrexegatik, ezinez- koa dela arrazoi guztia izatea, ez denetarako ahalmena edukitzea, ez eta egia osoaren jabe izatera iristea. Horrek berarekin dakar gure errealitate inperfektuaren faktorea kendu behar diogula gure nahi dudanari.
- Elkarrekin bizitzea da zailtasunen arteko aukerak sustatzen ikastea. Ikaskuntza hori lortzeko funtsez- koa da balio positiboaren esperientzia hezitzailea sustatzea. Esperientzia horri esker ikusiko dugu beti aurki daitekeela fatalismoa, etsipena edota bide ez etikoetara jotzea baino aukera hobe bat. Berarekin dakar gure posibilitate agorrezinaren faktorea gehitu behar diogula gure ahal dudanari. Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan gure erantzukizun etikoa aintzat hartzea. Berare-

---

kin dakar norbanakoaren kontzientzia etikoan sakontzearen esperientzia hezitzailea sustatzea. Dogmatismoaren, haserrearen, oldarkortasunaren, beldurraren edo norberekoikeriaren bulkada hutsa baino gehiago gara... arrazoia eta etikarekin aukeratzeko gaitasuna ditugulako. Horrek esan nahi du gure eginkizun etikoaren faktoreaz zatitu behar dugula gure nahia. Elkarrekin bizitzea da giza duintasunarekiko begirunearen balio gorena ulertzea. Giza duintasunaren eta giza eskubideen esperientzia hezitzailea sustatzea. Gizaki guztiek merezi dute begirunea, eta guztiek dituzte eskubideak. Edozein etiketa edo norbanakoaren murrizketa baino gehiago dira pertsonak. Horren jakitun izatea erabakigarria da bizikidetzaz zibilizatua lortzeko. Berarekin dakar pertsonaren balioa duintasunaren faktoreaz biderkatzea.

Halaber, Programa honek aurreikusten du foru-aldundiak ekimen honetara gehituz horixe bultzatzea, urteroko deialdiak argitaratu aurretik funtsak emanez. Funts horiek foru-aldundi bakoitzaren lurralde-eremuetan abian jartzen diren proiektuak finantzatzera bideratuko dira.

Horrela, honako hau lortu nahi da Programa honekin:

- Euskal gizartearen indarkeriaren kulturari aurrea hartzea eta bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen begirunearen kultura sustatzera bideratutako prestakuntza- eta dinamizazio-ekintzak ugaritzea.
- Zeharkako gizarte- eta hezkuntza-konpromisoa sustatzea, hainbat eragilek eremu desberdinetan egingen dituzten ahaleginak gutxieneko oinarri etiko batzuen inguruan biltzeko.

Horregatik guztiagatik, Lehendakariak hala proposatuta, eta Jaurilaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 17an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hau

## **XEDATZEN DUT:**

### **1. artikulua.** Xedea.

Elkarrekin Bonuen Programa sortu eta arautzen da, hots, bakea, giza eskubideak, indarkeriarik eza eta printzipio demokratikoen sustapena sendotzeko ekimen osagarri bat. Programaren helburu nagusia da bizikidetzaz eta adiskidetzaz-kultura sendotzeko bideratutako elkarte-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaz ugaritzea.

### **2. artikulua.** Erakunde onuradunak eta hartzaileak.

Proiektuen erakunde hartzaileak dira:

- a) Ikastetxeak, hezkuntzaren arloan;
- b) Udalak, tokiko bizikidetzaz sustatzearen esparruan;
- c) Herritarren parte-hartzean interesa duten beste erakunde batzuk.

3.– Elkarrekin Bonuen Programako laguntzak aktibatuzko oinarritzko baldintza da akordioa egotea Erakunde Onuradun baten (euskal elkarte-sareko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat) eta Erakunde Hartzaile baten artean (eskola bat, udal bat edo beste erakunderen bat, herritarren parte-hartzearen kasuan) bi erakunde horientzat interesgarria den proiektu bat garatzeko, Programaren esparru tematikoan badago, betiere.

4.– Diru-laguntza bonuak ematean datza; bonu deritza Erakunde Onuradunek Erakunde Hartzaileentzat prestakuntza- edo dinamizazio-proiektuetan emandako justifikatutako ordu bakoitzaren truke emango den diru-kopuruari, proiektu horiek arlo espezifiko hauekin lotuta dauden heinean: bakearen kultura, giza eskubideak, biktimizekiko elkartasuna, adiskidetzaz edo gatazken konponketa, besteak beste.

5.– Deialdiaren urteroko ebazpenetan zehaztuko da Eusko Jaurilaritzak proiektuak diruz laguntzeko emango dituen bonuen zenbatekoa. Era berean, deialdiaren urteroko ebazpenetan zehaztuko da Erakunde Hartzaileek (udalak, eskolak eta beste erakunde batzuk herritarren parte-hartzearen kasuan) eman behar duten gutxieneko zenbatekoa.

### **3. artikulua.** Diruz laguntzeko moduko proiektuak.

1.– Elkarrekin Bonuen Programa proiektu-mota hauek dinamizatzea bideratuta dago:

- a) Hezkuntza-arloko proiektuak.

- b) Udalen eremuko proiektuak.
  - c) Herritarren parte-hartzearen arloko proiektuak.
- 2.– Proiektuak ekintza hauetakoren baten bidez gauzatu ahalko dira:
- a) Prestakuntza goiko arlo horietako edozeinetan.
  - b) Ekintzen zuzeneko dinamizazioa.

#### **4. artikulua.** Proiektuen baldintzak.

- 1.– Giza eskubideekin, indarkeriarik ezarekin eta demokraziaren printzipioekin ageriko konpromisoa duten proiektuek bakarrik jasoko dute diru-laguntza, eta “Gizalegez Gizarte- eta Hezkuntza-arloko Konpromisoa” akordioa aintzat hartzen dutenek.
- 2.– Aipatutako arloetako prestakuntza-ekintzen artean, gutxienez 15 pertsonen parte-hartzea eskatzen duen lan-proposamenak badituzte bakarrik onartuko dira proiektuak.
- 3.– Hezkuntza-arloko ekintzetarako zuzeneko dinamizazio-proposamenetan, ikastetxe bateko ikasgela, klaustro edo guraso-elkarte oso bati eragiten dioten proiektuak soilik onartuko dira.
- 4.– Udalen edo herritarren parte-hartzearen arloetako ekintzetarako zuzeneko dinamizazio-proposamenetan, eskakizun hauek betetzen dituzten lan-proposamenak soilik onartuko dira:
- a) Zuzeneko informazio-motaren bat gutxienez 500 pertsonari zuzentzen diotenak, gutun, e-mail edo argitalpenen bidez, 1.000 biztanletik beherako udaletan izan ezik.
  - b) Gutxienez 40 pertsonari eragiten dioten ekintzak, hala nola, hitzaldiak, foroak, edo jardunaldiak.

#### **5. artikulua.** Diru-laguntzen ildoak eta funtsak sortzea.

- 1.– Elkarrekin Bonuen Programak diru-laguntzen hiru ildo desberdin ditu:
- a) Hezkuntza-arloko proiektuetarako diru-laguntzak. Lehendakaritzak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak urtero berariaz bideratutako ekarpenen bidez sortuko dira Laguntza hauetarako funtsak, eta urteroko deialdietan zehaztuko dira.
  - b) Udal-esparruko proiektuetarako diru-laguntzak. Hiru funts sortu ahal izango dira diru-laguntzen ildo honetarako, lurralde historiko bakoitzarentzat bana. Lehendakaritzak horietako bakoitzari egingo dizkion ekarpenen bidez sortuko dira laguntza horietarako funtsak, bai eta foru-aldundiek egin ditzaketen ekarpenen bidez ere, Dekretu honen I. eranskinean jasotako adendaren bidez programa honetara atxikitzen direnean. Foru Aldundietatik datozen ekarpenei Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateginaren 104. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie (testu bategin hori maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen).
  - c) Herritarren parte-hartzerako proiektuentzako diru-laguntzak; azken hauek Lehendakaritzak urtero emandako funtsen bidez finantzatuko dira osoki.
- 2.– Urteroko deialdiaren Ebazpenean zehaztuko da ekitaldi bakoitzean funts horietako bakoitzak izango duen zuzkiduraren guztizko zenbatekoa, Lehendakaritzak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta, hala dagokionean, foru-aldundiek egindako ekarpenak zenbatuta.
- 3.– Deialdi batean emango diren laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du gainditu funts bakoitzera egindako ekarpenen zenbatekoa, edo horiek eguneratzearen ondoriozkoa. Horrenbestez, ez da diru-laguntza gehiagorik emango aipatutako zenbatekoa xahutzen denean eta, beraz, egoera horretan emandako diru-laguntzak ezeztatuko dira. Hala dagokionean, inguruabar baten zein bestearen berri emango da Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen bidez.

#### **6. artikulua.** Programaren erakunde onuradunak.

- 1.– Bakearen eta bizikidetzaren gaiekin lotutako irabazi asmorik gabeko erakundeak bakarrik atxiki ahalko zaizkio Elkarrekin Bonuen Programari, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen edo fundazioen erregistroan izena emanda badute eta beren ekintza-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa bada.
- 2.– Erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte haien zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskakizun horiek betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko

---

du organo kudeatzaileak, behar beste aldiz, eta horretarako ez du onuradunen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina aplikatuz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testuategin hori).

3.– Ezingo dute deialdi hau baliatu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzea dakarren zehapena duten pertsona juridikoen eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten pean daudenek. Debeku horretan sartzen dira sexuaren ziozko diskriminazioetatik zehatuak izan diren pertsona juridikoak eta debeku horrekin zehatutakoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea betez.

## **7. artikulua.** Deialdia.

1.– Urtero deituko dira dekretu honetan araututako laguntzak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen bidez. Dekretu honek jasotzen dituen laguntza-ildo guztiak edo batzuk deialdi baten barne hartu ahal izango dira, edo deialdiak banan-banan ere egin ahal izango dira.

2.– Deialdiaren urteroko ebazpenean edo ebazpenetan zehaztuko dira honako hauek: deialdiaren xedea, diru-laguntzaren ildo bakoitzerako zuzkidura, Bonuen zenbatekoa, proiektuen erakunde hartzaileek eman beharreko gutxienezko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, eskabidearen eredu arautu bat, diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua, eta, hala dagokionean, bide elektronikoak erabiltzeko prozedura eta jarraibideak.

## **8. artikulua.** Muga kuantitatiboak.

1.– Laguntza hauen erakunde onuradunek ezingo dituzte 40.000 eurotik gorako bonuak pilatu, Dekretu honetan araututako diru-laguntzen ildo ezberdinetatik jasotako kopuruak zenbatuta.

2.– Diruz lagundutako proiektuen erakunde hartzaileek muga hauek izango dituzte, diru-laguntzen ildo bakoitzeko:

- a) Hezkuntzaren arloan, ezingo dira ikastetxe bakarrean pilatu 5.000 eurotik gorako bonuak.
- b) Tokiko bizikidetzaren arloan, ezingo dira udal bakarrean pilatu zenbateko hauetatik gorako bonuak:
  - 5.000 euro, 15.000 biztanlera arteko udaletan.
  - 12.500 euro, 15.000 eta 40.000 biztanle arteko udaletan.
  - 20.000 euro, 40.000 biztanletik gorako udaletan.
- c) Herritarren parte-hartzearen arloan, ezingo dira udal bakarrean pilatu zenbateko hauetatik gorako bonuak:
  - 2.000 euro, 100 pertsona baino gutxiagok parte hartzen duten ekimenetan.
  - 5.000 euro, 100 pertsona baino gehiagok eta 500 baino gutxiagok parte hartzen duten ekimenetan.
  - 10.000 euro, 500 pertsona baino gehiagok parte hartzen duten ekimenetan.

3.– Dekretu honetan jasotako diru-laguntzek honako lege hau bete beharko dute: 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Batzordearen Erregelamendua, Europar Batasunaren minimis laguntzen funtzionamendu itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa (DOUE, L 352/1, 2013-12-24). Laguntza hauek minimis motako laguntzatzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren gutzitza ez du gaindituko 200.000 euroko kopurua, hiru ekitaldi fiskaleko edozein eperen barruan. Horrela, muga horretatik beherako diru-laguntzek merkatarizari eragiten ez diotela edota lehiakortasuna faltsutzen ez duela; horren ondorioz, ez dira sartzen Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107.1 artikulua aplikazio-eremuan.

4.– Diru-laguntzaren eskatzaileak urteko deialdi bakoitzean adierazi beharko du ekitaldi fiskal horretan edo aurreko bi ekitaldi fisikaletan beste minimis laguntzarik jaso ote duen, minimis laguntza honekin Erregelamenduan ezarritako gehieneko muga gainditzen ez dela egiaztatzeko.

## **9. artikulua.** Bateriaezintasuna.

Dekretu honetan araututako diru-laguntzak ez dira bateragarriak beste erakunde publiko edo pribatu batek xede berberaz emandakoekin.

## 10. artikulua. Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Programa honen onuradunek aurkeztu beharreko eskabideak inprimaki normalizatueta egin beharko dira, eta haiekin batera gutxienez dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) “Gizalegez Gizarte- eta Hezkuntza-arloko Konpromisoa”-n parte hartzeko eta hori bultzatzeko nahiaren aitortpena.
- b) Erantzukizunpeko aitortpena, helburu bererako beste laguntzarik ez duela jasotzen adierazten duena.
- c) Erantzukizunpeko aitortpena, EAeko Administrazio Orokorra edo bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen esparruan hasitako eta oraindik ere izapidetzen ari den itzul-tze- edo zehapen-prozedura batean ez dagoela egiaztatzen duena.
- d) Erantzukizunpeko aitortpena, egiaztatzen duena ezen sexuaren ziozko diskriminazioagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala betetzen ez dela ari, edo ez dagoela debeku horrekin zehatuta.
- e) Erantzukizunpeko aitortpena, erakunde eskatzaileak laguntza publikoak lortzea eragozten dion zehapenik ez duela egiaztatzen duena, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
- f) Erakunde onuradunak eta erakunde hartzaileak proiektuaren garapenerako izenpetutako akordioa, edo erakunde hartzaileak aurkeztutako proiektuari dagokionez hartutako konpromiso ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentua.
- g) Proiektuaren memoria xehea, datu hauek jasotzen dituena:
  - Lan-proposamenaren helburuak.
  - Proiektuaren erakunde hartzailea –lan-proposamena egitearekin adostasuna eman duena–, harremanetarako pertsonaren izena, telefonoa eta helbide elektronikoa zehaztuta.
  - Ekintzaren deskribapen laburra.
  - Inbertitu beharko den ordu-kopurua.
  - Aurrekontua, proiektuaren erakunde hartzaileak jasoko duen zerbitzuaren truke ordainduko duen zenbatekoa zehazten duena.
  - Jardun-egutegia.
  - Proiektuan parte hartuko duten pertsonen kopurua.
  - Erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak; adierazi beharko da, gainera, erakundeak ba al duen berdintasunaren arloan ibil-bidea edo prestakuntza duen pertsonaren bat.
  - Generoaren ikuspuntua nola sartuko den.

2.– Era berean, proiektuak balorazio hobea lor dezan, erakunde eskatzaileek egoki irizten dioten dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izango da.

3.– Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari espediente osatzeko behar dituen agiri eta azalpen guztiak eskatu ahal izango dizkio, eta, era berean, eskatzaileak emandako datuak egiaztatzeko egin beharreko egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

## 11. artikulua. Aurkeztutako eskaeretan egindako akatsak zuzentzea.

Erakunde eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak egiaztatutako balu dokumentazio hori osatugabea dela edo daturen bat falta duela, erakundeei 10 eguneko gehieneko epea emango diete antzemandako akatsak zuzentzeko, eta adieraziko die zuzentzen ez badi-tuzte ulertuko dela eskaerari uko egin diotela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, 71. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

---

## 12. artikulua. Diru-laguntza emateko kudeaketak eta prozedura.

1.– Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eginkizuna izango da, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, dekretu honetan jasotako laguntzak bideratzeko kudeaketa-lanak egitea.

2.– Eskabideak bata bestearen jarraian aztertuko dira, eskabideen jasotze-hurrenkeraren arabera. Ondorio horietarako, beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu denean joko da eskabidea jasotzat.

3.– Balioespen Batzorde bat eratuko da 5. artikuluaaren arabera sortutako funts bakoitzeko, eta batzorde horren kideak deialdia egiteko ebazpenean zehaztuko dira. Hona hemen Batzorde horien osamodua:

- Lehendakaria: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren titularra.
- Idazkaria: Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria.
- Batzordekideak: Funtsera ekarpenak egin dituen sail edo erakundeak bi ordezkari izendatuko ditu Balioespen Batzorde bakoitzerako. Ekarpelik egin ez bada, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikari batek parte hartuko du Batzordean.

4.– Balioespen Batzordeko kideak izendatzeko orduan, ahaleginak egingo dira gizon eta emakume kopurua berdintsua izan dadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

5.– Balioespen Batzordeak eskabide guztiak aztertuko ditu dekretu honetan eta dagokion deialdi-ebazpenean laguntza hauetarako ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta dagozkion ebazpen-proposamenak helaraziko dizkio Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako titularrari.

## 13. artikulua. Ebazpena, ebazteko epea, errekurtsioak eta publikotasun-prozedura.

1.– Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren berariazko ebazpen baten bidez gauzatuko da dekretu honetan aurreikusitako laguntzak emateko, ez onartzeko zein ukatzeko erabakia, proiektu bakoitzarentzat, Balioespen Batzordeak hala proposatu ondoren. Deialdirako prestatutako funtsak agortu arte eman ahalko dira diru-laguntzak.

2.– Ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera organo eskudunaren Erregistroan izapidetzeko sartzan denetik kontatzen hasita; epe hori igaro eta berariazko ebazpenik argitaratu ez bada, diru-laguntza eskaera onartutzat hartuko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak 43. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Ebazpenean zehaztuko da proiektu bakoitzerako emandako bonuen kopurua, bai eta emandako diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa ere.

4.– Ebazpen horrek ez du amaitzen administrazio-bidea, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa ezar daiteke Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusian, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoa betez.

5.– Era berean, erakunde onuradunei dekretu honetan aurreikusitako bonuak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura amaitzea.

6.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta prozeduraren ebazpena berariaz eta banan-banan jakinarazteko betebeharra bazter utzi gabe, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpenez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babesean emandako diru-laguntzak jaso dituzten erakundeen zerrenda, zenbatekoak ere adieraziz.

## 14. artikulua. Izapidetze telematikoa.

Interesa duten erakundeek laguntza hauetarako prozeduren izapide guztiak baliabide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte, deialdi bakoitzean hala aurreikusten bada.



## 15 artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunek onartu egin beharko dute emandako diru-laguntza. Horretarako, laguntza onartuzat joko da diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta 10 eguneko epean, biharamunetik kontatzen hasita, erakunde onuradunak idatziz uko egiten ez badio. Diru-laguntza onartzeak berekin dakar dekretu honetan eta dagokion urteko deialdian ezarritako arau guztiak betetzea, eta baita beste hauek ere: abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta haiek itzultzeari buruzko araubide orokorra ezartzekoa eta haien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, arauak eta betebeharrak xedatze-koa, edo hura ordezkatzeko duen araua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu baitzuen.

2.– Erakunde onuradunek bermatu beharko dute diruz lagunduko diren proiektuek eta horiek bultzatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek zorrotz errespetatuko dituztela 1948ko Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubide guztiak, eta baita 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean nahiz 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jasotakoak ere.

3.– Erakunde onuradunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte zabalkunde-jardueretan eta diruz lagundutako proiektuetatik sortutako argitalpenetan.

4.– Erakunde onuradunek hizkera ez-sexista erabili behar dute, ez dute emakumeen irudi baztertzailerik edo estereotipo sexistarik baliatuko, eta balio hauek agertzen dituen irudi bat sustatuko dute diruz lagundutako proiektuarekin lotutako hedapen-ekintzetan eta argitalpen-materialetan: berdintasuna, gizon eta emakumeen presentzia orekatua, askotarikotasuna, erantzukizun partekatua eta genero-rol zein -identitateen aniztasuna.

## 16 artikulua. Ordaintzeko modua.

Diruz lagundutako proiektu bakoitza gauzatu dela justifikatu ondoren ordainduko dira diru-laguntzak, emandako bonuei dagokien guztizko zenbatekoa bete arte.

## 17. artikulua. Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dute emandako diru-laguntzaren erabilera justifikatuko duen dokumentazioa, dagokion deialdian zehazten den eran; edonola ere, badira agiri batzuk beti aurkeztu beharko direnak:

- a) Proiektu bakoitza gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak, hala nola: programen kopiak, kartel iragarleak, argazkiak eta argitaratutako gainerako material grafikoa, idatzizkoa edo entzunezkoa.
- b) Egindako proiektuen memoria xehea, honako datu hauek aipatuz: proiektua zein egunetan gauzatu den, parte hartu duten pertsona onuradunak (sexuaren arabera bereizirik), generoaren ikuspuntua nola txertatu den, hala badagokio, eta azken balorazio bat.

## 18. artikulua. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero –betiere, diru-laguntzaren helburua betetzat jotzen bada– eta, kasuan kasu, edozein erakunde pribatu nahiz publikotik aldi berean beste laguntzarik jasoz gero, diru-laguntzak emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horretarako, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak aldatetarako ebazpena emango du, non emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituko diren.

2.– Edozein arrazoi dela-eta, diruz lagundutako proiektuak ezin badira eskaeran adierazitako moduan gauzatu, horren berri eman beharko zaio Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari.

## 19. artikulua. Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak ez betetzea eta laguntza itzultzea.

1.– Baldintzak ez direla bete ulertuko da kasu hauetan:

- a) Bere garaian aurkeztutako proiektua ikusita, jasotako diru-laguntza ez da, osoki edo zati batean, onartu zen jarduerarako erabili, beste zerbaitetarako baizik.

---

b) Hautatutako proiektuan aldaketak egitea, salbu eta, aldaketok funtsezkoak ez izanik, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria berriaz baimentzen dituen.

c) Eskarera, harekin batera aurkeztutako dokumentazioan edo diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioan bildutako datuetako edozein gezurrezkoa izatea.

2.–Erakunde onuradunak ez baditu betetzen artikuluko honen 1. puntuan ezarritako baldintzak, laguntza emateko ebazpenean edo deialdia arautzeko dekretuan eta ondorengo ebazpenean ezarritako edozein baldintza edota Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren jasotako betebeharrak (testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen) , laguntza jasotzeko eskubidea galdu egingo du; dagoeneko jasota baldin badauka, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, legezko interesekin batera; eta dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio. Hori guztia, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermea eta itzulketak arautu eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta obligazioak ezartzekoak, xedatutakoaren arabera.

## 20. artikulua. Argitalpena.

1.– Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak beretzat gordetzen du dekretu honetan xedatutakoaren arabera laguntza jaso duten ikerketak eta lanak edozein euskarritan argitaratzeko eskubidea, proiektua entregatzen denetik urtebeteko epean, interesdunak berriaz idatzizko baimena eman ondoren.

2.– Argitalpena gauzatzen bada, lehen edizioaren ustiapen-eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarenak izango dira, eta diruz lagundutako ikerketa eta lanen egileak edo arduradunak konpromisoa hartuko du aipatu eskubideak doan lagatzeko.

## 21. artikulua. Hizkuntza-eskubideak.

Dekretu honen eremuan, herritarrek euskara zein gaztelania erabili ahalko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin dituzten harremanetan, ahoz zein idatziz, eta hizkuntza horretan arreta jasotzeko eskubidea bermatuko da.

## Azken xedapenetatik lehenengoa

Dekretu honetan prozeduraren arloari dagokionez esanbidez arautu ez diren alderdi guztiei aplikatuko zaie Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina ere, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuak onartu baitzuen.

## Azken xedapenetatik bigarrena

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 17an

Lehendakaria,

**Iñigo Urkullu Renteria**





---

## 2. dokumentua

---

**Toki mailan** bake eta bizikidetzako politikak egiteko iradokizunak

---



---

# Toki mailan bake eta bizikidetzako politikak egiteko iradokizunak

---

**2016ko martxoaren 21a**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA  
Secretaría General  
para la Paz y la Convivencia

---

## Sarrera

---

2011ko urrian ETAre indarkeriaren amaieraren berri izan ostean, bakea behin betiko finkatzea eta bizikidetzaren normaltzea eskatu dute herritarrek, elkarteek nahiz politikariek, eta eskaera horiek oihartuz eta isla dute euskal erakundeetan. Gizartearen oinarrian bizikidetzaren egunerokotasunean eraikitzeko, eremu instituzional hurbilenak udal-esparrua eta, modu osagarrian, foru-esparrua dira.

2013ko azaroaren 26an, Gobernu Kontseiluak 2013-16 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuen. Ordutik, Planaren 18 ekimenetan jasotako jarduketaren programak gauzatzen joan dira. Planaren 15. ekimenak, hain zuzen, Foru Aldundiekin eta Udalekin bizikidetzaren aldeko hitzarmen bat sustatu nahi du.

Ekimen horren helburua da oinarritzeko lan-ildo batzuk iradokitzea; hartara, eta bereziki udal esparruan, erakundearen askotariko jarduketek esparru orokor bera eta zentzu-batasuna izan dezaten. Dokumentu honek xede hori lortzen lagundu nahi du. Erakundearen arteko sinergia eta sinergia soziala bultzatu nahi ditu.

Beraz, hemen jasotako edukia ez da, ez akordio-proposamen bat, ez nahitaez osorik jarraitu beharrezko jarduketaren katalogo bat. Jarduteko aukerei buruzko gida ireki bat da, eta erakunde bakoitzaren autonomiarekiko eta auzo, udal, eskualde nahiz lurralde historiko bakoitzaren errealitateen berezitasunekiko eta aniztasunarekiko begirunea du abiaburu.

Horiek horrela, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak EUDELi, Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi die dokumentu hau, udal mailako bake- eta bizikidetzaren politika publikoak bateratzeko lan-tresna moduan aintzat har dezaten.

Dokumentuak funtsezko hiru galdera erantzun nahi ditu: Lehenbizi, zer gutxienezko oinarritan bertan beharrezko liratekeen Udalak, sen etiko eta toki mailan adostasuna sustatuz jarduteko; bigarrenik, zer jardun-ildo bultzatu ditzakeen Udal batek edo Foru Aldundi batek bakearen eta bizikidetzaren arloan; eta, azkenik, zein diren erakundearen arteko koordinaziorako esparruak.



# 1. Jarduteko oinarriak

---

Oinarriak finkatzean “nondik jarduten den” galderari erantzuten zaio. Hau da, abiapuntuei. Oinarri horiek jarduna funtsezko ikuspuntu etiko eta demokratiko batetik kokatzen duten printzipio, konpromiso, helburu eta irizpideei lotzen zaizkie. Ildo horretan erreferentziakoa da “Zoru Etikoa” izendatutakoa, Eusko Legebiltzarrak iragan legealdian onartua. Oinarrien formulazioa nahi beste gara daiteke. Dokumentu honetan eskainitako formulazioa oso laburra da; lau paragrafotan, toki mailan adostasuna sustatzeko pentsatutako minimo bat taxutzen du.

## 1.1. Printzipio bat: giza duintasunaren etika

Bake eta bizikidetzaren aldeko jardunak, dela toki mailan, dela beste edozeinetan, giza duintasunaren etika du oinarritzko printzipio; oinarri unibertsala besterenezina eta preskribaezina da, eta pertsona guztiak bihurtzen ditu giza eskubideen subjektu, salbuespenik gabe. Giza duintasunaren zimen-duaren gainean eraiki zen eta sostengatzen da giza eskubideen etxea.

## 1.2. Konpromiso bat: giza eskubideak

Bakearen eta bizikidetzaren aldeko lana partekatzeke, funtsezko konpromisoa da giza eskubideen babesean eta sustapenean bat etortzea. Konpromiso integral bat da eta berekin dakar iraganean gertatutako indarkeria eta terrorismo mota oro arbuiatzea eta orainaldian nahiz etorkizunean berriz gertatzeari aurka egitea.

## 1.3. Helburu nagusi bat: bakea eta bizikidetzaz

Giza duintasunaren etikaren eta giza eskubideekiko konpromiso etiko eta integralaren printzipioa dutela euskarri, alor honetan gauzatutako jarduketa guztiek helburu nagusi bat dute: gizartearen oinarrietatik abiatuta, bakearen eta giza eskubideen aldeko kultura sustatzea, horrenbestez, indarkeriaren behin betiko eta atzeraezineko amaiera finkatzen eta bizikidetzaren normalizazio soziala bideratzen laguntzeko.

## 1.4. Irizpide gidari bat: aniztasuna eta adostasuna

Aniztasunarekiko begirunea ezinbesteko oinarri politikoa da bakearen eta bizikidetzaren alde jarduteko, eta adostasuna lortzeari garrantzi gorena ematea eskatzen du. Aniztasuna garatzeko eta bizikidetzaz proiektu sendo bihurtzeko, funtsezko irizpide gidaria da gure auzo, herri eta hirietan desberdinen arteko oinarritzko akordio sozial eta politikoak bilatzea eta sustatzea.

---

## 2. Udal mailan susta daitezkeen **jarduketak**

---

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jardute-propo-  
samen sorta bat aurkezten du, toki mailan –eta betiere udal bakoitzaren errealitate, inguruabar eta aha-  
len arabera– susta daitezkeen sei aukera bilduta. Azpimarratu behar da tresna horiek iradokizun irekiak  
direla.

### 2.1. Bakegintza eta bizikidetzarako udal-batzordeak

Udalek, zein bere errealitatearen arabera, azter dezaketen lehen aukera udal-egituraren barruan ba-  
kegintza eta bizikidetzarako udal-batzordeak sortzea da, toki mailan giza eskubideei, biktimei, me-  
moriari nahiz bizikidetzaren normalizazioari buruzko politika publikoak diseinatu eta bultzatu ditzaten.  
Batzordeek tokian tokiko sentsibilitate politiko guztiak biltzeko eta herritarrek nahiz gizarte-eragileek  
parte-hartzeko aukerari bide ematen diote, birtualtasun hori dute.

### 2.2. Herritarren foroak eta bizikidetzaren pluraleko esperientziak

Beste aukera bat, aurrekoaren osagarri, askotariko sentsibilitateak dituzten herritarren arteko biziki-  
detza-foro eta -esperientziak sortzea eta mantentzea da, toki mailan bizikidetzaren adostea sustatzeko.  
Ildo horretan, toki mailan badira esperientzia ugari, azken urteotan halako ekimenak egin dituztenak  
eta jardunbide egokitzat har daitezkeenak.

### 2.3. Biktimei babesa

Era berean, udal bakoitzak aintzat har dezake biktimen errealitateari buruzko tokiko azterketa bat  
egin edo eskatzeko aukera, bere laguntza-eskumenen esparruan eta errekonozimenduaren arloan  
zer jarduera mota abiarazi dezakeen inguruko ondorioak ateratzeko. Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusiak ildo honetan egindako lanak eta dokumentuak abiaburu egokiak izan daitezke  
halako azterketa bat egiteko. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzen-  
daritzaren aholkularitza jaso dezakete.

### 2.4. Memoria-politika udal mailan

Udalek, orobat, Eusko Jaurlaritzak udal mailan memoria-politika publikoak egiteko eskaintako go-  
mendioak gara ditzakete, eta urtero, azaroaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatu, udalerrian ahalik  
eta adostasun handiena bilatuta. Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua-  
ren lankidetzarekin egin dezakete hori guztia.

### 2.5. Berriz gizarteratzea

Udal-eskumenez ez dute zuzeneko loturarik espetxe-kudeaketarekin; herriko bizilagunek espetxean  
izan ondoren berriz gizarteratzeko laguntzaren arloan, ordea, izan dezakete. Testuinguru horretan,  
Udalek printzipio legal eta humanitarioetan oinarritutako espetxe- eta gizarteratze-politika mota berri  
baten alde egin dezakete.

### 2.6. Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kultura sustatzeko ekimenak

Udalek jarduteko dituzten aukeren barruan sartzen da, halaber, toki mailan giza eskubideak sustatze-  
ra eta gizartea bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura baterako heztera bideratutako ekimenak  
bultzatzea eta babestea, elkarte-sarearekin eta tokian tokiko eragile sozialekin elkarlanean. Ildo ho-  
rretan, Elkarrekin Programak eta beste zenbait diru-laguntzak aukera multzo bat jartzen dute udalen  
eskura.

## 3. Erakundeen arteko koordinazio-**esparruak**

---

### 3.1. Erakundeen arteko koordinazioa

Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzak Planak erreferentzia-esparru bat eskaintzen du alor horretako politika publikoak bideratzeko. Komunikazio eta koordinazio estua eta arina izatea politika instituzional arduratsuaren zeregina da. Elkarreragiteko gogoia honako jarduketak zehatz hauetan ageri da:

- EUDEL-en eta Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartzea Bake eta Bizikidetzak Planaren Aholku Batzordean.
- Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioa bizikidetzaren kultura bultzatzea helburu duten udal- eta elkarte-jarduerak sustatzeko Elkarrekin Programa gauzatzeko.

### 3.2. Memoria-erakundeekin koordinazioa

Memoriaren politika publikoek eginkizun nabarmena dute bizikidetzak normaltzeko prozesuan. Horren erakusgarri da ezen, azkenaldian, askotariko erakunde elkar-osagarriak ari direla sortzen alor horretan eta, horrenbestez, ezinbestekoa da jardunaren koordinazioa. Jarduketak hauetan gauzatzen da:

- EUDEL-en eta Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren parte-hartzea, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuen Zuzendaritza Kontseiluan.
- EUDEL eta Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia prest agertu dira memoria-politika publikoak egiten dituzten beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzeko –Terrorismoaren Biktimen Memoriala, Gernikako Bakearen Museoa eta Aieteko Bakearen Etxea, kasu–, Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta bai eta toki mailako nahiz elkarten alorreko beste oroimen-ekimen batzuekin ere.



---

# 3. dokumentua

---

Lankidetza-hitzarmena  
**EGK**rekin eta balantze laburtua

---



---

Hitzarmena, euskal autonomia erkidegoko administrazio orokorraren eta euskadiko gazte kontseiluaren artekoa, euskadiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza plana garatzeko gazteriaren eta heziketa ez-formalaren jarduera-lerro espezifikoak partekatu, diseinatu, garatu eta gauzatzeko dena.

---

**Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 6an**

## PARTE HARTU DUTE

---

Iñigo **Urkullu Renteria** jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN** izenean eta haren ordezkari.

**Itsaso Andueza Fernández** andrea, **EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILU**ko presidente gisa, Q-9850001-J zenbakidun IFK duena eta helbide soziala Bilboko Autonomia kaleko 44 zenbakiko beheko solairuan duena.

## ADIERAZI DUTE

---

Eusko Jaurlaritzak 2013ko azaroaren 27an 2013-2016ko Bake eta Bizikidetza Plana onartu zuen.

Plan honen 17. ekintza-programak, duten garrantziagatik, gazteriaren, kulturaren eta arautu gabeko hezkuntzaren arloetara bideratzen ditu ekimenak, gazteek bakea finkatzeko orduan partaide direla senti dezaten.

Batzar Orokorrean onartutako 2014rako lan-planean jasota dagoen moduan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gazteak, gizarte osoaren kide aktiboak izanik, oraingo errealitatearen protagonista ere izatea du helburutzat, eta horregatik beren esparrua edukitzea esperientziak, beharrak eta interesak entzunarazi ahal izateko, baita bakearen eta bizikidetzaren arloan ere.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzak, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera lan egin nahi du 2013-2016rako Bake eta Bizikidetza Plana garatzeko partaidetza-esparruak ezartzeko, oinarritzat konpromiso etikoa, politikoa zein gizarte eta hezkuntzakoa hartuta, era horretan ulertuz gazteak beren garaiaren protagonista izan direla, direla eta izango direla.

---

Hitzarmen honen bitartez lankidetzaz-esparru bat ezarriko da, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean, lehen azaldutako eginkizuna gauzatzeko, eta finkatu egingo dira alde bakoitzak honako ekintza hauetara bideratu beharreko baliabideak egoki koordinatzeko oinarriak:

- Gazteek bakearen eta bizikidetzaren gainean dituzten iritziak eta esperientziak entzun eta erantzutea.
- Gazteriaren eremuan bakearen, bizikidetzaren, kulturartekotasunaren eta giza eskubideen aldeko gizarte eta hezkuntza arloko konpromisoa partekatzea.
- Bizikidetzaz-gatazken tratamendu eraikitzaileerako tresnak banatzea gazteen artean.
- Bizikidetzako eta gizarteaz elkartzeko kultura lortzeko baliabide eta aplikazio sortzaileen eta artistikoen funtsez sortzea.
- Sormena, ekintzailetza eta berrikuntza soziala sustatzea gazteen artean bizikidetzaz-proiektuei dagokienez.

Adierazitakoaren bidetik, aldeek lankidetzarako oinarritzko hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausulen arabera:

## KLAUSULAK

---

### LEHENENGOA. **Xedea**

Hitzarmen honek lankidetzaz-esparru bat ezartzea du helburutzat 2013-2016rako Bake eta Bizikidetzaz Plannaren 17. ekintza-programa garatzeko.

### BIGARRENA. **Proiektuen definizioa**

Proiektu hauek zehaztu dira helburu hori lortzearen:

- Bizikidetzaren, giza eskubideen eta gatazkek konpontzearen arloko gazteentzako berariazko prestakuntza-programa bat garatzea.
- Espazio ireki bat martxan jartzea, gazteek eta gazte taldeek beren testigantza, esperientzia eta ikuspegiak bidaltzeko aukera izan dezaten euskarri desberdinetan (argazkiak, bideoak, marrazkiak, audiodioa, ipuinak, poesiak, eskultura...), eta horien berri ematea.
- Elkarte eta gazteen topaketa bat antolatzea, bakearen eta bizikidetzaren gaineko ikuspegiak elkar trukatzeko eta iraganeko esperientziak, gaur egun garatzen ari diren proiektuak eta etorkizunerako ideiak partekatzeko.
- Literaturako, antzerkiko, zinemako eta beste diziplina artistiko batzuetako lanei buruzko erreferentzia-funtsez sortzeko proiektu bat egitea; ikuspegi pedagogikotik begiratuta bakea eta bizikidetzaz oinarri dituen kulturari ekarpena egiteko erabilgarriak izan daitezkeen eta gazteen elkartearen sare osoaren-tzat eskuragarri egongo diren lanak.

### HIRUGARRENA. **Aldeen konpromisoak**

1.- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak honako hauek egiteko konpromisoa hartu du:

- Gazteen elkarte-sarean «Gizalegez gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoa»-ri buruzko akordioa zabaltea, eta haren edukiei buruzko parte hartzeko eta adosteko prozesu bat sustatzea.
- Bizikidetzaren, giza eskubideen eta gatazkek konpontzearen arloko berariazko prestakuntzarako urteko programa, Elkarrekin Bonuen Programarekin lotutakoa, gazteen elkarte-sarean dinamizatzea.



- Askotariko sentsibilitateko gazteen arteko topaketak antolatzen laguntzea, erabakitzen den moduan.
  - Bakearen eta bizikidetzaren kultura bat lagun dezaketen esperientziak, lekukotasunak eta ikuspegiak biltzea gazteen artean, hainbat euskarritan.
  - Bakearen eta bizikidetzaren kultura bat laguntzeko ikuspegi pedagogikotik baliagarriak izan litezkeen literaturako, antzerkiko, zinematografikoa eta bestelako arte-diziplinetako lanen funts bat sortzeko proiektua diseinatzen laguntzea Jarraipen Batzordean, erabakitzen den moduan.
  - Baliabide material eta pertsonal egokiak bideratzea konpromiso horiek dinamizatzeko eta garatzeko.
- 2.- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak honako hauek egiteko konpromisoa hartu du:
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean aritzea azaldutako proiektuak garatzeko.
  - 65.000 euro bideratzea lankidetza hori garatzeko. Zenbateko hori honela ordainduko da:
    - Zenbatekoaren % 40 hitzarmen hau sinatzen denean.
    - Beste % 40 bat topaketen proiektua, prestakuntzako proiektua eta lekukotasunak biltzeko espazio irekiko proiektua egin ondoren; lehen bi ordainketei dagozkien gastuak justifikatu behar dituzte aurretik, nolana ere.
    - Gainerako % 20, aipatutako proiektuak bukatu eta literaturako, antzerkiko, zinematografiako zein bestelako arte-diziplinetako lanen funtsaren proiektua aurkeztu ondoren, eta alde aurretik gastu guztiak justifikatu ostean.

## LAUGARRENA. **Jarraipen Batzordea**

1.- Batzorde honi dagokio:

- Hitzarmen honen barruan gauzatu beharreko proiektuak onartzea.
- Proiektu bakoitzaren garapenaren jarraipena egitea.
- Hitzarmen honen jarraipena egitea, baita interpretazioa ere, eta aplikatzeko orduan sor litezkeen zailtasunak argitzea.

2.- Jarraipen Batzordeak hiru kide izango ditu.

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako pertsona bat.
- Gazteria eta Kirolak Zuzendaritzak izendatutako pertsona bat.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak izendatutako pertsona bat.

3.- Batzordeko burua izango da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako kidea, eta idazkaria Batzordeak berak kideen artean hautatutakoa.

4.- Jarraipenerako batzordearen araubide juridikoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluaren bidezko kide anitzeko organoetara egokituko da.

## BOSGARRENA. **Iraupena**

1.- Hitzarmena sinatzen denetik 2014ko abenduaren 31ra egongo da indarrean.

2.- Luzatu ahal izango da, bi aldeek hala erabakitzen badute, eta idatziz jasotzen badute, betiere horretarako aurrekonturik badago. Horrela gertatuz gero, Jarraipen Batzordeak luzapen-aldirako ekintza-programa onartuko du, baita dagokion diru-zenbatekoa ere. Hitzarmen honi erantsiko zaio programa hori.

---

## SEIGARRENA. **Hitzarmena baliogabetzea**

1.- Hitzarmena amaituko da aurreko klausulan ezarritako epea bukatzen denean, edota, bestela, bi aldeek idatziz horrela erabakitzen dutenean.

2.- Nolanahi ere, aldeek jarduerak amaitu arte jarraitu beharko dute, baldin eta jardueraren bat egiteko bi-dean badago edo hirugarrenekin hitzartuta badago, eta hitzarmen honen arabera dagokion zenbatekoa ordaindu bada.

Azaldutako guztiarekin adostasuna adieraziz, alde biek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, orrialde guztietan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

**Iñigo Urkullu Renteria**

Lehendakaria

EUSKADIKO GAZTE KONTSEILUA

**Itsaso Andueza Fernández**

Presidente

---

# Hitzarmenaren balantze laburtua

---

## 2014

### ***Gazteak biolentziaren aurrean: bizikidetzaren sustatze formakuntza saioa***

Bizikidetzaren, Giza Eskubideak eta gatazken konponbide eraikitzailea aztergai dituen gazteontzako formakuntza saio bana aurrera eramanean da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru hiriburuetan. Bakeola eta Gernika Gogoratuz-eko teknikariek batera diseinatu eta garatu da. Galdera hauek abiapuntutzat harturik, gazteon artean hausnarketa sustatzea izan du helburu: *Zer indarkeria mota daude eta nola identifika ditzaket? Zer aurreiritzirekin bizi gara eta zer eragina du gure harremanetan? Nola eraikitzen ditu norberak "etsai" eta "lagun" kontzeptuak? Nola justifikatzen ditugu gure kontraesanak eta besteenak? Eta, batez ere, nola kudeatu ditzakegu sortzen diren desadostasunak eta gatazkak?*

### ***Bakeahots komunitate birtuala***

Bakeahots.org gazteon testigantza, esperientzia eta ikuspegiak bidali eta partekatzeko komunitate birtuala izan da. Baita oraindik eraikitze dagoen etorkizun komun baten gaineko proposamenak eta itxaropenak islatzeko lekua ere. Edukiak hainbat diziplina artistikoetan igotzeko aukera ematen du: komikia, musika, bideoa, marrazketa, pintura, argazkilaritza, literatura, etab. Baita euskaraz eta gaztelaniaz (nahiz ele bitan) sortzeko ere.

### ***Bake ibilbidea topaketa***

"Topaketa" formatua berriztatze asmoz, bizi ditugun denboraren hiru ardatzak hirira eramanean dira: iragana, oraina eta etorkizuna. Ardatz bakoitza, hiriko txoko batean bihurtu eta ibilbide baten bidez lotu dira; horrela, gazteok, bidean geundela, elkarrizketarako tarte egon da, baita unearen sinbolismoarekin bat datozen hainbat ekintza egiteko ere. Giro lasaian eta erosoan bukatzeko, saioa pintxo potearekin amaitu da.

## 2015

### ***Bake&Arte tailerrak***

Martxan jarritako *Bakeahots* komunitate birtuala gazteon artean ezagutarazteko helburuarekin, hiru lurraldeetan Bake&Arte tailer bana antolatu da. Gazteoi zuzendutako tailer hauetan, dinamika artistikoak burutu dira, artea eta kultura eta bakea eta Giza Eskubideen defentsaren arteko loturari buruz hausnartzeko. Zehatz-mehatz, tailer bakoitzean, hiru dinamika gauzatu dira: "Interpretazio anitzeko irakurketa"; "Giza Eskubideak irudikatuz"; eta "Etorkizuna amesten".

### ***Memoriaren plazako kanpainaurrea***

Eusko Jaurlaritzako (EJ) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren Memoriaren Plaza webgunea bultzatzeko kanpainaurrea burutu da. Horretarako, gazte-elkarte, EAEko hiru unibertsitate eta hainbat gazte guneei gazteok berriemaile-boluntario gisa beraien inguruko nagusien lekukotzak mugikorrarekin grabatzea proposatu zaie. Bideo horiek editatu, Memoriaren Plaza webgunera igo eta Memoriaren Institutura pasa dira.

---

## ***Bakehizketak* barnetegia**

Bakea eta bizikidetzarekin lotuta dauden gaien gainean gazteok daukagun ikuspuntua aberasgarriagoa eta anitzagoa izan dadin, EAEko errealitatearekin harreman zuzena duten pertsona aditu eta esanguratsuekin topaketa bat antolatu da: *Bakehizketak*. Esperientzia sakona izateko, asteburu bateko barnetegia izan da. Asteburua bost ataletan banatu eta bakoitzean gai nagusi bat jorratu da; horretarako aproposa den dinamika eginez eta eragile eta gazteen arteko solasaldia sustatuz.

## **Bake lantaldea eta Nazioarteko Egunak**

EGK-ko bake lantaldearen lehenengo helburua bakea eta bizikidetzarekin lotura duten Nazioarteko Egunetan gazteentzako ekimenak pentsatzea, prestatzea eta garatzea izan da. Azpimarratzekoa da Memoriaren Egunean aurrera eramandako ekimena: EAEn azken hamarkadetan bizi izan den terrorismo eta indarkeria politikoaren ondorioz egon eta egun dauden biktimen profilekin idatzitako istorio laburrak sare sozialetan partekatzea. Halaber, bake lantaldea, gai hauei buruzko ikuspuntuak eta bizipenak partekatzeko gunea ere bihurtu da.

## **Galdetegia**

EAEn pairatutako terrorismoa eta indarkeria politikoa, Giza Eskubideen urraketen erreparazioa eta aitortpena, eta bizikidetzaren eraikuntza, besteak beste, gai interesgarriak izan daitezke gazteontzat, baina ez daude gure lehentasunen artean. Ondorio honen arrazoia, gaur egun gazteok bizi dugun egoera sozioekonomikoa izan daiteke. Hala ere, gazteok dugun ikuspuntua era zuzenago batean ezagutu eta aztertze asmoz, bakea eta bizikidetzarekin lotutako galdetegi bat prestatu eta zabaldu da EGKren gazte-elkarte eta gazteen artean.

# 2016

## **Seton Hall unibertsitateko ikasleekin esperientzia-trukea**

EAEko gazteok memoria, kontakizuna eta iraganarekiko dugun ikuspegia anitzagoa izateko, Seton Hall unibertsitateko (AEB) ikasleekin esperientzia-trukea antolatu da. Bi ikasle taldeek maila pertsonalean elkar ezagutzeko aukera izan duten bitartean, gaiarekiko ikuspuntuak partekatu eta alderatzeko tarte eduki dute ere. Gazteon bizipenak partekatu dituzte batez ere, hau da: diskurtso akademikotik aldendu eta egunerokotasunean ikusi, entzuten eta sentitzen dutenaren gainean hausnartu dute.

## ***Bakehizketak* topaketa: dokumentala eta dinamika parte-hartzailea**

EAEko gazteoi, komunikabideei, instituzioei eta gizarteari *Bakehizketak* proiektuaren ondorioak helarazteko asmoz, dokumental labor bat sortu eta aurkezpen publiko bat egin da. Ekitaldi honetara *Bakehizketetara* etorri ziren eragile eta gazteak gonbidatu dira, eta beste horrenbeste eragile eta gazte berri. Gainera, dokumentala ikusi ostean, dinamika parte-hartzaile bat burutu da, non gazteok etorkizun baketsu baten aurrean ditugun erronkak identifikatu ditugun.

## **Bake lantaldea: erronkak proposamen bihurtzen**

*Bakehizketak* topaketan atera ziren erronkak abiapuntutzat hartuta, bake lantaldeak gazteon artean bakegintzan lagunduko dituzten proposamenak identifikatu eta landu ditu. Hauek, EGK-k, etorkizunera begira, errealitateari egokituagoak dauden gazteontzako bake-proiektuak egiteko baliagarriak izatea espero da.

## **Protokoloa**

Sortu den protokolo honen xedea EGK-ko gazte-elkarte baten parte edota EAEn bizi diren gazteon kontrako erasoak identifikatu eta deitoratzeko balio izatea da. Betiere, pairatutako Giza Eskubideen urraketak gaztearen jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoa badu oinarri. Horretarako, hainbat testu eredu prestatu dira, kasuaren arabera adierazpen testu bat edo beste plazaratzeko.

## ***EGK: 30 urte bakearen alde! jardunaldia***

EGK-k orain dela 30 urte hasi zuen bere bidea eta ordutik gaur egun arte beti mantendu du gazteon artean bake-kultura eraikitze konpromisoa. Horregatik, jardunaldi berezi bat antolatu da, non EGKn bakea eta bizikidetzaren landu dituzten teknikariek egungo gazteon ikuspuntua osatu duten. Jardunaldiaren helburua gazteoi gure memoriaren parte bat ezagutzeko aukera ematea izan da.

## **Bake ekimenak EAEko udalerrietan**

Hitzarmenaren baitan diseinatutako bake ekimenak EAEko beste udalerri batzuetara eramateko aukera eman da. Helburua, hiriburuetatik urruntzea, herriguneetan bizi diren gazteak konpromiso honetan inplikatzeko. Proiektu hau burutzeko, EAEko udalerrietako hainbat gazte-elkarte eta gazte-teknikariekin harremanak sortu dira. Era honetan, ekimenak aurrera eraman dituzten udalei, ekimenak bertako errealitatera ahalik eta gehien moldatzeko; nahiz eta une oro gazteon aurrean EGK izan ekimenetako sustatzaile, arduradun eta ekoizle.

## **Estatu mailako unibertsitateetako gazteekin bakegintzaz hausnartzeko topaketa**

Proiektu honen helburua EAEko gazteok Estatuko beste gazteekin batera hausnarketak partekatzea izan da, EAEtik kanpo gaur egungo bizikidetzaren egoera nola jasotzen den ikusteko, besteak beste. Hiru eguneko topaketa hau Demagun eta Donostia 2016-rekin elkarlanean burutu da. Zehatz-mehatz, proiektu honetan EGK-k izan duen egitekoa dinamika bat antolatu eta bertako gazte taldea sortzea izan da.

## **Gazte bakegintzaren dokumentala**

Burututako ekimen guztietan lortutako ikus-entzunezko materialaren baliagarritasuna antzemanda eta parte hartu duten gazteek gai hauekiko duten interesa ikusita, EGK eta EJko hitzarmenaren baitan egindako lana dokumental batean bildu da. Era honetan, bi gauza lortu nahi izan dira. Batetik, ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortu, instituzio, komunikabide eta gizarteari helarazteko. Eta bestetik, parte hartu duten gazteok beste gazte batzuk bake kulturaren alde lan egitearen garrantzian kontzientziatu, sentsibilizatu eta konprometitzea.

## **Ondorio gidaliburua**

EJ eta EGK hitzarmeneko proiektuekin lortutako ondorioekin gidaliburu bat plazaratu da. Helburua egindako lan guztia (bai metodologia aldetik, bai emaitza aldetik) biltzea izan da. Era honetan, gazteok gaiarekiko ditugun kezkak, beharrak, interesak eta proposamenak instituzio, komunikabide eta gizarteari helarazteko. Halaber, gazte-elkarte edota beste hezkuntz-eragileek gai hauek landu nahi izatekotan, dinamikak antolatzeke erreminta bat eskura eduki dezakete.

## **Besteak**

Hiru urte hauetan EGK-k beste hainbat bake ekimenetan parte hartu du. Kasu batzuetan EJko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak antolatutakoak izan direlako; eta besteetan hainbat eragileek hala eskatu diotelako: ikastaroak, topaketak, hitzaldiak, ikerketak, aurkezpenak, aholkularitzak, besteak beste. Aipatu beharra dago ere, denbora tarte honetan, EGK-ko bakea eta bizikidetzarekin lotutako proiektuak eta gai hauekiko gazteok ditugun ikuspuntu eta hausnarketak EAEko hainbat komunikabideetara helarazi direla.



---

# 4. dokumentua

---

Lankidetza-hitzarmena  
**EITB**rekin eta balantze laburtua

---





---

# lankidetzarako esparru-akordioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskal Irrati Telebista (EITB) erakunde publikoaren artekoa, hedabide publikoen alorrean 2013-2016ko bake eta bizikidetzaren planaren ekintza- ardatzak adostea, diseinatzea eta garatzea xede duena

---

**Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 31an**

## PARTE HARTZEN DUTE

---

**Juan Antonio Fernández** jaunak, Lehendakariak Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak, **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN** izenean eta haren ordezkari.

**María Teresa Iturbe Mendialdua** andreak, **EUSKAL IRRATI TELEBISTA** (EITB, aurrerantzean) erakunde publikoko zuzendari nagusia den aldetik, haren izenean eta haren ordezkari.

## ADIERAZTEN DUTE

---

2013ko azaroaren 26an, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana - Gizartea elkartzea helburu onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Plan horretako 18. ekintza-programak honako ekimen eta helburu hauek ditu:

- Indarkeriaren aurka kontzientzia sozial kritikoa eta giza eskubideekin ez ezik bizikidetzaren demokratikoen balioekin ere konprometituta dagoena indartzea.
- Gizartearen eta hezkuntzaren alorreko zeharkako konpromisoa sustatzea, gizartea elkartzeko prozesua ahalbidetzeko.
- Hedabideekin eta bereziki EITB erakunde publikoarekin sinergia-dinamika bat sustatzea, proiektio praktikoa eta gizartean erabilera izango duten lankidetzaren eremuak ezartzeko.

2012ko ekainaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta EITBren arteko Programa Kontratua hitzartu zen. Programa Kontratu horren 3.2. atalean –gizalegezko balioak eta bakearen kultura sustatzeari buruzkoan– xedatutakoaren arabera, beste batzuen artean helburu du EITBk: “Euskal

---

gizartea egituratzen laguntzea, elkarbizitza demokratikoko eta aniztasuna errespetatzeko gizarte-balioak sustatuz, bakearen aldeko kultura eta memoria modu eraginkorrean bultzatzeko eta terrorismoak euskal gizartean izan duen eraginaren kontakizun objektibo eta egiazko bat eraikitzen laguntzeko”.

Horretarako, Programa Kontratuaren 5.9. atalean honako hau jaso da EITBren konpromisoetatik gizalegeko balioak eta bakearen aldeko kultura sustatzearekin lotura duten horien artean: “EITBk erakunde arteko akordioa sinatuko du Eusko Jaurlaritzarekin, adosten den irismenarekin, honako gai hauen gainean: giza eskubideak, biktimen arreta, oroimenaren kontaketa eraikitzea eta bakearen kultura”.

Aurreko bi legegintzaldietan aldian-aldian onartutako bizikidetzaren planei lotutako bi lankidetzaren hitzarmen egin dituzte Eusko Jaurlaritzak eta EITBk. Batean zein bestean, ETAREN terrorismoa, indarkeriaren beste edozer mota, eta eskubideen urraketa gaitzestea eta deslegitimatzea funtsezko ardatz izan dira, bai eta demokraziaren, aniztasunaren eta bakearen aldeko balioekiko konpromisoa ere. Egun, ETA behin betikoz amaitu den eta bizikidetzaren sozial nahiz politikoaren egoera normalizatu bide den honetan, balio horiei jarraitutasuna ematen die esparru-akordio honek.

EITB taldearen profesionaltasun eta independentzia printzipioa errespetatuz eta EITB sortzeko legean ezarritakoa betez ezartzen da eta ezarri izan dira lankidetzaren akordioak, aurreko legegintzaldietan zein legegintzaldi honetan.

Esparru-akordio honen bitartez, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta EITBren arteko lankidetzaren ezartzen da; beti ere, azaldutako ekimenak eta xedek betetze aldera, eta alde bakoitzak horretarako erabiliko dituen baliabideak egoki koordinatzeko oinarriak finkatuz.

Adierazitakoa oinarri hartuta, alderdiek esparru-akordio hau sinatzea adostu dute, honako klausula hauek adostuta:

## KLAUSULAK

---

### LEHENENGOA.- **Xedea.**

Esparru-akordio honen xedea da, hain zuzen ere, 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planeko 18. ekintza-planeari eta Kontratu Programan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk 2014-2016 aldian zer ekimen garatuko duten zehaztea.

### BIGARRENA.- **Ekimenak.**

Xedea betetzeko, honako ekimen hauek gauzatuko dira:

#### a) EITBren konpromisoak

##### 1. konpromisoa

Euskal gizartearen akordio sozial eta politikorik garrantzitsuenek bultzatutako xede etikoekin eta demokratiakoekin konpromisoa hartua duen ildo editoriala garatzen jarraituko du EITBk. Xede horiek guztiak hiru ardatz handi hauetan labur daitezke:

- Indarkeriarik eza: Indarkeriarik ezarekin konpromisoa hartutako kontzientzia kolektiboaren alde egiten du EITBk; terrorismoaren bidegabekiaren eta pairatutako indarkeriaren aurrean.
- Giza eskubideak: Giza eskubideak defendatzearen alde egiten du EITBk, bai eta giza eskubideen urraketen biktimekiko elkartasunaren alde ere.
- Bizikidetzaren: Bizikidetzaren integritatearen eta gizarte-topaketako prozesua ahalbidetzearen alde egiten du EITBk.

## 2. Konpromisoa

Zerbitzu publikoko programak egingo ditu EITBk, betiere, zintzotasunez, zorrotztasunez eta objektibotasunez informatzeko eta dokumentatzeko konpromisoa hartuta, gardentasunez jokatzeko eta hainbat ikuspuntu emanez. Oinarri horren gainean jarraituko du hauen guztien jarraipena egiten eta hauek guztiak zabalitzen: giza eskubideekin, biktimetako laguntzarekin, bakearen aldeko kulturarekin, memoriarekin eta horien guztien testigantzekin lotura duten gertakariak, berriak eta gertaerak; bai eta hezkuntzaren, parte-hartzearen eta bizikidetzaren alorreko proiektuak eta gizarte-ekimenak zabalitzen ere. Horretarako, komunikazio-formaturik egokienak erabiliko ditu EITBk kasuan-kasuan (berriak, erreportajeak, elkarrizketak, eztabaidarako guneak, eta abar), baita taldearen hedabide-euskarri guztietan erabili ere: telebistan, irratan eta interneten.

## 3. Konpromisoa

Iraganari buruzko memoria kritikoaren sail dokumentala egingo du EITBk legegintzaldi honetan. Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa jorratuko dituen sail hori hamarkadaka antolatuta egongo da; 1960an hasi eta egundaino. Saileko edukiari dagokionez, gertakarien eta testuinguru historikoaren berri emateko historiografia modu berezian zaindu beharko da. Historiografia horrek teknikoki oso ondo garatua behar du, eta zintzotasunez, zorrotztasunez, objektibotasunez eta aniztasunarekiko errespetuz emana. Alde horretatik, argitaratze-aholkulari talde fidagarri eta anitza izango du proiektuak.

## 4. Konpromisoa

Memoriaren egunaren eta giza eskubideen nazioarteko egunaren artean, hots, azaroaren 10etik abenduaren 10era, saio bereziak eskainiko ditu EITBk euskarri guztietan. Bi egun horien arteko epeak garrantzi berezia izango du aipatutako gai horiek garatzeko.

## 5. Konpromisoa

Bake- eta bizikidetzaren prozesuetan komunikazio taldeen egitekoa aztertzeko jardunaldi tekniko eta akademikoa egingo du EITBk legegintzaldi honetan; Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde den aldetik horren ardura baitu. Jardunaldi horretan, goi-mailako profesionalak hartuko dute parte.

### b) Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren konpromisoak

#### 1. Konpromisoa

Esparru-hitzarmen honetan jasotako edozer ekimenetan eta bi aldeek egoki baderitzote, lankidetzan, sustapen-ekintzetan eta antolakuntza-jardueratan ekarpenak egin edo kontaktuak zein harremanak kudeatzeko laguntza eskainiko dio Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak EITBri.

#### 2. Konpromisoa

EITBren hirugarren konpromisoari lotuta, iraganeko memoria kritikoari buruzko dokumentalak zabalduko ditu Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, unibertsitateetan, eta liburutegien sarean. Horretaz gainera, ikus-entzunezko materiala estatuko ikastetxeetan, unibertsitateetan eta liburutegian banatze aldera, beste administrazio autonomiko batzuekin akordioak egin ditzake Eusko Jaurlaritzak.

#### 3. Konpromisoa

EITBren laugarren konpromisoari lotuta, Memoriaren Egunaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren artean, hots, azaroaren 10etik eta abenduaren 10era izango diren publizitate-kanpaina instituzionalen diseinua eta finantzazioa hitzar ditzake Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak.

#### 4. Konpromisoa

EITBren bosgarren konpromisoari lotuta, bakegintza- eta bizikidetzaren prozesuetan komunikazio-taldeek duten egitekoari buruzko jardunaldi tekniko eta akademikorako finantzazioa eta sustapena bilatzen lagunduko du Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak.

---

## 5. Konpromisoa

Akordio honetan aurreikusitako edozer ekimen garatzeko orduan, hedabideetan bakegintzaren eta bizikidetzaren alde lan egiteko asmoz Europar Batasunak eta nazioarteko beste erakunde batzuek sustatutako programa espezifikoa behin-behinean parte hartzen saiatuko da Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.

## HIRUGARRENA.- Jarraipen Batzordea

1.- Jarraipen Batzordeak zortzi kide izango ditu:

- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako lau pertsona.
- EITBk izendatutako lau pertsona.

2.- Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak izendatutako pertsona izango da batzordeko buru. Idazkari-lanak, aldiz, batzordeko kide batek egingo ditu, batzordeak berak hautatutako hark.

3.- Batzorde horri dagokio:

- Esparru-akordio honen baitan gauzatuko diren proiektuak onartzea.
- Proiektu bakoitzaren garapenaren jarraipena egitea.
- Esparru-akordio honen jarraipena egitea, hura interpretatzea, eta hura aplikatzean suerta daitezkeen zalantzak argitzea.

4.- Urtean, gutxienez, bi jarraipen-bilera egingo dira. Bi bilera horietako baten xedea izango da urteko txostena eta ebaluazioa egitea.

5.- Kide anitzeko organoei buruzko arauetara lotuko zaie batzordearen araubide juridikoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II. kapituluaren bildutakoaren arabera.

## LAUGARRENA.- Esparru-akordioaren jarraipena

Konpromisoen jarraipenari buruzko urteko txostena egingo du Jarraipen Batzordeak; eta hura Eusko Jaurlaritzari entregatuko zaio urtero, martxoko lehen hamabostaldian.

## BOSGARRENA.- Jakinarazpen instituzionala

EITBri dagokio esparru-akordio honen betearazpenaren zein betetze-mailaren berri ematea eta urteko txostenak aurkeztea EITBren kontrolerako batzordeari eta EITBren administrazio-kontseiluari.

## SEIGARRENA.- Iraupena

Sinatzen den egunetik 2016ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean esparru-akordio hau. Bi aldeak ados badaude, haren iraupena luza daiteke; idatziz formalizatuz gero. Kasu horretan, luzapenerako jardueraprograma onartuko du Jarraipen Batzordeak. Akordio honi erantsiko zaio jardueraprograma hori egoki diren baimenak eman ondoren, beti ere.

## ZAZPIGARRENA.- Amaitzea

1.- Esparru-akordio hau bukatutzat jo daiteke aurreko klausulan ezarritako epea igaro delako, bai eta alderdi guztiek idatziz hala adostu dutelako ere.

2.- Edozein alderdik amaitutzat eman dezake esparru-akordioa, alde bakarretik. Horretarako, akordioa amaituko dela jakinarazi behar zaio beste aldeari, idatziz, amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

Eta adostasunaren lekuko, esparru-akordio hau bikoiztuta izenpetu dute aldeek, orri guztietan, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRATIK

**Jonan Fernández Erdozia**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusia

EUSKAL IRRATI TELEBISTATIK

**María Teresa Iturbe Mendiakdua**

Erakunde Publikoko Zuzendari Nagusia

---

# Hitzarmenaren balantze laburtua

---

2014ko urriaren 31n lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren artean, 2013-2016 Bake eta Bizikidetzaren Planaren 18. ekimenaren barruan 2014-2016 aldiaren bi erakundeek garatuko zituzten ekimenak zehazteko.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta EITBren arteko hitzarmenaren ondorioz, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratu zen. Batzorde horrek, 2014ko urriaren 31ko bileran, memoria kritikoaren gaineko dokumentalen proiektuari buruzko Argitalpenerako Aholku Batzordea eratzea erabaki zuen. Hitzarmeneko 3. konpromisoaren arabera EITBk garatuko zuen proiektu hori. Argitalpenerako Aholku Batzordea eratu zen, Juan Pablo Fusi, Mariano Ferrer eta M<sup>a</sup> Carmen Garmendia jaun-andreak kide izan dituelarik. Batzordekide horiek parte-hartze aktiboa izan dute lan horretan, hainbat bileratan parte hartuz eta gidoiei ekarpenak eginez.

‘Oinatz Galduek’ izenburuko dokumental-sail hori Filmak Media enpresak ekoiztu du, eta Fermin Aio izan du zuzendari. 2016ko maiatzean eman zen ETB2n, eta ETB1n uztailean. Ordu beteko bost ataletan, azken bost hamarkadatan gertatutakoaren erretratua egiten du. Atal bakoitzaren kontaketa protagonistek lehen pertsonan ematen duten lekukotasunetan oinarritzen da; eta, horien bidez, gure herriaren azken 50 urteetako historia birpasatzen da. Atal bakoitzean hamarkada batean gertatutakoaren berri ematen da, 60ko hamarkadatik hasita.

Dokumental-sail horren bidez nabarmendu nahi izan da ezen, nahiz eta sail osoan sufrimendua presente egon, hor dagoela modu positiboan eraikitako guztia ere, izuaren gainetik euskal gizarteak aurrera egiten jarraitzeko hartu zuen bidearen isla gisa.

Sailaren helburua euskal gizartearen elkarrekin bizi diren memoria desberdinen arteko elkarriketa eta gertutasuna sustatzea da, eta, horrela, bizikidetzaren integratu bat eraikitzen laguntzea.

Hitzarmeneko 5. konpromisoan jardunaldi tekniko-akademiko baten garapena jasotzen da, maila altuko profesionalen partaidetzarekin, eta bake- eta bizikidetzaren prozesuetan Komunikazio Taldeek duten zeregina analizatzea helburu hartuta.

Konpromiso hori garatzeko, 2015eko urriaren 23an, lan-bilera bat izan zen EITBren eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren artean, eta 2016ko apirila-aldean (data zehazteke), EITBren Bilboko egoitzan jardunaldi bat egitea adostu zen.

Geroago, hainbat barne-bileraren ondoren, jardunaldiaren hedapen-helburuetarako egokiagoa zelakoan, jardunaldi horren ordez EITB taldeko hedabideetan goiz osoko etengabeko kontaketa egitea erabaki zen. Proposatutako edukia EITB taldeko hedabideetan, 2016ko apirilaren 27an, emango zirela erabaki zen.

Helburu horrekin, etengabeko kontaketa bat egitea proposatu zen, aipatutakoa ardatz hartuta. Kontaketa hori ETB1eko “Egunon Euskadi” saioan hasi zen. Gero, Euskadi Irratiko “Faktoria”-n jarraitu zuen, eta, geroago, Radio Euskadiko “Boulevard” saioan eta ETB2ko “En Jake” deiturikoan. Horrez gain, eduki guztia online ere eman zen, [www.eitb.eus](http://www.eitb.eus) plataformaren bitartez.

Funtsean, Euskadiko erakundeen, kulturaren, hedabideen eta mundu akademikoaren ordezkarien eta bake- eta bizikidetzaren prozesuko protagonisten partaidetza lortu nahi zen jardunaldi horren bitartez, baita gizarte zibilarena beraren partaidetza ere, apirilaren 27ko goiz osoan zehar eta EITB taldearen hedabideetan.

Komunikazio-ekintza horren helburuak ezagutzera emateko eta herritarrak goiz guztian zehar taldearen proposamenekin kontaktatzera gonbidatzeko, publizitate-kanpaina bat abiatu zen aurreko egunetan, taldearen plataforma guztietan, bake- eta bizikidetzaren prozesuetako komunikazio-taldearen gai zentrala aintzat hartzen zuen berriazko goiburua erabiliz.

<b>Hitzarmenean jasotako konpromisoak</b>	<b>Balantzea</b>
<p><b>1. konpromisoa</b></p> <p><i>Euskal gizartearen akordio sozial eta politikorik garrantzitsuenek bultzatutako xede etikoekin eta demokratikoekin konpromisoa hartua duen ildo editoriala garatzen jarraituko du EITBk. Xede horiek guztiak hiru ardatz handi hauetan labur daitezke:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><i>·Indarkeriarik eza: Indarkeriarik ezarekin konpromisoa hartutako kontzientzia kolektiboaren alde egiten du EITBk; terrorismoaren bidegabekeriaren eta pairatutako indarkeriaren aurrean.</i></li> <li><i>·Giza eskubideak: Giza eskubideak defendatzearen alde egiten du EITBk, bai eta giza eskubideen urraketen biktimekiko elkartasunaren alde ere.</i></li> <li><i>·Bizikidetzeta: Bizikidetzeta integratzailea sustatzearen eta gizarte-topaketako prozesua ahalbidetzearen alde egiten du EITBk.</i></li> </ul>	<p>Konpromiso horri dagokionez, aipatu behar da EITBk ildo hori indarrean izan duela epe osoan zehar.</p>
<p><b>2. konpromisoa</b></p> <p><i>Zerbitzu publikoko programak egingo ditu EITBk, betiere, zintotasunez, zorrotasunez eta objektibotasunez informatzeko eta dokumentatzeko konpromisoa hartuta, gardentasunez jokatzuz eta hainbat ikuspuntu emanez. Oinarri horren gainean jarraituko du hauen guztien jarraipena egiten eta hauek guztiak zabaltzen: giza eskubideekin, biktimezako laguntzarekin, bakearen aldeko kulturarekin, memoriarekin eta horien guztien testigantzekin lotura duten gertakariak, berriak eta gertaerak; bai eta hezkuntzaren, parte-hartzearen eta bizikidetzaren alorreko proiektuak eta gizarte-ekimenak zabaltzen ere. Horretarako, komunikazio-formaturik egokienak erabiliko ditu EITBk kasuan-kasuan (berriak, erreportajeak, elkarrizketak, eztabaidarako guneak, eta abar), baita taldearen hedabide-euskarri guztietan erabili ere: telebistan, irradian eta interneten.</i></p>	<p>EITBk indarrean eduki du konpromisoa hiru urteotan bere albiste-zerbitzuetan.</p>
<p><b>3. konpromisoa</b></p> <p><i>Iraganari buruzko memoria kritikoaren sail dokumentala egingo du EITBk legegintzaldi honetan. Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketa jorratuko dituen sail hori hamarkadaka antolatuta egongo da; 1960an hasi eta egundaino. Saileko edukiari dagokionez, gertakarien eta testuinguru historikoaren berri emateko historiografia modu berezian zaindu beharko da. Historiografia horrek teknikoki oso ondo garatua behar du, eta zintotasunez, zorrotasunez, objektibotasunez eta aniztasunarekiko errespetuz emana. Alde horretatik, argitaratze-aholkulari talde fidagarri eta anitza izango du proiektuak.</i></p>	<p>Dokumental-saila 2016ko maiatzean eman zen ETB2n, eta uztailean ETB1n.</p>

<p><b>4. konpromisoa</b></p> <p><i>Memoriaren egunaren eta giza eskubideen nazioarteko egunaren artean, hots, azaroaren 10etik abenduaren 10era, saio bereziak eskainiko ditu EITBk euskarri guztietan. Bi egun horien arteko epeak garrantzi berezia izango du aipatutako gai horiek garatzeko.</i></p>	<p>EITBk indarrean eduki du konpromiso hori azken hiru urteotan, egun horietan emandako berariazko programazioaren bitartez.</p>
<p><b>5. konpromisoa</b></p> <p><i>Bake- eta bizikidetzeta-prozesuetan komunikazio taldeen egitekoa aztertzeko jardunaldi tekniko eta akademikoa egingo du EITBk legegintzaldi honetan; Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde den aldetik horren ardurabaitu. Jardunaldi horretan, goi-mailako profesionalek hartuko dute parte.</i></p>	<p>Jardunaldia 2016ko apirilaren 27an gauzatu zen.</p>







---

## 5. dokumentua

---

UPV/EHUko **Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra** sortu, garatu eta bultzatzeko Hitzarmena

---



---

# Lankidetzaren Hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa, UPV/EHUko Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra sortu, garatu eta bultzatzeko dena

---

**Gasteiz, 2016**ko uztailaren 20a

## BILDURIK

---

Alde batetik, **Jonan Fernández Erdozia jn.**, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta ordezkari gisa, Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 19ko bileran emandako baimena duena hitzarmen hau izenpetzeko.

Bestetik, **Iñaki Goirizelaia Ordorika jn.**, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU, aurrerantzean) errektorea, erakunde horren izenean eta ordezkari gisa, UPV/EHUren Estatutuek aitortzen dizkioten eskumenak erabilita.

## ADIERAZI DUTE

---

**Lehenengoa.**— UPV/EHU Zuzenbide Publikoko erakunde bat da, gizartearen zerbitzura diharduena, goi mailako irakaskuntza eskaintzen duena, irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, ikasketaren eta kultura nahiz unibertsitate hedakuntzaren bitartez.

UPV/EHUren helburuen artean daude jakintza sortzea, kritikatzeko eta transmititzeko; euskal gizartearen ondare intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoa aberastea; gizarte horren garapen ekonomikoan eta ongizatean parte hartzea; unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza bultzatzea, bereziki bideratuak gizarte eta kultura desberdintasunak murriztera eta politika, kultura eta gizarte bizitzan modu egokiagoan parte hartzeko baldintzak sortzea; eta, bere Estatutuen arabera, bizikidetzaren demokratikoari ekarpena egitea eta euskal gizartearen garapen jasangarri eta bidezkoarekiko konpromisoa hartzea, terrorismo eta bortizkeria mota oro gaitzetsiz.

**Bigarrena.**— Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eginkizuna da bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, oinarritzat hartuta giza duintasuna eta giza eskubideekiko konpromisoa, Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

---

**Hirugarrena.**– Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia eta UPV/EHU elkarlanean aritu dira hainbat egitasmotan, memoria, bakea eta bizikidetzaren politiken arloan, giza eskubideen egoera hobetzeko, egian sakontzeko, eta maila gorenera eramateko erreparazioen, justiziaren eta berriro ez gertatzeko bermearen estandarrak, giza eskubideen urraketa pairatu duten pertsonen dagokienez.

Bi erakundeek lankidetzaren esparru egonkor bat sortu nahi dute, gai hauetan dituzten helburuak hobeto garatu eta betetzeko, eta ekimen berriak abiarazi nahi dituzte, jardueren programa baten barnean.

UPV/EHUK, bere helburuak betetzeko, autonomiaz jokatzuz eta bere Estatutuen eta lege esparruaren arabera, hainbat baliabide ditu: giza baliabideak (ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak) eta baliabide materialak (instalazioak eta azpiegiturak). Bere aldetik, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarentzat, funtsezko apustu estrategikoa da erakunde egitura indartu eta zabaltzea, giza eskubideen kultura zabaltzeko, bizikidetzaren sakontzeko eta bakea behin betiko eta era atzeraezinean sendotzeko. Eta arrazoi horregatik, zeregin horretan, funtsezkoa izango da UPV/EHUK egin dezakeen ekarpena, ez bakarrik elementu erreferente delako ezagutza adituaren sorkuntzan, baita duen gaitasunagatik ere giza eskubideen eragileen sarea indartu eta dinamizatzeke, eragile ofizial eta ez-ofizialak, tokikoak eta nazioartekoak.

**Laugarrena.**– Bi erakundeak bat datoz garrantzi berezia ematean erakunde egituraren agente berri bat sartzeari, dinamizatzeke eta elkarlanean aritzeko eginkizuna izango duena, helburu jakin bati begira: gure erki-degoan giza eskubideen dibulgazioan eta aplikazioan lan egiten duen erakunde sarearen eraginkortasuna handitzea. Oso bereziki, erakundeek katedra bat sortu nahi dute UPV/EHUn, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren babesarekin, helburu nagusitzat izango duena “konexio agente” bat instituzionalizatzea, hiru mailatan:

- Lehenik, ezagutza aditua unibertsitatearen mundu akademikotik aterako duen agente gisa, gizarte eragileak eta gizarte zibila ahalduntzeko.
- Bigarrenik, botere publikoen behar eta eskaerekin ere bat egingo duen agente gisa, aldi berean Giza Eskubideen agenda publiko ofiziala proaktiboki bultzatzen lagunduko duena.
- Hirugarrenik, giza eskubideen sustapen, monitorizazio eta babeserako nazioarteko mekanismoekin lotura egingo duen agente gisa, Unesco Katedra gisa aitortua izateko borondatearekin.

**Bosgarrena.**– UPV/EHUn Estatutuetako 5. artikulua eskumen hau aitortzen dio unibertsitateari: “irakas-kuntzaren, ikaskuntzaren, ikerketaren eta unibertsitate hedakuntzaren oinarri izango diren egitura espezifikoa eratzea”.

Eginkizun horiekin lotuta dago “UPV/EHUK sortu eta nortasun juridikorik ez duten egitura eta erakunde oinarritzako arautegia” (UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko erabakia), unibertsitate katedrak sortu eta administratiboki kudeatzeko nahikoa gaitasun baduena.

Adierazitakoagatik guztiagatik, bi erakundeen arteko lankidetzaren gauzatzeko xedez, dokumentu honetan jasotzen den lankidetzaren hitzarmena sinatzea hitzartu dute, jarraian aipatzen diren klausulen arabera.

## KLAUSULAK

---

### LEHENENGOA. **Xedea**

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren arautzea Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren eta UPV/EHUn artean, *UPV/EHUKo Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedra* sortu, garatu eta bultzatzeko.

Katedraren helburu nagusia izango da giza eskubideen kultura sustatzea euskal gizartearen, nazioarteko komunitatearekin konektatuta, eta eginkizuntzat izango du bultzada ematea giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen eta oinarritzako eskubideen zabalkunde, dibulgazio eta kontzientziari, eta horiek guztiek euskal gizartearen izan behar duten aplikazio handiago eta hobeari. Hori guztia, gainera, ikuspegi nagusi batetik: botere publikoetan eragin berezia izateko asmoa, sinergia, laguntza eta estimulu puntu gehigarri bat aurki dezaten katedran, giza eskubideetan oinarrituko den lan publiko biziago eta eraginkorragoa bati begira.

Beraz, katedra tresna bat izango da, sentsibilizazio, hedapen, ikerkuntza, proiektzio eta transferentzia jarduerak sustatzeko giza eskubideen, memoria historikoaren, bakearen eta bizikidetzaren arloan.

Gainera, elkarlana ahalbidetuko du nazioartean ospea duten adituekin, euskal gizartearen interes eta kezekin estuki lotuta, baita inguruko eta munduko beste erakunde batzuekin ere.

## **BIGARRENA. Katedraren jarduerak**

Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedrak honako jarduera hauek egingo ditu hitzarmen honi lotuta:

- Era guztietako jarduerak sustatzea, bultzatzea eta hedatzea giza eskubideen ikerketa, gizarte proiektzio, sustapen eta aplikazio hobearekin lotuta.
- Truke eta lankidetzaren harremanak indartzea interes komuneko arloetan diharduten antolakuntza eta erakundearen artean; besteak beste, UNESCO Katedren Munduko Sarearekin eta giza eskubideen kontrol, monitorizazio eta sustapenerako nazioarteko mekanismoekin, unibertsal nahiz eskualde mailakoak.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa bultzatzea katedraren jardun esparruan, bai eta hari lotuta egingo diren azterlan eta ikerlanetako emaitzen transferentzia eta zabalkundea ere.
- Laguntza eta babesa eskaintzea Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari katedraren jardun esparruan egiten dituen jardueretan.

Katedraren jarduera programak kontuan hartuko ditu Jarraipen Batzordearen erabakiak, eta UPV/EHUK izango du haren gaineko erantzukizuna.

Jarduera horiei esker, besteak beste, katedra erreferente bihurtuko da bere esparruan, eta UPV/EHUKen garapenari lagunduko dio, unibertsitate ikertzailea izan dadin, mundura irekia, bere lurraldean eta kulturaren sustraitua.

## **HIRUGARRENA. UPV/EHUKen konpromisoak**

Honako hauek dira UPV/EHUK hitzarmen honetan hartuko dituen konpromisoak:

- UPV/EHUKo organo eskumendunak katedra sortzea onartzea.
- Lokal bat jartzea katedraren eskura Bizkaiko Campusean, egoitza izan dezan.
- Prestakuntza, ikerketa, zabalkunde eta sentsibilizazio jarduerak bultzatu eta egitea katedraren esparruan, adostuko diren jarduera planaren eta aurrekontuaren arabera.
- Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak katedrari eginiko ekarpenaren erabilera justifikatzea erakunde horren aurrean, ekarpen horri esker eginiko jardueren txosten bat aurkeztuta erreferentzia urtearen hurrengoan, apirila amaitu aurretik, baita proiektuaren kostuaren justifikazio memoria ekonomiko bat ere, fakturen eta beste egiaztagirien kopiekin.
- Informazioa ematea erakundeek Jarraipen Batzordean dituzten ordezkariak, eta ordezkari horiek gonbidatzea katedrak antolatuko dituen gizarteratze, sentsibilizazio eta zabalkunde ekintzetara.
- Euskarri digitalean helaraztea erakundeei katedrak sortutako argitalpen edo material guztien aleak.

Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedraren kanpo finantzaketa eteten bada, UPV/EHUK katedra bertan behera utzi ahal izango du.

## **LAUGARRENA. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak konpromiso hauek izango ditu hitzarmen honi lotuta:

- Katedraren jardueren jarraipenean eta hitzarmenaren garapenean parte hartzea.
- Katedraren sustapenean eta garapenean parte hartzea, dagokion organoak onartutako zenbatekoarekin.
- Katedrak antolatuko dituen sentsibilizazio eta zabalkunde jardueretan laguntzea.

---

Gainera, bi erakundeak elkarlanean arituko dira eta beharrezko tramiteak egingo dituzte katedra UNESCO Katedratzat hartua izan dadin.

## BOSGARRENA. **Egoitza**

UPV/EHUn Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedraren egoitza Bizkaiko Campusean egongo da, eta gela eta areto egokiak utziko zaizkio, behar bezala funtziona dezan.

Gainera, katedrak bere atal birtuala izango du UPV/EHUK horretarako prestatuko duen webgunean.

## SEIGARRENA. **Katedraren arduraduna**

Katedraren arduradunak bere gain hartuko du katedraren jarduerak sustatzeko eginkizuna, eta jardueren programaren exekuzioa zuzenduko du. Programa horren barnean, mintegiak eta jardunaldiak antolatuko dira, dibulgazio eta sentsibilizazio ekintzak, eta ikerketa proiektuak eta transferentzia jarduerak ere egingo dira katedraren jardun esparruan, adostutako jardueren planaren arabera.

Katedraren arduraduna jardunean dagoen UPV/EHUKo irakasle bat izango da, doktorea, unibertsitatearekin kontratu bidezko lotura egonkorra duena. Bere lanari dagokion arloan ospea izango duen pertsona izango da, eta ibilbide akademiko aipagarria izango du.

UPV/EHUKo errektoreak izendatuko du pertsona hori, katedra garatzeko aurkeztuko duen proiektua aztertu ondoren, kontuan izanik Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren iritzia.

Katedraren arduradunak, ekitaldi bakoitzaren amaieran, egin diren jardueri buruzko txosten bat egingo du, eta txosten hori bidaliko du katedra atxikita dagoen UPV/EHUKo Errektoreordetzara eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusira.

Gainera, aurreko urteko kontuak helaraziko dizkio Jarraipen Batzordeari, onar ditzan, bai eta hurrengo ekitaldian egin beharreko jarduerak eta horien aurrekontua.

## ZAZPIGARRENA. **Jarraipen batzordea**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta UPV/EHUK Jarraipen Batzorde bat sortzea erabaki dute, hitzarmenaren helburuak betetzen direla ziurtatzeko.

UPV/EHUKo eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko bina ordezkari osatuko dute batzordea, eta haren buruzagitza txandakatu egingo da, sei hilabetetik behin, bi aldeen artean. Lehenengo batzordeburua Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat izango da.

Katedraren arduradunak batzordearen bileretan parte hartuko du, ahotsarekin baina botorik gabe. Baldin eta katedrak UNESCO katedra akreditazioa lortzen badu, UNESCOko ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du, ahotsarekin baina botorik gabe.

Jarraipen Batzordearen eginkizunak izango dira, besteak beste:

- Katedraren urteko jardueren programa onartzea, arduradunak proposatuta.
- Katedraren urteko aurrekontua onartzea, jardueren programarekin bat etorriko dena.
- Urteko aurrekontuaren exekuzioa onartzea.
- Katedraren jardueren eta batzordeak hartutako erabakien jarraipena egitea.
- Hitzarmen hau betetzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, kontuan izanik aldean interesak.

Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez. Batzordeburuak egingo ditu bilerarako deiak, eta urteko lehen hiruhilekoan gutxienez bilera bat egingo da, aurreko ekitaldiko kontu ematea eta hurrengo ekitaldiko jarduerak eta aurrekontua onartzeko. Nolanahi ere, aldeetako batek era justifikatuan eskatzen duen aldiro egingo dira bilerak.



Jarraipen Batzordearen ezaugarriak direla-eta, ezinbestekoa izango da hitzarmen hau sinatu duten bi erakundeen ordezkariak bilkuran egotea aurrekontua onartzeko, haren eraginkortasuna bermatzeari begira, erakundeetako batek deialdiarekin batera bidali zaion proposamena onartu eta onespen hori bilkuraren aurretik idatziz adierazten duenean izan ezik.

## ZORTZIGARRENA. **Aholkularitza batzordea**

Katedraren Jarraipen Batzordeak beste batzorde bat eratu ahal izango du, aholkularitza lanak egiteko. Aholkularitza batzorde horretan, katedraren sustapenean parte hartu nahi duten erakundeek eta partikularrek parte hartu ahal izango dute. Katedraren batzordeko kideetako batek proposatu beharko ditu kide horiek, eta ezinbestekoa izango da aho batezko erabakia haien izendapenerako.

Aholkularitza batzordearen eginkizunak izango dira, besteak beste, katedra sustatzen lagunduko duten jarduerak proposatzea katedraren batzordeari eta haren arduradunari, baita Jarraipen Batzordeak esleitzen dizkionak ere.

## BEDERATZIGARRENA.

### **Aldeen ekarpenak**

Katedra finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekarpen ekonomikoak eta UPV/EHUreren ekarpen ez-ekonomikoak erabiliko dira oinarritzko baliabide gisa. Gainera, aurreikusitako jardueren esparruan, kanpo finantzazio iturrietatik lortu ahal izango dira ere diru laguntzak.

### **Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekarpenak**

Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak 37.500 € bideratuko ditu gehienez hitzarmen honetako jarduerak egiteko, 01 4621 31 23899 005 aurrekontu sailetik hartuak.

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren ekarpen ekonomikoa bateragarria izango da beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo helburu bereko baliabideekin, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik iritsitakoak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak, baldin eta ez bada gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua, albo batera utzi gabe horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.

### **UPV/EHUreren ekarpenak**

UPV/EHUK lokal bat prestatuko du katedrak erabili dezan, etorkizuneko premien arabera handitu ahal izango dena, toki erabilgarririk egonez gero.

Horrez gainera, katedraren funtzionamenduari lagunduko dio unibertsitateko langileen laguntzaz, eta bere gain hartuko ditu jarduerak aurrera eramateko erabiliko diren lokalen, azpiegituren eta unibertsitate zerbitzuen mantentze gastuak.

## HAMARGARRENA. **Ordaintzeko era**

Asmoa izanik beti UPV/EHUK finantzazio aurreratua izatea bere jarduerak egin ahal izateko, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jarri beharreko kopurua (bederatzi klausulan aipatzen dena) hitzarmen hau izenpetu eta jardueren plana onartu ondoren abonatu da.

## HAMAIKAGARRENA. **Justifikazioa**

Hitzarmen honi lotutako diru ekarpenak justifikatu egin beharko dira katedraren Jarraipen Batzordeak ontzat eman ondoren egindako jarduerak. Era berean, alde aurretik justifikatu beharko zaizkio Sailari ekitaldiko gastuak, honako agiri hauek aurkeztuta:

---

1.- Hitzarmenean jasotako jarduerak egin izana eta lortutako emaitzak justifikatuko dituen txosten akademiko edo jardun memoria, proiektuan eginiko urratsak azalduko dituena.

2.- Eginiko jardueren kostuaren txosten ekonomikoa. Honako hauek edukiko ditu:

- Hitzarmenaren helburuak betetzeko eginiko gastuen justifikazio memoria, eta zerrenda sailkatu bat (excel formatuan), hartzekodun, kopuru, emisio data eta, hala badagokio, ordainketa datarekin, gastu bakoitzaren oinarri dokumentuaren erreferentziarekin. Oinarri dokumentua izango da faktura bat edo merkataritza-lege trafikoan froga balio baliokidea duen edo eraginkortasun administratiboa duen agiri bat.
- Jarduerak finantzatzeko jaso diren beste diru sarrera edo laguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Unibertsitateak jasotzen dituen diru laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diru horren bidez aurre-eramango diren jardueren kostua, berak bakarrik edo estatukoak zein nazioartekoak diren beste erakunde publiko edo pribatu batzuen diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

## HAMABIGARRENA. **Publizitatea eta hedapena**

Katedrak, UPV/EHUko nortasun juridikorik gabeko entitate izanik, unibertsitatearen erakunde irudia erabiliko du unibertsitate jardueraren komunikazio guztietan eta sortutako jakintza zabaltzeko ekimen guztietan, eta UPV/EHUren erakunde irudiaren ikusgarritasuna bermatuko du, haren eskuliburuan azaltzen den moduan. Ekoizpen zientifikoari dagokionez, aitortu eta jasota geldituko da lan horietan aritu diren ikerlari guztien partaidetza, eta legez zer erakundetakoak diren. Katedrak, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek bere erakunde irudiari dagokionez ezarriko dituen irizpideak errespetatuko ditu.

Katedrak egiten dituen ekitaldi eta jarduera guztietan, UPV/EHUren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren logotipoak agertuko dira, antzeko neurri eta adierazgarritasunarekin, katedraren erakunde sustatzaile gisa, beste entitate edo erakunde laguntzaile batzuen logotipoak ere ager litezkeela baztertu gabe.

## HAMAHIRUGARRENA. **Indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen den unetik aurrera egongo da indarrean, 2016ko abenduaren 31 arte.

Hitzarmena luzatu ahal izango da, aldeek hala erabakita, baldin eta aurrekontu baliabiderik badago eta dagozkion baimenak lortzen badira.

## HAMALAUGARRENA. **Izaera eta interpretazioa**

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta berau interpretatu eta garatuko da administrazio zuzenbidearen arabera.

Edonola ere, hitzarmen honetan xedatuta ez dagoen guztirako UPV/EHUK sortu eta nortasun juridikorik ez duten egitura eta erakunde oinarritzko arautegia aplikatuko da.

## HAMABOSGARRENA. **Suntsiaraztea**

Hitzarmen hau suntsiaraziko da aldeetako batek betetzen ez duenean; halakoetan, beste aldea jakinaren gainean jarri beharko da, idatziz, gutxien dela hilabete lehenago.

Hitzarmen honetan jasotako klausulak edo indarreko legedian jasotzen diren izaera bereko beste batzuk ez betetzea hitzarmena baliogabetzeko arrazoia izango da berori izenpetzen duten aldeentzat.

Nolanahi ere, aldeek konpromisoa hartzen dute suntsiarazte jakinarazpenaren aurretik abian diren ekintzak amaitzeko.

Hitzarmena interpretatu, aldatu edo baliogabetzean eta bere ondorioak aztertzean gerta daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 8.3 artikuluan adierazitakoaz bat.

## HAMASEIGARRENA. **Aldaketak**

Hitzarmen honetan edozein aldaketa egiteko, horren berri eman beharko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta UPV/EHUri, ontzat eman dezaten. Ondoren, bi erakundeetako organo eskumendunek onartu beharko dute aldaketa.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, alde biek hitzarmen hau sinatu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ALDETIK

**Jonan Fernández Erdozia**

Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ALDETIK

**Iñaki Goirizelaia Ordorika**

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea



---

# 6. dokumentua

---

**Europako lankidetzaproiektuak**  
bakearen eta elkarbizitzaren alorrean

---

---

# Lan-eremua: **biktimak**

---

## Bakearen eta elkarbizitzaren alde **lan egiten duten biktimen esperientziak** trukatzeko proiektua

### 1. Sarrera.

Terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak urte askoan pairatu ondoren, Irlanda Iparraldeko eta Euskadiko gizartea garai berri batean gaude. Gure gizarteak aurrera egiten ari dira elkarbizitzaren normalizaziorantz. Aldaketa honen aurrean, bada, komenigarria da gogoeta egitea biktimen errekonozimendurako eta erreparaziorako politika publikoetan duen eraginari buruz. Komenigarria da egoera berri honetan kokatzea eta horrek dakarren eraldaketari buruz hausnartzea.

Beste herrialde eta gizarte batzuetako esperientziak erakusten du indarkeriaren ondorengo egoeretan biktima eta gizartea urrunduta egin daitezkeela. Indarkeriak sortzen duen hondamendi nagusia hildako biktimena da. Hilketak ez dauka erreparaziorik. Min hori kontsolaezina da, eta hori pairatzen duenak ulertezintzat jotzen du bizi den gizarteak normalizaziorantz egitea, bere bizitzaren normaltasuna hautsi zuen bizi-anputazioa errepara dezakeen erantzunik topatu gabe. Horixe da eraso biolentoen ondorioz hildako biktimen familia guztiek aurre eman behar dioten bakardadearen tentsioa, bai hemen bai munduko beste edozein tokitan.

Halere, aurrera begiratzea bizilege unibertuala da, baita biziraupenerako legea ere gizakien kasuan. Hori da gizakiaren modu bakarra iraganeko oinaze bakoitzean harrapatuta ez gelditzeko. Horrela, gertaera pertsonal, familiar, sozial edo politikoki traumatiko baten ondoren, gizarteek bitartekoak jarri ohi dituzte aurrera egiteko, pairatutako traumari aurre egiteko, herritarrak baketzeko, gertatutakoa berriz ez gertatzeko.

Iraganeko minaren eta etorkizuneko itxaropenaren arteko tentsio horretan, beste leku batzuetan, biktima eta gizartea urruntzeko arriskua egon da. Funtsezkoa da gertaera horren jakitun izatea arduraz jarduteko eta, ahal den heinean, arrisku hori saihesteko. Arduratsuena biktimaren eta gizartearen arteko konbergentzia sustatzea eta indartzea da.

Bai Ipar Irlandan, bai Euskadin, norabide horretako ekimen oso positiboak gauzatu dira. Esperientzia horiei esker, gertatukoaren memoria eraikitzen parte har dezakete biktimek, baita bakea zein elkarbizitza eraikitzen ere.

Hemen aurkeztuko dugu proiektu honen helburua da Ipar Irlandako biktimen eta Euskadiko biktimen arteko esperientziak partekatzea, elkarrengandik ikas dezaten. Era berean, ahalegina egingo da akordio-puntuak identifikatzeko eta bakearen zein elkarbizitzaren alde bi herrialdeetako biktimek sinatutako manifestu bat adosteko.

## 2. Proiektuaren deskribapena.

El proyecto consiste en su primera fase en dos encuentros de dos delegaciones de 10 víctimas de cada país que participan en estas experiencias, uno en Euskadi y otro en Irlanda del Norte. En cada uno de los encuentros los anfitriones expondrán su experiencia y se les hará partícipes de alguna de estas experiencias a las víctimas invitadas.

### 2.1. Euskadiko topaketa

Euskadiko topaketaren helburua hau izango da: Euskadiko Eraikiz eta Adi-Adian taldeko parte-hartzaileek eta Irlandako Biktimen Foroko kideek elkar ezagutzeko eta elkarrengandik ikastea (herrialde bakoitzeko 10 biktima).

Euskadirako bisita ekainean izango da, eta Adi-Adian programaren bidez ikasgeletan izandako esperientzia ezagutaraziko zaie, baita orain arte egindako lana eta horren balorazioa ere. Halaber, hartzaileekin, eskolekin eta ikasleekin egoteko aukera izango dute.

Berebat, Eraikiz esperientziaren berri emango zaie, baita biktimen arteko topaketa plural hauetan biktima parte-hartzaileek atera dituzten ondorioen berri ere; orobat, eta gizarteari beren iritziak jakinarazteko egin dituzten urratsei buruz ere arituko dira.

Bisita lau eguneko izango da (3 gau), eta programazio hau izango du:

#### 1. eguna:

- Harrera eta afaria Eraikiz eta Adi-Adian programako biktima batzuekin eta erakundeetako arduradunekin.

#### 2. eguna:

- Goiz osoko topaketa biktimen artean, haien esperientziak azal ditzaten.
- Bisita Adi-Adian programan parte hartu duten eskola batera edo batzuetara. (Komunikabideekin izan daiteke)

#### 3. eguna:

- Biktimen arteko topaketa manifestu partekatu bat sinatzeko; ondoren, prentsaurrekoa.
- Arratsalde/gaua: Elkarrekin egindako jendaurreko konferentzia.

#### 4. eguna:

- Itzulerako bidaiak.

### 2.2. Ipar Irlandako topaketa

Ipar Irlandako bisita irailean izango da, eta, bertan, gehienbat, Biktimen Foroaren esperientziatik ikasi nahiko genuke: antolamendua, politika publikoetan duen eragina, pertzepzio soziala eta foro honen politika. Proiektuaren zati hori antolatzea Ipar Irlandari dagokio.

---

# Lan-eremua: **hezkuntza**

---

## Bakearen eta elkarbizitzaren alde lan egiten duten irakasleen esperientziak trukatzeko proiektua

### 1. Sarrera.

Indarkeria, terrorismoa eta giza eskubideen urraketa hamarkada askoan pairatu ondoren, Euskadiko eta Ipar Irlandako gizarteok itxaropenarekin eta erabaki eraldatzailearekin begiratzen diogu garai berri honi. Agente sozial guztiok ardura dugu elkarbizitzaren normalizaziorantz batera aurrera egiteko eta giza eskubideetatik eratorritako printzipio etikoetan oinarritutako harremanen esparrua berreraikitzeke.

Testuinguru berri orokor honetan, funtsezkoa da bi gizarteetako hezkuntza-sistemek gogoeta egitea: Zein ekarpen egin diezaioke elkarbizitza normalizatu eta baketsu bat eraikitzeke prozesu honi hezkuntza-zentroek, ikasgelek, hezitzailea izateke moduek...?

Hezkuntza-zentroak beren ingurunearekin uztartuta ikasten duten komunitateak dira; hala, iragazkorak dira beren auzo, udalerrri, kontinente eta planetako jazoeren aurrean. Eskolaren inguruan eta barnean gertatzen dena hezkuntza-prozesuko lehentasunezko materia da. Horren helburua da elkarrekin ikastea, pertsona eta gizarte modura hobetzeko.

ETAren indarkeriaren amaieraren ondoren, euskal gizartean iraganari buruzko memoria kritikoa egiteke garaia ireki da, baita indarkeriaren eta suminaren bizipen traumatikoa era kolektiboan gainditzen ikasteko ere. Eta, eskola gizarte horretako zati bat denez (bertako aurrerapen- zein atzerakada-prozesuetan parte hartzen duen bertan txertatzen den heinean), bere gain hartzen du zeregin hezitzailea garai berri honetara egokitzeko egitekoa. Hala, eskolako kide guztiei, bereziki ikasleei, ikuspegi kritiko eta konprometitu batetik gogoeta egiteke aukera ematen die giza eskubideen urraketek buruz eta gure gizartean bizi izan ditugun indarkeria-egoerei buruz, biktimen sufrimenduaren erabateko injustiziarik buruz eta gizarte baketsu bat eraikitzeke bideei buruz.

Gogoeta-prozesu hauek egin ahal izateke, galera, min eta doluzko esperientzia jakin bat ikasleei kontatzeko prest dauden indarkeria terroristaren biktimen lekukotzak izateke aukera eskaintzen zaie hezkuntza-zentrokei. Sufrimendu hau bizi izan dutenen eta gorrotoaren aurrean elkarbizitzarako diskurtso eraikitzaile bat dutenen lekukotza aurrez aurre ezagutu edo entzun daiteke, eta horrek hezkuntza-balio oso garrantzitsua du. Horrela, ikasleek enpatia, elkarbizitza, giza duintasun, giza eskubideetarako eta injustizien aurrean kritikoa izateke hezkuntzan sakontzen dute.

Hezkuntzaren arloan balio absolutu hauek ere lantzea berme bat da —ikasleen bizitzako testuinguru guztietan aplikatu daitezkeen heinean—, batetik, gertatutako hori —hots, iraganen bizitako min hori— ez erreplikatzeko, eta, bestetik, ziur egon gaitzkeelako ikasleek ohikoenak dituzten erlazio-alorretan (familia, hezkuntza-zentroa, lagun-taldeak, herria...) elkarbizitza positibo bat lortzeko irizpideak izango dituztela.

Proiektu honek amaierako helburu hau erraztu nahi du: Ipar Irlandako eta Euskadiko irakasleek bi herrialdeetako hezkuntza-sistemetak ikasgeletan Bakea eta giza eskubideak lantzeko moduei buruzko esperientzia eta estrategia zehatzak trukatzeko.



## 2. Proiektuaren deskribapena

Proiektuaren lehenengo fasean bi topaketa egingo dira, bat Euskadin eta bestea Ipar Irlandan. Topaketa horietan herrialde bakoitzeko 6 irakasleko bi ordezkariak parte hartuko dute, betiere hezkuntza-zentroetan bakearen eta giza eskubideen alorreko lan-esperientzietan (Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzaren Idazkaritzak eta Hezkuntza Sailak sustatuak) inplikaturik dauden eta horietan parte hartzen duten irakasleek osatuta.

Topaketetako bakoitzean gonbidatzaileek bere esperientziak azalduko dituzte, eta lan horretan diharduten zentroetako esperientziak jakinaraziko dizkiete gonbidatutako ordezkarietako kideei, zuzeneko kontakizunarekin.

### 2.1. Euskadiko topaketa.

Lehen topaketa honen helburuak hauek dira:

1. Bi ordezkarietako kideek elkar ezagutzea.
2. Zentroetan, Bakearen eta Giza Eskubideen alorrean (Adi-adian modulua), gure erkidegoan egiten diren lan-esperientziak ezagutzea.
3. Bakerako eta Elkarbizitzarako hezkuntzari ekarpena egiten dion irakaslearen profil profesionalari buruz gogoeta egitea elkarrekin.

Topaketa 2015eko ekainean izango da; bertan, biktimen taldearekin bat egin eta haiekin programaren jardueraren bat partekatuko da. Lau egun iraungo du (3 gau).

### Programa:

#### 1. eguna:

- Bi ordezkarietako harrera eta afaria erakundeetako arduradunekin.

#### 2. eguna:

- Goiz osoko topaketa: Adi-adian modulua.
  - Moduluaren aurkezpena eta 2014ko ondorioak
  - Ikasgeletan grabatutako lekukotza bat eskainiko da, baita ikasleen balorazioa ere.
  - Ekimenean parte hartzen duten zentroen eta irakasleen esperientziak eta balorazioak
- Bisita Adi-adian programan parte hartu duten eskola batera edo batzuetara. (Komunikabideekin izan daiteke)

#### 3. eguna:

- Giza eskubideetarako eta bakerako hezkuntza-eskolako curriculumean sartzeari buruzko prestakuntza: «Giza eskubideak, eskola-alorrean elkarbizitza positiboa eraikitzearen erreferentzia-esparrua».
- Bakerako eta Elkarbizitzarako hezkuntzari ekarpena egiten dion irakaslearen profil profesionalari buruzko prestakuntza eta gaiari buruzko gogoeta egitea elkarrekin.
- Arratsalde/gaua: Ipar Irlandako eta Euskadiko biktimen Konferentzian entzule gisa parte hartzea.

#### 4. eguna:

- Itzulerako bidaiak.

### 2.2. Ipar Irlandako topaketa.

Ipar Irlandako bisita 2015eko urri-azaro artean egingo da. Proiektuaren zati hori antolatzea Ipar Irlandako ordezkarietarako dagokio.

---

# Lan-eremua: **gazteak**

---

## Bakearen eta elkarbizitzaren alde lan egiten duten gazteen esperientziak trukatzeko proiektua

### 1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Bakearen eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren eta Peace Program Ipar Irlandako talde kudeatzailearen arteko lanaren ondorioz, iazko urrian topaketa bat antolatu zen. Topaketa hartan bi herrialdeetako bake-prozesuan lan egiten duten hainbat agentek parte hartu zuten. Zehazki, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) erkidegoko exekutiboko gazteen ordezkariarekin batera, gogoetarako eta lanerako bi jardunaldi partekatu zituen Ipar Irlandako hiru erakundetako profesionalekin: SEUPB, Youth Action eta Youth Council. Jardunaldi hauetan bi gizarteek bizi duten errealitatearekin erlazioatutako ideiak eta esperientziak trukatu zituzten, bi gizarteak trantsizio-une batean baitaude indarkeria politikoak markatuta iraganaren eta bakearen kulturen gauzatuko den etorkizunaren artean. Batez ere, prozesu honetan gazteak sartzeari ezinbestekoa zela azpimarratu zen, baita iraganean bizitakoari zilegitasuna kenduko dioten proiektuak garatzea ere, etorkizunean berriz gerta ez daitezela.

Jardunaldi emankor hauetan, Peace Programa esparruaren baitan, baterako proiektu bat etorkizunean garatzeko lehen pausoak adostu eta zehaztu ziren. Hauxe da proiektu hori: bi herrialdeetako 18 eta 25 urte bitarteko gazteen arteko trukea egitea. Hauxe da EGKren proposamen zehatza.

### 2. Proiektuaren deskribapena

Proiektuan bi faseko topaketa bat egingo da herrialde bakoitzeko (Ipar Irlanda eta Euskadi) 8 gazte osatutako ordezkariaren artean eta gazteriaren alorreko 4 agenteren artean (teknikariak, hezitzaileak...), baldin eta bakea zein elkarbizitza lor dadin parte hartzeko interesa edo kezka badute. Euskadiko 8 gazte hautatzea proposatu da, eta bi bide hartu dira horretarako: Batetik, EGK eratzen ari den Bakearen eta Elkarbizitzaren lantaldea osatuko duten gazteei lehentasuna emango zaie; hala, lantalde horrek gazte-ekimenak diseinatu eta garatuko ditu gai hauekin erlazioatuta dauden nazioarteko egunetan (informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 2015eko lan-plana). Bestetik, lehiaketa bat sustatuko da 2014ko urrian martxan jarritako Bakeahots komunitate birtualera edukiak igotzen dituzten gazteen artean (informazio gehiago nahi izanez gero, 2014ko jardueren memoria kontsultatu).

Bi faseko (bana herrialde bakoitzean) topaketa honen helburuak 2014ko urrian zehaztu ziren SEUPBrekin, eta hauek dira:

- Gazteak bakegintza-prozesuaren eta horrek dakarren aldaketa sozialaren partaide bihurtzea.
- Bi herrialdeetako gazte-ordezkaritzaren artean trukearen ondoren mantenduko diren lankidetzak sortzea. Helburua da lanean jarraitzea eta esperientzia hau ez izatea zerbait puntuala eta ibilbiderik gabea.
- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu desberdinak ezagutzeko, eta horiei buruzko gogoeta sustatzea.

## 2.1. Euskadiko topaketa

Euskadirako bisita urrian egitea proposatu da. Bisita honen helburua hau da: bi herrialdeetako ordezkariak giza eskubideak urratu dituen indarkeria politikoak baldintzatutako iraganak lotzen dituen esperientziei buruz gogoeta egin eta horiek trukatzear gain, gazteek alor honetan azken urteetan egin duten lanari buruz gogoeta egin eta trukatzea, lan horren inpaktua eta eraginkortasuna baloratuz eta alternatiba berriak proposatuz. Horretarako, batetik, EGK-k alor honetan jada garatuta dituen eta emaitza ona izan duten jarduerak egingo dira, eta, bestetik, lantaldeak osatuko dira gogoeta egiteko eta ekimen berriak proposatzeko.

Bisita lau egunekoa izango da (3 gau) eta programazio hau izango du:

### 1. eguna:

- Harrera eta afaria Euskadiko ordezkariak osatzen duten gazteekin eta agenteekin eta erakundee-tako arduradunekin.

### 2. eguna:

- Goizean: Bake libilbidea. Bakearen aldeko ibilbide bat, egokien jotzen den euskal hiriburuan. Ekimen hori euskal errealitatean murgiltzeko eta gogoeta egiteko izango da. Hau da, hiria bisitatu eta bertan arnasten den elkarbizitza sentitzen den bitartean, Euskadin gertatu den, gertatzen den eta gertatuko denari buruzko elkarriketan jardungo da.
- Arratsaldean: lantaldeak bi tartetan. Lehenengo tartean, Euskadiko eta Ipar Irlandako errealitatearen artean topatzen ditugun desberdintasun eta antzekotasunei buruz gogoeta egingo da. Eta bigarren tartean, bi herrialdeetan bakea eta elkarbizitza lantzeko garatu diren ekimen batzuk trukatu dira, eta aztertuko da zeintzuk funtzionatu duten hobeto eta zergatik.

### 3. eguna:

- Goizean: paz&arte tailerra. Ekimen hau Giza Eskubideen defentsan eta Bakearen Kultura eraikitzen arteak duen garrantziari buruz gogoeta egiteko da. Gainera, goizean sormena lantzeak arratsaldeko jarduerari baliabide gehiagorekin eta ikuspegi desberdinekin aurre egiteko balioko du.
- Arratsaldean: lantaldeak bi tartetan. Lehenengo tartean, bakegintzaren prozesuan eta horrek daka-rren aldaketa sozialean gazteak inplikatzeko duen garrantziari buruzko gogoeta egingo da. Eta biga-rren tartean, proposamen zehatzak pentsatuko dira gai hauek lantzen jarraitzeko bi herrialdeetako gazteekin eta haiek elkarrekin.

### 4. eguna:

- Itzulerako bidaiak.

## 2.2. Ipar Irlandako topaketa

Ipar Irlandako bisita irailean izango da, edo haiei egokien iruditzen zaienean. Han gazteen partaidetza izan du-ten hainbat esperientzia ezagutzea espero dugu: antolamendua, duen eragina politika publikoetan, pertzepzio soziala... Proiektuaren zati hori antolatzea Ipar Irlandari dagokio.



---

# 7. dokumentua

---

**Giza eskubideen defendatzaileak**  
aldi batez Euskal Autonomia  
Erkidegoan babesteko programa

---



---

# **Giza eskubideen defendatzaileak** aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan babesteko programa

---

**2016ko urtarrila**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

---

# Sarrera

---

Munduko hainbat eskualde eta herrialdetan, giza eskubideen defendatzaileek beren bizitza eta osotasun fisiko eta psikologikoa, bai eta haien senideena ere, arriskuan jartzen dituzten mehatxu eta jazarpenak pairatzen dituzte.

Kolektibo horrek beren lurralde edo jardun-eremutik lekualdatzera behartua izateko arrisku berezia du. Munduan, joera kezagarri eta orokortua eratzten dute, oraindik ere, erailketa, eraso eta mehatxuek; sarri, justizia-sistema erabiltzen da haien lana mugatzeko, haiek isilarazteko eta haien sinesgarritasuna ahultzeko, kriminalizazioa eta zigorgabetasuna nagusitzen direlarik; gizartearen protestak indarkeria neurrigabe erabiliz zapaltzen dira; eta estigmatizazio-kanpainak abiarazten dira, beste bortizkeria-ekintzen artean.

Kriminalizazio-, jazarpen- eta behartutako lekualdatze-egoera horiek gero eta ezagunagoak dira, giza eskubideen defendatzaileek beren jatorriko herrialde barruan nahiz kanpoan egindako ikusgaitze-lanari esker, bai eta nazioarteko komunitatearen laguntza eta babesari esker ere. Nolanahi ere, defendatzaile ugariaren babesgabetasun-egoerak larriki eragozten du giza eskubideen alde egiten duten lan zilegi eta eraldatzailea.

Nazioartean<sup>1</sup> biziki gomendatzen dute giza eskubideen defendatzaileak babestea, eta lege-esparrua du bai Europan<sup>2</sup> bai Espainian<sup>3</sup>.

Esparru honetan, nazioarteko babes eta elkartasuneko tresnak dira Aldi batez Babesteko Programak: alde batetik, pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa babesten laguntzen dute; bestaldetik, baita jatorriko lurraldean giza eskubideen aldeko prozesuei eusten ere, harrera-herrialdeetako antolakunde, mugimendu eta erakundeekin lotura eratuz.

Era berean, funtsezkoa da lanean jarraitzeko, hartara, aintzat har dadin zein ekarpen baliotsua egiten duten pertsona horiek askatasunaren, berdintasunaren eta justizia sozialaren printzipioak aurreratzeko eta indarkeriari bide ematen dioten egiturazko kausak ikusgai egin eta errotik kentzeko.

---

<sup>1</sup> 60/161 Ebazpena (2. eranskina), Nazio Batuen Batzar Nagusiarena: *Gizabanakoek, taldeek eta erakundeek mundu osoan onartutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bultzatu eta babesteko dituzten eskubideari eta betebeharrari buruzko adierazpena*

<sup>2</sup> Europar Batasunaren gidalerroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak.

<sup>3</sup> 257/2007 Errege Dekretua, «... laguntzen xede diren arreta humanitarioko ekintzak, giza eskubideen defendatzaileei bizi diren herrialdeetatik ateratzen laguntzera zuzendurikoak...» (1.2. art.).



## Aurrekariak

---

2011n, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailak, Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programa martxan jarri zuen. Gaur egun, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza da programaren burua.

Eusko Jaurlaritzak, hala, nazioarteko esparrura bideratzen du bere jarduera, giza eskubideekiko eta nazioarteko elkartasunarekiko konpromisotik.

CEAR-Euskadik garatzen eta kudeatzen du Programa. Erakundeak ibilbide luzea du giza eskubideak babesten eta sustatzen; orobat, nazioarteko babesaren behar duten edota bazterketa-arriskuan dauden errefuxiatu, lekualdatu, aberrigabe eta migratzaileen garapen integrala bultzatzen du.

Aintzat harturik zer egoera bizi duten giza eskubideen defendatzaileek munduko hainbat lurraldetan eta gero eta zailago dutela nazioarteko babeseko mekanismoei heltzeko aukera, CEAR-Euskadik haiei babes emateko estrategia espezifikoak prestatzea proposatu zuen. Horrenbestez, eta babes-eskubidearen defentsaren osagarri, arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko mekanismoak ezartzeko lanean hasi zen erakundea.

Esparru horretan, 2009an, Kolonbiarekin elkartasunean lan egiten duten zenbait euskal erakundek<sup>4</sup>Kolonbiarekiko Elkartasun Iniziatiba (Kolektiba Colombia) abiarazi zuten. Estatuan –batez ere Asturiasen eta Katalunian– jada abiarazitako babes-esperientziak aztertuta, Euskadin euskal lankidetzaren eta elkartasunaren berezitasunei egokitutako babes-programa bat ezartzeko erabakia hartu zuten.

Bi programen funtzionamendua ezagutzeko, jatorri-lurraldean harremanak eratzeko, eta Euskadin ezarriko den ereduari buruzko ikaskuntzak eta hobekuntzak ondorioztatzeko, 2010ean Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Kataluniako Programaren nazioarteko laguntza-misioan parte hartu zuen CEAR-Euskadik; 2011n, aldiz, Kolonbian giza eskubideen egoera egiaztatzeko VII. asturiar-ordezkaritzan izan zen, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin batera.

## Euskadiko Babes Programa

---

### Helburua

Euskal programaren helburua da jaioterrian gauzatzen duten jarduera dela-eta beren bizitza edo osotasun fisikoa arriskuan duten giza eskubideen defendatzaileak babestea, Euskadin sei hilabeterako hartuta.

Babes gisa zera ulertzen da: giza eskubideen defendatzaileek, erakundeek eta instituzioek bizitzeko eta lan egiteko eremu seguruak sortzeko eta hedatzeko gauzatzen dituzten ekintzen multzoa. Ildo horretan, babesak osotasun fisiko, emozional eta kolektiboaren aurkako mehatxuei aurre egiteko hainbat estrategia eta ekintza hartzen ditu barruan.

### Giza eskubideen defendatzaileak: lehenetsitako kolektiboak

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoari jarraikiz, giza eskubideen defendatzaileak dira indibidualki nahiz besteekin batera giza eskubideak sustatzeko edo babesteko ahaleginak egiten dituzten pertsonak. Termino zabala da, eta barne hartzen ditu giza eskubideen urraketa oro desagerrarazten laguntzen eta eskubideon benetako baliatzea sustatzen dituzten horiek ere, direla banakoak, direla kolektiboak.

Esparru horretan, Euskadiko Babes Programak hauek jotzen ditu giza eskubideen defendatzailetzat: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-eskubideak defendatzen diharduten antolakunde edo mugimendu sozialei lotutako pertsonak.

---

<sup>4</sup> Paz con Dignidad, Mugarik Gabe, Mundubat, Posada de los Abrazos, Colectivo Bachué eta CEAR-Euskadi.

---

Nazio Batuen Errelatore Bereziak giza eskubideen defendatzaileen egoeraren berri emateko izendatutako ordezkariak zehaztutako kolektiboetara emango zaie lehentasuna:

- Antolakunde feministen kide diren emakumeak eta LGTTBI<sup>5</sup> pertsonen eskubideen defentsan diharduten pertsonak.

Giza eskubideen egoerari buruzko Nazio Batuen Errelatore Bereziaren 2010eko txostenak zera adierazten du: «emakumezko defendatzaileek indarkeria mota jakin batzuk eta bestelako urraketa, aurreiritzi eta bazterketa- eta arbuio-modu pairatzeko arrisku handiagoa dute, gizonezko defendatzaileen aldean». Pairatzen dituzten indarkerien artean, ikusezintasuna bereizgarri komuna dute. Orobat, hainbat herrialde eta eskualdetan areagotzen ari dira, modu adierazgarrian, emakumeen aurkako erasoak<sup>6</sup>.

- Eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-eskubideen defentsan diharduten pertsonak; batez ere, lur-eskubidea aldarrikatzen dutenak, populazio indigenak eta afrikarren ondorengoak.

Mundu mailan, bereziki kezagarria da lur-eskubideak defendatzen dituzten pertsonen egoera. Azken urteotan Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Behatokiak jazarpen-kasuen hazkuntza dokumentatu du.

- Gutxitutako kolektiboen eskubideen alde diharduten pertsonak.

## Parte hartuko duten eragileak

CEAR-Euskadik kudeatzen du Euskadiko Babes Programa, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza duela buru. Honako hauek hartzen dute parte, Hautaketa Batzordearen kide diren heinean: Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Kanpoko Ekintza Zuzendaritzak, Hegoa Institutuak (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinatzaileak eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarten Foroak. Horrez gain, urtero, hautagaitzak aurkezten dituzten euskal antolakundeek Babes Sarea eratzen dute. Azkenik, ANSUR kolektiboak ere hartzen du parte, babesari eta segurtasunari buruzko kontuen inguruan aholkatzen.

## Prozedura

### Hautagaitzak aurkeztea

Programak hiru pertsona hartzen ditu Euskadin, urtero, sei hilabetez. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deialdi ofiziala argitaratzen duen unetik bi hilabeteko epea zabaltzen da hautagaitzak aurkezteko.

Beste herrialde eta eskualde batzuekin elkartasunean lan egiten duten Euskadiko antolakunde nahiz mugimendu sozialen bitartez aurkezten dira hautagaitzak; izan ere, haiek laguntzen dituzte hautagaiak parte hartzen duten giza eskubideen defentsarako prozesuak, eta, beraz, testuingurua ezagutzen eta bertan diharduten instituzio, erakunde eta elkartasun-sareen irispidean daude.

CEAR-Euskadik hautagaitzak jaso, eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari bidaltzen dizkio.

### Hautagaitzen aurkezpena

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deitzen du Hautaketa Batzordea, eta, batzordekideek egoki deritzen txostenak eskatu ahal izango dizkiete hautagaitzak proposatzen dituzten euskal erakundeak, arrisku-egoerak eta horien zergatiak egiaztatzeko, datuen konfidentziasuna eta hautagaiaren segurtasuna bermatuta.

---

<sup>5</sup> Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual eta Intersexualak.

<sup>6</sup> Kolonbian, 2014an, Somos Defensores programak 626 eraso indibidual erregistratu zituen (% 65 gizonezkoak eta % 35 emakumezkoak); hau da, % 71 hazi da aurreko urteari dagokionez, eta % 160 inguru emakumeen erasoen kasuan. Guatemalan, 2014an, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitateak (UDEFEUGUA) 813 eraso zenbatu zituen: emakumeen kasuan % 51,84 hazi dira.

Batzordeak adostasunez erabakiko du zer hiru pertsona hartu babespean; horretarako, formularioa<sup>7</sup>, bidalitako dokumentazioa eta arrisku-irizpideak (mehatxu-egoerak prebenitzea eta galaraztea), bai eta genero-irizpideak ere, hartuko ditu oinarri gisa. Irizpideon bitartez zera nahi da bermatu: Programak benetan lagunduko duela babespean hartutako pertsonen arrisku-egoerak murrizten.

Hautagaitza bat aukeratzen denean, hura proposatu duen euskal erakundea Babes Sarearen parte izatera igaroko da. Erakunde horrek eratu du, orobat, Programaren koordinazioaren (CEAR-Euskadi) eta jatorrian dagoen erakundearen arteko komunikazio kanala.

## Jatorri herrialdetik irteera

Jatorriko herrialdean dauden erakundeak, Babes Sareak eta Programaren koordinatzaileek (CEAR-Euskadi) elkarrekin antolatzen dute hartuko diren pertsonen irteera (bidaia prestatzea, dokumentazioa kudeatzea, itxaropenak zehaztea, hasierako testuingurua aztertzea...) eta Euskadin egingo zaien harrera.

## Harrera

Programa ikuspuntu psikosozial batetik garatzen da: ikuspegi horren bitartez giltzatzen dira, hain zuzen ere, babestutako pertsonen erakundeen eta mugimenduen eragin politikoa, eta horien antolatze- eta komunitate-laguntza eta sendotzea.

Programaren koordinatzaileak izango dira harreraren buruan, eta Babes Sareak ere parte hartuko du. Honako ekintza hauek planteatzen dira:

**Laguntza psikosoziala:** Programa babesaren ikuspegi integraletik garatzen da, eta hainbat kontu sartzan dira hor barruan: alderdi pertsonalak, antolakuntzari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren eraginez arreta berezia behar duten pertsonen laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean hartutako pertsonen zaintza, herrialdetik aldi batez ateratzeko esperientzia lantzeari dagokionez.

**Agenda politikoa:** Hau da Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egindako lanaren helburua: pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko nazioarteko sareak zabaltea eta indartzea. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Lan horrek, batetik, sentikortzeko aukera emango du; bestetik, Euskadiko –eta kasuan-kasuan, Espainiako eta Europako– herritarren eta erakundeen aurrean agerian uzteko eta salatzekeo zer mehatxu-egoera pairatzen dituzten giza eskubideen defentsan diharduten erakundeek, eta zer aldarrikapen dituzten ildo horretan.

Horretarako bi agenda garatuko dira: agenda instituzional bat, Programaren koordinazioa dela buru, babespean hartutako hiru pertsonentzat; eta berezko agenda bat, Babes Sarea buruan, babespean hartutako pertsona bakoitzarentzat.

**Prestakuntza-agenda:** Haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaz eta sustapenez. Programaren babespeko pertsonen lan-ibilbide aintzatetsia dutenez, akademia munduaren eta gizartearen hainbat esparrutan ere parte hartuko dute, hizlari gisa.

## Itzulera

Programa barruko une garrantzitsuetakoa da, bereziki, babestutako pertsonen segurtasunari dagokionez. Beharrezkoa da arrisku-diagnostiko bat egitea, Programan egindako jarraipen etengabea harturik oinarri, eta ekintza-plan batzuk diseinatzea, jatorri-lurraldeetara itzultzeari begira.

Ezarriko diren babes-estrategiak taxutzeko, Testuinguruaren Azterketa eta Arrisku Diagnostikoa erabiltzen dira abiapuntu gisa. Estrategiok ez dute elkar bazterten. Testuinguru jakin bakoitzean horien konbinazio egokia ezarri beharko da, aintzat harturik zer indar eta ahulezia dituzten erakundeek eta zer babes- eta laguntza-sare dituzten defendatzaileek, baita haiek Euskadin egon bitartean sortu edo indartu direnak ere.

---

7 Ikus eranskina

---

## Jarraipena

Giza eskubideen defendatzaileak beren jatorriko herrialdeetara itzuli ostean, Programak haien eta haien erakunde nahiz mugimenduen egoeraren jarraipena egiten du, euskal antolakundeen bitartez; haiek jarraituko dute sorlekuan giza eskubideak aldezteko prozesuak laguntzen eta babesten.

Euskal ordezkari bat bisitan doa Programan hartutako defendatzaileen jatorriko herrialdera, Programan hartutako pertsonen egoera pertsonal eta komunitarioaren jarraipena egiteko asmoz, haren babes sarea sendotzeko eta gobernuaren, erakundearen eta, kasuan-kasuan, legebiltzarraren laguntza ikusgai egiteko.

Bisitan, estua izan ohi da bilera-agenda eta, besteak beste, hauekin biltzen dira: erakunde sozialekin eta giza eskubideen arloko erakundeekin, instituzio publikoekin, nazioarteko erakundeekin eta ordezkari diplomatikoekin. Helburua da babespean hartutako pertsonen eta haien erakunde nahiz mugimenduen segurtasunari lotutako kezka nagusien berri ematea. Eduki aipagarrienak txosten batean sartzen dira: bertan jasotzen dira euskal ordezkariaren azterketa, balorazioak, kezka bereziak eta gomendioak. Txostena jatorriko herrialdeko giza eskubideen erakundeei, instituzio publikoei eta nazioarteko erakundeei helarazten zaie, bai eta, kasuan-kasuan, Euskadikoei eta Espainiako Estatukoei ere.

Euskadiko Babes Programak hainbat herrialdeetako pertsonak hartzen ditu berean; beraz, urtero, arriskuaren eta baliabideen kudeaketarekiko koherentziaren irizpideei erreparatuz diseinatzen dira bisitak.

Jarraipen-ordezkariak orain arte egindako txostenak eskuratzeko, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren webgunera ( <https://www.euskadi.eus/informacion/programa-defensores-y-defensoras-de-derechos-humanos/r48-pazconte/es/>) nahiz CEAR-Euskadiren webgunera jo daiteke (<http://cear-euskadi.org/?p=388>).

## Ikasketak, erronkak eta etengabeko hobekuntza

---

Euskadiko Babes Programa tresna bizia da, eta etengabe berraztertzen eta birmoldatzen da. Izan ere, erantzukizun-ariketa eta erronka etengabekoa da giza eskubideen defendatzaileen babesa. Instituzioen, erakundearen nahiz komunitatearen esparruko ahots ugari taxututako programa bat da gaur egungoa: dela Euskadin, dela beste herrialde eta eskualde batzuetan, babeserako eta elkartasunerako tresna hau taxutuz joan dira.

Programak barruan hartzen du urteko ebaluazio bat ere, etengabe ikasteko eta hobetzeko ardatz gisa. Ebaluazioan, Programan sartutako eragileek parte hartzen dute: giza eskubideen defendatzaileek eta haien jaioterriko erakundeek, Babes Sareak (Euskadiko erakundeek), Hautaketa Batzordeak, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak, ANSUR kolektiboak, euskal ordezkariaren kideek (jarraipenerako ordezkariak) eta Programaren koordinatzaileek (CEAR-Euskadi).

## Beste babes-programa batzuekin txertatzea

Giza eskubideen defendatzaileek aurre egin beharreko mehatxu-egoera ugari erantzuna koordinatzeko helburuz, Programa Espainiako Estatuan garatutako babes-programekin artikulatzen da, modu egonkor eta finkatuan; horrez gain, 2015. urtearen erdialdetik, *Giza eskubideen defendatzaileak aldi baterako birkokatzeko plataforma globalaren* parte da.

## Arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez birkokatzeko plataforma globala (Europar Batasuna)

Plataforma hori Europako Batzordearen ekimen bat da, Europar Batasunak giza eskubideen defendatzaileei buruz emandako zuzentarauak betetzen dituena<sup>8</sup>. Plataformaren kideak hainbat sektoretakoak dira: unibertsitateak, gobernu kanpoko erakundeak –nazio, eskualde nahiz nazioarte mailakoak–, hiriak, udalerriak, gobernuak. Helburua da giza eskubideen defendatzaileen babes-premiei eta haiek aurre egin beharreko arrisku maileri erantzun koordinatua ematea, jardute-esparru desberdinetatik.

---

Informazio gehiago jasotzeko, honako hauekin jar zaitezke harremanetan:

CEAR-Euskadi:

Leire Lasa Fernández, Aldi batez Euskal Autonomia Erkidegoan Babesteko Programaren koordinatzailea

[programa.proteccion@cear-euskadi.org](mailto:programa.proteccion@cear-euskadi.org)

Telefono-zenbakia: (0034) 94 424 8844

Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria:

[derechos-humanos@euskadi.eus](mailto:derechos-humanos@euskadi.eus)

Telefono-zenbakia: (0034) 945 016628

---

<sup>8</sup> Europar Batasunaren gidaleroak Giza Eskubideen Defendatzaileei buruz, 2004ko ekainaren 14a. 2008an berrikusiak. EBko estatu kideek betekizun dute «*beste herrialde batzuetan arriskupean dauden giza eskubideen defendatzaileak laguntzeko eta babesteko neurri azkarrak aurreikustea: adibidez, egoki deritzenean premiazko bisak emanda eta Europar Batasuneko estatuetan aldi baterako harreraren alde egirik*».



---

# 8. dokumentua

---

Euskadiko **erlijio**  
**aniztasunaren kudeaketa**  
**positiboari** buruzko txostena

---





---

# Euskadiko **erlijio** **aniztasunaren kudeaketa** **positiboari** buruzko txostena

---

**Abendua 2015**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA  
Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos



## AURKIBIDEA

---

1. Sarrera.
2. Eskubideak, beharrak eta eskaerak.
3. Proposamenak.
4. Berehalako gomendio espezifikoak.
5. Intereseko dokumentuak eta loturak.

Eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-aretoen legearen aurreproiektua.

---

2015eko martxoaren 20an, Eusko Jaurlaritzak, lehendakariaren bidez, eta EAEn dauden erlijioen ordezkariak egin zuten topaketan, «Kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzaz gizarte anitz, integratu eta integratzailean» gaiari buruzko adierazpen instituzionala egin zuen<sup>1</sup>.

Adierazpen horren esparruan azaldu zuten Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioari eta Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutuari eskatutako enkargua, erlijioen arteko bizikidetzarako politika publikoei buruzko gomendio-txostena egitekoa. Enkarguak aditu-talde baten dinamizazioa barne hartzen zuen txostena egiteko. Gainera, beste jarraibideetako bat izan zen aditu-taldeak lana egiteko euskal gizartean dauden erlijio-sentsibilitate desberdinekin hitz egitea.

Denbora horretan zehar, Adoración Castro Jover, Amelia Barquin López, José L. Villacorta Núñez, Miguel González Martín, Saioa Bilbao Urkidi, Eduardo J. Ruiz Vieytez eta Gorka Urrutia Asuak osatutako taldeak hainbat batzar egin ditu, dokumentu honetako ataletan jasotako gaiak identifikatzeko. Prozesuan zehar, erlijio-gutxiengoen arteko alderaketa ere egin dute.

Lanaren emaitza dokumentu honetan agertzen da, bost ataletan egituratuta. Lehenik eta behin, sarreran, proposamena gidatu duen aniztasunaren kudeaketa-eredua azaltzen da. Bigarren, gizarte- eta erlijio-errealitateak eragiten dituen eskubide, behar eta eskaerak identifikatu eta adierazi dira. Ondoren, aurreko ataletan jasotako gai gehienak kudeatzeko proposamen zehatz batzuk aipatzen dira, banan-banan. Laugarren ataletan premiaz aztertu beharrekotzat jotako sei gai garrantzitsuenak hautatu dira. Azkenik, txosten honetako erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikorako zenbait dokumentu erabilgarri izendatzen ditu.

---

<sup>1</sup> [https://euskadi.eus/r48-notpazco/es/contenidos/noticia/2015\\_03\\_20\\_25297/es\\_25297/25297.html](https://euskadi.eus/r48-notpazco/es/contenidos/noticia/2015_03_20_25297/es_25297/25297.html)

---

# 1. Sarrera:

## Aniztasuna kudeatzeko eredua

---

Ukaezina da euskal gizartean badagoela erlijio-aniztasuna. Erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, migrazio-fluxuen eta erlijio-askatasunaren eskubideaz baliatzearen ondorioz. Izan ere, erlijio-askatasunak barne hartzen du erlijioz aldatzeko eskubidea, aniztasuna kudeatzeko politikak eta aniztasuna kontuan hartuko duten arauak exijitzen ditu, pertsona guzientzako askatasun bera bermatze aldera, betiere, legeak ezarritako muga-barruan.

Erlijio-aniztasuna kudeatzeko zentzuzko proposamenak egiteko, hasierako oinarriak argi eduki behar dira. Bi dira funtsean: batetik, aniztasuna kudeatzeko aukeratuko den eredua zehaztea, eta bestetik, Espainiako Konstituzioan era inplizituan jasotzen den Estatuaren eta erlijioen arteko harreman-eredua zein den adieraztea. Bi parametro hauek bideratuko dituzte txosten honetan egingo diren proposamenak.

## Kultura-artekotasuna, aniztasuna kudeatzeko eredua

Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak agerian jarri duten bezala, Europan kultura-artekotasunaren ereduaren alde egin da, hots, erreferentziako oinarri politikotzat aniztasun kulturala duen ereduaren alde, eta aniztasunaren kudeaketa-eredu asimilazionistak bereizten dituen balio liberaletako batzuk barne hartzen baditu ere, badauzka kultura-artekotasuneko osagaiak ere; besteak beste, desberdintasunaren aintzatespena. Eredu horrek ezaugarri du, batetik, Demokraziak, Zuzenbidezko Estatuak eta Oinarrizko Eskubideek osatutako egitura politikoa eta juridikoa, herritar guztiek onartu beharreko balio komunez osatutako euskarriak; bestetik, desberdintasunaren aintzatespenak integratutako egitura politikoa eta juridikoa. Orobat, desberdintasuna barne hartzen lagundu eta gizarte-kohesioa bultzatzen duen tresna bat da kultura-arteko elkarrizketa.

Kultura-artekotasuna eredu interaktiboa da eta alor politiko-sozialean du bere ekintza-eremua. Bertan, batetik, eragile publikoak dira subjektu aktiboak; bestetik, gizartea. Biek elkarri eragiten diote aniztasunean bizikidetzan ahalbidetzeko, batak bestea aintzat harturik eta onarturik. Ereduak arrakasta izateko, egiturazko aurre-baldintzak zein berdintasunezko eskubideak aintzatesteko aurre-baldintzak egon behar dira; kultura-artekotasuneko elkarrizketa berdinen artean gertatzen bada soilik egongo baitira behar diren baldintzak aniztasunean eta gizarte-kohesioan elkarrekin bakean bizi ahal izateko.

Beraz, bi ikuspegi hartu behar dira kontuan: lehenik, egiaztatu behar da ea betetzen diren eredua ezartzeko behar diren aurre-baldintzak; hau da, ea funtsezko eskubideen erabilera berdintasunaren arabera egiten den. Horrela, berdintasuna eta diskriminazio-eza bihurtzen dira desberdintasunaren aintzatespen-maila kontrolatzeko tresnetako bat, pertsonaren ezaugarri bereizgarriek eragindako diskriminazioa ekidinez. Diskriminazio-ezaz arduratzeaz gain, ordenamendua malgutzeko tresna juridikoetara jo behar da, egoera bereizgarriak zentzuz eta behar bezala jaso ditzen. Arau orokorraren salbuespenak aipa daitezke tresna horien artean, betiere, behar bezala justifikatuta edo zentzuz moldatuta. Teknika hori Espainiako ordenamenduan dago, abenduaren 30eko 62/2003 Legea 2000/78 Zuzentarauarekin bat etortzeko egokitu baitzen. Hala ere, desgaitasun-balizkoak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta beste balizko batzuk ere kontuan hartzea komeniko litzateke; orobat, botere publikoek egindako ekintza positiboak ere aipatu behar litzateke.

Aniztasuna aintzat hartzeak, diskriminazio-eza eta ordenamenduaren malgutasuna babesteaz gain, babes handiagoa ere eskatzen du sarritan. Hala ere, egia da aniztasunaren eskubidea ez dela eduki espezifiko eta berezituarekin aitortzen, ez Erromako Hitzarmenean, ezta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean ere. Era berean, egia da, Europako Kontseiluaren esparruan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bizimodu jakin baten arabera bizitzeko eskubidea aintzatesi duela, Erromako Hitzarmenean agertzen diren beste eskubide batzuen bidez, hala nola jabetza-eskubidearen edo bizitza pribaturako, familia-bizitzarako edo etxebizitza izateko eskubidearen bidez.

Bigarrenik, aniztasuna aintzatesteko beharrezkoa den aurre-baldintzetako bat arauzko oinarria bada ere, ez da nahikoa. Aniztasunari bide emateko baldintzak sortzeko ekintza eta programa politikoak gauzatu

behar dira. Gainera, gizarte-eragileek ere parte hartu behar dute. Azken urte hauetan, eremu politiko-sozial horretan gehitu da ekintza politikoa, hain zuzen. Ekintza politiko hori dokumentuetan zehaztu da, eragile publikoei eta gizarte-eragileei jardunbide egokiak hartzen laguntzeko asmoz, parte hartzen duten sektoreen sareko lana eta gero eta gehiago erabiltzen diren *soft law* tresnak (gidak, ekintza-protokoloak, jardunbide egokiak, etab.) sortuz, oinarritzko eskubideak berdintasunean erabiltzeko beharrezko diren oinarritzko baldintzak sortzen laguntzeko katebegia sortzen baitute.

Dena den, egia da Espainiako Zuzenbidean ez dagoela aniztasunari buruzko eskubide espezifikorik, beste eskubide batekiko eduki berezituarekin; egia da, halaber, Konstituzioan jasotako balioetan oinarritzen dela norbanakoa edo norbera kide den taldea bere ezaugarri bereizgarrien arabera desberdin tratatzeko ideia, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan hain zuzen, askatasuna, berdintasuna eta pluralismoaren balioekin batera. Gainera, Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan ideologia- eta erlijio-askatasunerako oinarritzko eskubidea aintzatesten da; horixe da, hain zuzen, aniztasunaren iturburu eta oinarri nagusienetako bat, eta bertan sartzen dira kultura eta erlijio jakin bati lotutako nortasun pertsonalaren adierazpenak. Gehienetan gatazka kulturalen jatorria erlijio-desberdintasunen interpretazio zehatz batzuk izaten dira. Kultura-artekotasuna gizartea aberasten duen osagaia da, eta baita hezkuntza-sistemaren helburuetako bat ere, eta hala dago jasota Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2. artikuluan. Azkenik, ez da ahaztu behar berdintasun materialaren printzipioak aniztasunaren babesa dakarrela nahitaez, eta diskriminazio-ezaren debekuak berori indartu dezakeela. Ez desberdintzeak eragindako diskriminazioa Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aintzatesi du 2000ko apirilaren 6ko Thilmmenos Greziaren aurka kasuan. Hala ere, Espainiako Konstituzio Auzitegiak hainbatetan ezetsi du ez desberdintzeak eragindako diskriminazioa kontuan hartzeko aukera<sup>2</sup>.

Aniztasuna kudeatzeko Espainiako ereduaren kultura-arteko joera argi eta garbi antzeman daiteke Estatuan, autonomia-erkidegoetan zein tokian bertan azken urteotan burutu diren ekintza politikoko tresnetan.

Estatuan, Herritartasunerako eta Gizarteratzeko Plan Estrategikoak aipatu behar dira. I. Planaren (2007/2010) ekintza estrategikoak 3 printzipio ditu inspirazio-iturritzat: 1. Berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa. 2. Herritarrak. Gizartearen eraketan parte-hartze aktiboa izatea funtsezkotzat hartzen da gizarte-kohesiorako. «Gizalegezko hiritartasuna» kontzeptua hartzen da oinarritzat, Europako Batzordeak 2000. urteko azaroan egin zuen adierazpenean proposatutakoaren antzekoa. 3. Kultura-artekotasuna «Espainiako eta Europako pluralismoari berezkoak zaizkion balio eta aberastasunetako bat» bezala ulertuta eta «kultura ezberdinetako pertsona eta taldeen arteko harremana zuzendu behar (...) duen oinarritzko eredu gisa eratuta, partekatutako konstituzio-printzipioetan oinarritutako gizarte-kohesioa eta aniztasunarekiko errespetua eta balorazio positiboa, biak batera, berrmatze aldera» (184.or). II. Planak (2011/2014), aurreko plana inspiratu zuten printzipioei eusten die: berdintasuna bultzatzen duen gizarteratzea, «gizarte eta ekonomiaren arloan berdintasun handiagoa duen gizartea ahalbidetzeko behar diren baldintzak sortzeko prozesua azpimarratuz» (86. or).

Halaber, Espainian Zibilizazioen Aliantzarako I (2007-2009) eta II. (2010-2014) Plana aipatu behar dira. Bi planek kulturen arteko elkarrizketara bideratzen dituzte beren estrategiak, Zibilizazioen Aliantzarako Nazio Batuen goi-ordezkariek egindako proposamenari jarraituz. Plan hauekin lankidetzan ari diren erakundeen artean, erlijio-aniztasunaren arloan Pluralismo y Convivencia Fundazioak egindako lana azpimarratu behar da bereziki, Espainiako Erlijio Aniztasunaren Behatokia sortu baitu. Behatokiaren bidez, hainbat ekimenekin, erlijio-aniztasunaren errealitatearen ezagutza hedatu nahi da, dauzkan beharrak ezagutarazi eta arazoak konpontzen lagunduko duten tresnak sortu.

Espainiako gobernu ezberdinen sentsibilitatea eta erlijio eta kulturen arteko elkarrizketaren sustapenean izan duten parte hartzea, beste behin ere, agerian jartzen da Espainiak, Austria eta Saudi Arabiarekin batera kide fundatzaile gisa KAICIIDen sorreran (Erlijioen eta Kulturen arteko Elkarrizketarako Zentroa) egindako lanean. Erakunde independente honek Vienan du egoitza eta bertan inauguratu zen 2012ko azaroaren 26an. Zentroaren helburua da erlijioen eta kulturen arteko elkarrizketa bultzatu eta lankidetzan, aniztasunarekiko errespetua, justizia eta bakea sustatzea.

<sup>2</sup> STC 117/2006 epaia, apirilaren 24koa, zuzenbideko oinarrietan, aurreko epaian oinarritzen da, eta berretsi egiten du 14. artikuluan babes-gunetik kanpo geratzen dela «ez desberdintzeak eragindako bereizketa». Halaber, adierazten duenez, berdintasun-printzipioak «ez du tratu-desberdintasunerako eskubiderik ematen, ezta balizko desberdinen arteko bereizketa falta babesten ere, eta beraz ez dago «arauaren arabera tratu desberdinarekiko eskubide subjektiborik». Bertan, aurreko epaiei egindako aipamenak aurki daitezke.

---

Helburu estrategiko hauek ditu, besteak beste:

- Erlijio eta kulturen arteko elkarrizketaren arloan ezagutza sortu, garatu eta hedatzea.
- Desberdintasunarekiko errespetua landu eta sustatzea elkarrizketaren bidez.
- Zubiak eraikitzea, gatazka konpondu eta taldeen arteko lankidetzak sustatzeko.

Autonomia-erkidegoen esparruan, Euskadiko 2012ko azken Immigrazioaren, kultura-artekotasunaren eta herritartasunaren Plana aipatu beharra dago, guri interesatzen zaigun alderdiari dagokionez. Plan horretan, Immigrazioari buruzko aurreko planetan ez bezala, «kulturen arteko bizikidetzak» esaldia agertzen da. Planean, gizarteratzea eta bizikidetzak nabarmentzen dira, harrera baino gehiago, izan ere, «elkarrekin» bizitzeko beharra azpimarratzen du euskal gizartearen moduko gizarte anitz eta pluralean gizarte-kohesioa bermatzeko. Horregatik, Planaren izenburuan «kulturen arteko bizikidetzak» esamoldea agertzen da.

Arlo arauemaileari dagokionez, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, hitzaurrean eta 7 c) artikuluan, ekitate eta berdintasunaren printzipioari buruz, aipatzen du, euskal herri-administrazioek kultura-artekotasunaren ikuspegia txertatuko dutela beren ekintzetan. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak 5.2 C artikuluan adierazten duenez, duintasun-eskubidearen benetako erabilerak berekin dakar «pertsonak dituzten beharrei eta, ahal den neurrian behintzat, zaletasun edo lehentasunei errespetu osoa ematea, kultura- eta erlijio-alderdiei begiratuz, (...) era berean, inongo diskriminaziorik ez jasatea(...) sinesmena edo ideologiagatik (...)». Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrotzari buruzkoak, ez du indargabetu, eta, beraz, indarrean dago aipatutako Dekretuan ezarritakoarekin bat datorren guztian.

Era berean, autonomia-erkidegoen eremuan, Kataluniako autonomia-erkidegoak egindako lana azpimarratu behar da, aniztasunaren arloko ezagutza eta prestakuntza hedatu baitu hezkuntza-gidaliburuen bidez (*Guia per al respecte a la pluralitat religiosa en l'àmbit hospitalari*, *Guia per al respecte a la diversitat de creences en l'àmbit funerari*, *Guia per al coneiximent de la diversitat religiosa adreçada als serveis policials de Catalunya*) autonomia-erkidegoan dagoen erlijio-aniztasuna ezagutaraztea beharrezkoa izan daitekeen hainbat arlotan.

Tokiko gobernuaren eremuan, kultura-arteko politikak agerrarazi dira Kultura Arteko Hirien Espainiako Sarean (RECI) Espainiako gero eta udalerrri gehiago sartzen ari direlako eta hirian Giza Eskubideen Europako Gutuna sinatzen dutelako. Gutun hau agiri arauemailea da, eta hirian giza eskubideen erabileraren aldeko baldintzak sortzeko udalerriek duten protagonismoa sustatzen du. Sare hauetan sartzeak eragina du udalerriek antolatzen dituzten jardueretan, kultura ezberdinen arteko topalekua bilatzeko eta hainbat programen bidez gure udalerrian bizi diren kulturak ezagutarazteko. Euskal Autonomia Erkidegoan Kultura-arteko hirien sarera sartu dira Bilbo, Donostia eta Getxo.

## Laikotasun positiboa, Estatuaren eta erlijio-konfesioen arteko harreman-eredua

Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikulua hau dio: «Erlijio batek ere ez du izango estatu-izaerarik». Eredurik ez da zehazten, baina esaldi honen bidez Estatu eta erlijioen arteko banaketa aipatzen du. Konstituzio Auzitegiak eredia ez-konfesionaltzat hartu du, eta otsailaren 15eko STC 46/2001ren ondoren, laikotasun positibotzat, termino hau erabiltzen baita ez-konfesionaltasunaren sinonimo moduan. Adiera bien artean dauden desberdintasunak aztertzen hasi gabe, auzitegi horrek laikotasun positiboa esamoldea zein zentzutan erabili duen azaltzen saiatuko gara. Konstituzioan, batetik EKren 16.3 artikulua hartzen du euskarriztat, horren arabera «Estatuak eta botere publikoek ekitate erlijiosoaren aurrean abstentziozko edo neutraltasunezko jarrera hartu behar dute, eta berekin dakar erlijio batek ere estatu-izaerarik ez izateko agindua (...)». Bestetik, Konstituzioaren Testuko 9.2 artikulua arabera, «botere publikoek ezartzen die norbanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna bultzatzeko jarduerak-gidalerroa, eta baldintza egokiak sortuko dituzte benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, ez benetako edukirik gabeko adierazpen hitsak». (7.OJ).

Beraz, 16.3. artikuluan aipatzen den erlijioen arteko lankidetzaren 9.2. artikulua zehaztapen gisa hartu behar da. Artikulu horrek betebeharrak positiboak dakartza botere publikoentzako, erlijio-askatasunaren erabilera berdina ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko. (4. Oinarri Juridikoa).

Erljio-sinesmenekin izango duen lankidetzaren muga laikotasunaren lehenengo osagaiak zehazten du, hots, Estatuaren eta erlijioen arteko banaketak. Banaketa horrek behartuta, botere publikoek ezingo dute bat egin erlijio bakar batekin ere. Konstituzio Auzitegiaren esanetan, «helburu erlijiosoen eta Estatuaren helburuen arteko edozein nahasketa galarazten du» (STC 177/1996) eta ez da esku hartuko erlijio-askatasunaz baliatzeko beharrezkoa ez baldin bada.

Laburbilduz, laikotasun positiboak, bermatu egiten du, erlijio-askatasuna berdintasunez erabiltzea botere publikoaren betebeharrak positiboak bidez, eta esku hartu beharko dute askatasunaz baliatzeko baldintzak sortuz eta oztopoak kenduz. Hala ere, ezin izango dute erlijioarekin bat egin sinestun eta sinesgabeen arteko berdintasuna bermatzeko.

## 2. Eskubideak, beharrak eta eskaerak

Atal honen helburua da erlijio-aniztasunaren eta bere kudeaketa publikoaren arloan EAEn dauden arazo nagusienak banan-banan aipatu eta labur-labur deskribatzea, horiei buruzko gai garrantzitsuenak kontuan hartuz. Arazo zehatzak identifikatzea eman beharreko urratsa da, bete gabeko behar, eskaera eta eskubideak betetzeko gomendio jakinak egin baino lehen. Horretarako, hurrengo orrialdeetan, bildu eta labur-labur deskribatu ditugu EAeko erlijio-erakundetan sortutako arazoak, eskaerak eta beharrak, eta baita egun guztiz erabiltzen ez diren arau-esparruan jasotako eskubideak ere.

13 gai nagusitan egituratu da bilduma eta horien barnean azpi-gai batzuk daude. Atal honen helburua arazoak azaltzea besterik ez da. Arazoak izan dezaketen konponbiderako proposamenak 3. atalean bildu ditugu.

### 2.1. Errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasuna

Aipatu behar dugun lehenengo kontua Euskal Herriko errealitate sozio-erlijiosoari buruz dagoen ezjakintasun orokorra da. Ezjakintasun horren barnean daude, batetik, errealitate berri samar honen presentzia sozialarekin lotutako gaiak, eta bestetik, herri-administrazioaren estamentuen aintzatespen formaletik ondorioztatzen diren beste alderdi batzuk.

Ezjakintasun bikoitz honek hurrengo orrialdeetan agertzen diren arazoak sortzen ditu, neurri handi edo txikiagoan ondorio zuzenak baitituzte erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoan.

Arazoak sortzen dituzten alderdirik gehienak erakundearen aintzatespen handiena duten erlijioek proposatzen dituzte: kristautasun ebanjelikoak eta islamak. Burututako ikerketen bidez eta EAeko erlijio-erakundee-tako ordezkariak egindako kontsulten bidez elementu jakin batzuk identifikatu dira eta hauek dira identifikatutako elementuetako batzuk:

1. *Errealitate sozio-erlijiosoa agerian jartzea*: EAeko errealitate sozio-erlijiosoari buruzko proiektzio publiko edota sozial oso txikia dago. Estatuan, ez da errealitate hau landu duela gutxira arte. EAE osoan, ekimen oso gutxi daude Euskadiko erlijio-erakundeak zeintzuk diren, non dauden eta horiei buruzko informazioa jakinarazteko. Hauek dira ekimenetako batzuk: udalerrietako mapetan gurtza-zentroak jartzea (adibidez, Bilboko autobus-markesinetan) edo Udalen batek bere web-orrian ireki duen guneko espezifikoa (Irungo Udalak, adibidez)<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Sistematikoki burututako lehenengo ekimena Pluralidades latentes. Minorías religiosas en el País Vasco” argitalpena izan da. Honako esteka honetan deskargatu daiteke: [http://www.observatorioreligion.es/upload/57/33/Pdf\\_interactivo\\_Euskadi.pdf](http://www.observatorioreligion.es/upload/57/33/Pdf_interactivo_Euskadi.pdf)

- 
2. *Bere izaera juridikoari buruzko ezjakintasuna*: herri-administrazioaren sektore batzuetan badago ezjakintasun-apur bat erlijio-erakundeen izaera juridikoari buruz, batez ere Erakunde Erlijiosoan Erregistroan beren inskripzioari buruzkoak. Beraz, ez dakite erakunde horiek erregistroan inskribatu ondoren duten izaera juridikoa zein den<sup>4</sup>, horrexek ematen die, hain zuzen, herri-administrazioarekin eta beste erakunde batzuekin elkarrizketak izateko izaera juridiko nahikoa.

## 2.2. Erlijio erakundeen eta herri administrazioaren arteko harreman instituzionalak eta elkarrizketa

Oro har, aipatu beharra dago, ez dagoela parte hartzeko eta/edo elkarrizketarako kanal argirik herri-administrazioaren eta erlijio-erakundeetako, batez ere katolikoak ez diren artean. Aurreko atalean adierazi den bezala, errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasunak eragina du gai honetan, eta baita gai honetako arau-esparruari buruzko ezjakintasunak ere, komunikazio-kanal horien ezarpena eragozten baitu. Dena den, hau ez da eremu edo leku guztietan gertatzen, batzuetan ekimenak egin dituzte erlijioetako ordezkarien eta herri-administrazioaren arteko elkarrizketarako bideak pixka bat lantzeko (adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin<sup>5</sup>, Bilboko Udalarekin edo Irungo Udalarekin<sup>6</sup>). Ondoren, gai horietako batzuk zehaztasun gehiagorekin aztertuko ditugu.

1. Erlijio-erakundeetako ordezkariak *parte hartzeko lekuen eta presentzia-guneen gabezia* edo eza antzematen da (beren izenean edo beste gizarte-erakunde batzuk ordezkatzeko) herri-administrazioa eta erakunde hauek elkarrizketan aritzeko beren leku propioak, zein orokorrak. Komunikaziorako eta elkarrizketarako biderik ez izateak eta erakundeen ordezkariak nortzuk diren argi ez jakiteak, erakunde bien arteko komunikazioa eragozten du eta beharrezkoak ez diren arazoak sortzen ditu egoera jakinetan. Batzuetan, berariazko partaidetza-mekanismoak sortzeko aukera proposatu da, baina berez, gutxitan abiarazi dira, eta izan dituzten emaitzak oso desberdinak izan dira<sup>7</sup>.
2. Funtzionario publikoek errealitate hau ez dutela ezagutzen antzematen da, ezta auzi erlijiosoa erregulatzeko duen araudia ere. Ezjakintasun honek oztopatu egiten du arlo honetan parte hartzen duten eragileen arteko elkarrizketa. Bestalde, eremu bateko eta besteko solaskide nagusirik ez egoteak edota nortzuk diren ez jakiteak oztopatu egiten ditu harremanak eta egoera hauentzako ordezkariak proposatzea.
3. Erakunde erlijiosoak *ekitaldi publikoetan*. Oso ekitaldi publiko gutxitara joaten dira erakunde erlijiosoak, eta joaten diren bakarrak eliza katolikoaren ordezkariak edo erlijiosoak dira. Horrek nolabaiteko desoreka sortzen du erlijio katolikoaren eta lurraldean dauden gainerako erlijioen artean.
4. Kargu publikoak erlijio-erakundeen *ospakizun-ekitaldietan*. Aurreko egoeran gertatzen den bezala, herri-administrazioaren ordezkariak ospakizun erlijiosoetara edo oinarri erlijiosoa duten ospakizunetara joaten direnean, Eliza katolikoaren ospakizunetara joaten dira. Katolikoak ez diren erlijio-erakundeekiko konparaziozko bidegabekeria katolikoak ez diren erlijio-erakundeetako ordezkarietako batzuek azpimarratu ohi dute. Jaiegunen tradizioaz baliatzeak, adibidez, eta beste erlijio batzuetako ekitaldirik ez egoteak nolabaiteko nahastea sortzen du Estatu ez-konfesionalaren ikuskerari buruz. Labur esanda, guztiz erlijiosoak diren ospakizunetara agintari publikoak egoteak nahasmena sortzen du, kontuan hartzen bada konfesionaltasun-ezaren edo laikotasun positiboaren printzipioetan oinarritu behar dela agintari publikoen jarduna.

---

4 <http://maper.mjusticia.gob.es/Maper/RER.action>

5 Ikusi: <https://www.euskadi.eus/informacion/dh-diversidad-religiosa/r48-pazconte/es/>

6 Ikusi: [http://www.irun.org/caste/1vivir/diversidad\\_religiosa.asp](http://www.irun.org/caste/1vivir/diversidad_religiosa.asp)

7 Bilbon, erlijio-aniztasunaren partaidetza-mahaia, esaterako, ez zuen arrakastarik izan, gurtza-zentroei buruz HAPOn ezartzen den araudia aldatzeko proposamenengatik. Komunikazio-kanalak antolatzeko Irungo Udalaren beste esperientziak martxan dirau.



## 2.3. Inguru sozialarekiko hartu emanak: bizilagunak eta komunikabideak

Euskal gizarteak erlijio-aniztasunari buruz duen hautemateak eta iritziak eragina du publikoki kudeatzeko moduan. Erlijio-erakundeen, fededunen eta auzokideen artean sortzen diren gizarte-harremanak, oro har, nahiko positiboak dira. Hala ere, orokorrean, erlijio gutxiengoaren gizarte-proiektzioak zailtasunak sortu ohi ditu, eta ondorioz, zailtasunak antzematen dira erlijio-aniztasuna gure gizartearen beste ezaugarrietako bat bezala hautemateko. Horri buruz, azpimarratu daitezkeen elementuetako batzuk estereotipo eta aurreiritziekin lotuta daude, gehienak, herritarrek, oro har, duten informazio-faltak edo informazio txarrak sortutakoak. Hautemate hauek areagotu egiten dira erlijio batzuetan bereziki, islamiar komunitatean, esaterako. Hurrengo lerroetan gai hauei buruzko osagai eta arazo nagusiak bildu dira.

1. *Erlijio-aniztasunari buruz gizarteak duen hautematea*: Euskal gizarteak oso jarrera ezberdinak ditu erlijio-aniztasunari buruz, erlijio bat eta bestearekiko dauden hautemateak oso ezberdinak baitira. Balioespen onenetakoa duten erlijioak kristau jatorrikoak dira, eta balioespen onena duena Eliza katolikoa da. Gainerako erlijioek, balioespen positiboak badute ere, balioespen orokorra kristau jatorria duten erlijioena baino txarragoa da (Erlijio-aniztasunari buruzko ikerketa monografikoa 2012<sup>8</sup>).
2. *Arazo zehatzak, NIMBY efektua, esaterako*<sup>9</sup>: NIMBY efektua dela eta azken urteotan sortutako arazo nagusienak ez ditu behar bezala konpondu herri-administrazioak, eta dena den, zentzu askorik ez duten esku-hartzeko moduak burutu dituzte. Herri-administrazioak eman dituen erantzunak ez dira oso erreaktiboak izan, eta beraz, ez zaie heldu aurreikuspen egokiarekin. Fenomeno honi buruzko zantzurik nabarmenena gurtza-zentroen irekiera da. Gai hau aurrerago aztertuko dugu. Auzokideen eragozpenak izan ohi dira hainbat lekutan, erlijio gutxiengoaren gurtza-zentroak ez irekitzeko erabili ohi den arrazoi nagusietako bat. Bizikidetzaren bermatu eta auzokideen arazoak murrizteko beharra irizpide objektibo eta zentzuzkoetan (eta arrazoiuetan) oinarritu behar da. Baina hau, begi-bistakoa denez, ez da gehienetan gertatzen. Auzokideek dauzkaten argumentu nagusiak zeintzuk diren aztertu behar da. NIMBY efektua, sarritan, udal-kudeaketaren esparru ugariaren kudeaketa publikoarekin batera gertatzen den arazoa da.
3. *Errealitate sozio-erlijiosoari buruzko informazioaren trataera globala*: Erlijio-gutxiengoek jakin badakite komunikabideen *informazio-objektu* direla, beren tradizio eta ohiturek gizarte honen testuinguruan duten nolabaiteko exotismoagatik (kasu honetan, ortodoxoek pazko-jaieguna ospatzeko dituzten berezitasunak aipatzen dira). Talde bat ohikoa denetik aldentzen bada, komunikabideetan gehiago agertuko da, eta horrek alderdi positiboak eta negatiboak ditu. Komunikabideen jardunarekiko ardura kristau ebanjeliko, musulman eta kristau ortodoxoen artean sortzen da bereziki. Eskandaluzkoa izan daitekeena komunikabideetan errazen agertzen dena izan daiteke, eta gainera orokortzeko joera dago («arrunta balitz bezala hitz egin»). Beraz, talde edo pertsona isolatuak duen portaera deigarri edo probokatzailera kolektibo osora zabalduko da erraz-erraz, eta gutxiengo erlijioso guztien ezaugarriaren zati bihurtuko da herritar guztien imajinarioan, komunikabideen presentzia boteretsuaren bidez. Testuinguru honetan jarduten dute komunikabide sozialek, eta gutxiengo erlijiosoaren hautematearen arabera, muga eta aurreiritzi horiek gainditzen lagundu beharrean, alderantzizkoa egiten dute, hau da, muga eta aurreiritzi eutsi eta zabaldu egiten dituzte. Horrek defentsa eta mesfidantzazko jarrera eragiten du. Jarrera negatiboek indar handiagoz eta maizago agertzeko joera dute komunikabide sozialean eta orduan sortzen da orokortze-fenomenoa. Gai hau lege-ikuspuntuan agertzen ez bada ere, badauka zerikusia bizikidetzarekin eta gutxiengoaren talde horiek eduki dezaketen irudi publikoaren eraikuntza egokiarekin, batez ere aurreiritziek sortutako desabantaila-egoerak hartu ohi direla oinarritzat kontuan hartuta.
4. *Komunikabide publikoak eta erlijio-erakundeak*. Telebista publikoari dagokionez (EiTB), orain dela urte batzuetatik hona, erlijio batzuei buruzko programak garatzeko espazioak ematen ari da, Estatuarekin dituen lankidetzak-akordioaren bidez. Programa hauek ikusle gutxiako orduetan ematen dituzte.

<sup>8</sup> Ikerketaren esteka: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dh\\_diversidad\\_religiosa/es\\_def/adjuntos/12tef1-diversidad\\_religiosa\\_es.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dh_diversidad_religiosa/es_def/adjuntos/12tef1-diversidad_religiosa_es.pdf)

<sup>9</sup> NIMBY: *Not In My Back Yard* («Nire atze-patioan ez»)

---

## 2.4. Hirigintza plangintza eta kudeaketa

Zalantzarik gabe, hauxe da osagai garrantzitsuenetakoa erlijio-aniztasunaren kudeaketari dagokionez, izan ere, batetik, gutxiengo erlijiosoen behar eta eskaera nagusienetako bat da, eta bestetik, baita gizartean eta erakundeetan arazo gehien sortzen dituen ere.

Erlijio-komunitatea osatzen duen giza taldeak topagune bat behar du, erlijio-jardunbideak partekatzeko, antolatzeko, harreman formalak eratzeko eta harreman informalekin garapena ahalbidetzeko. Harreman hauek gabe, talde erlijiosoak ez du komunitate bizi bat osatuko. Bestalde, gizarte-inguruarekin duten harremanak, ezagunak izateak eta elkarri eragiteko aukera izateak topalekuen edo biltzeko zentroen beharra dakar. Egun, leku hauek ez dira fisikoak bakarrik (gizarte-sareek eta komunikazio birtualak esker, duela gutxira arte ezezagunak ziren elkarrekintza-motak eta presentzia-motak ahalbidetzen dituzte), baina benetan, lokalaren talde erlijioso jakin bat dagoela ikusarazten dio gizarteari kokapen fisikoak eta gizarte-elkarrekintza oso esanguratsua ahalbidetzen du. «Aurrez aurre» elkartzeak elkar ezagutza eta aintzatespena bultzatzen ditu, eta oinarrizkoa da gizarte-harremanetarako eta konfiantzak sortzeko.

Testuinguru honetan, ulertzekoa da talde erlijiosoek espazio fisikoaren gaia funtsezkotzat hartzea komunitatearen existentziarako eta izan dezakeen garapenerako. Egoera honetan, ondoren jasotzen diren zenbait elementu antzematen dira.

1. *Gurtza-lokala irekitzeko lege-eskakizunak.* Talde erlijioso batek gurtza-lokala ireki nahi duenean (ospakizunetarako, topaketarako, prestakuntzarako edo beren tradizioekin lotutako beste edozein helburutarako) bere egoera erregularizatu eta formalizatu behar du. Hala egiten ez badu, ezegonkortasun-arriskua oso handia da. Egoera legez-tatu nahi badu, dagoen legedia ez da argia eta hainbat modutan interpreta daiteke. Udal-erri batzuetan, ez dute berariazko tresna gisa lokal erlijiosoen irekiera erregulatzen duen araudirik, edo, baldin badago, ez da nahikoa zuzenean aplikatzeko. Egoera honen ondorioz, udal-gobernuek erabilera erlijiosorako lokala irekitzeko lehenengo eskaera jasotzen dutenean, nahasmendu handi samarra izan ohi dute. Araudi espezifikorik ez dagoenez, beste jarduera batzuetarako pentsatutako ordeko lege-eskakizunak aplikatzen dira, eta ez dirudi oso egokia denik tokiko gobernuan erabakiak hartu behar dituztenentzat; era berean, gutxiengo erlijiosoek erabakiok diskriminatzailetzat hartzeko aukera sortzen du egoera honek.
2. *Arbitrariotasuna ideiak aplikatzerakoan.* Gurtza-lekuentzako araudi espezifikorik ez egoteak eta irisgarritasun, segurtasun, zerbitzu arloko eta bestelako eskakizun arkitektoniko handiak dituzten ikuskizunetarako edo kontsumorako leku gisa hartzeak, eragotzi egiten du irizpide argiak izatea gurtza-zentroa irekitzerakoan. Bestalde, hautematen da, irizpide hori ez zaiela berdin aplikatzen eraikin eta komunitate erlijioso guztiei. Testuinguru honek heterogeneotasuna sortzen du talde erlijiosoen lokal-eskaeraren aurrean jarduteko irizpide eta formetan. Anbiguitasun honi eusteak ondorio negatiboak dakartza. Batetik, talde batzuk baztertua senti daitezke agintariak beste talde batzuei ezartzen dizkien irizpideengatik; susmo hori agertzen da, bereziki islamiar komunitatearekin; arbitrariotasun honek ez du gardentasuna bultzatzen gai honen kudeaketan. Bestetik, udal-gobernuen arteko lehia ere sor daiteke, erantzukizunak ez hartzeko eta gurtza-lekuen gaia beste udal-erri batzuetara eramateko ahaleginak eginez.
3. *Espazioa banantzeko joera.* Lokala edukitzea oso garrantzitsua bada taldeko bizitzarako eta taldeak inguruarekin duen harremanetarako, beste alderdi batzuek ere eragina dute lokalak bete behar dituen zereginen betearazpen egokian. Logikoki, espazio-baldintza fisikoak eta barne-ekipamendua eduki behar dira, eta baita ezarpen horretarako dituzten baliabideak ere. Dena den, talde erlijiosoak erabiltzen duen lokalak izan dezakeen funtzionaltasuna askoz ere gehiago baldintzatzen duen lehenagoko beste alderdi bat dago: hirigunean lokalak duen kokapena. Lokalera erraz iritsi badaiteke eta kalitatezko garraio publikoa badu, taldeko kide eta jarraitzaileen sarbidea eta partaidetza nabarmen errazten du; halaber, beste gizarte-talde batzuekiko eta, oro har, auzokoekiko elkarrekintza errazten du; auzo-kide askok ikusiko dute talde hori hirian dagoela eta ohikoa dela batzarrak egitea. Lokala hiri-inguruan badago, ostera, ez bada ohiko pasabidea, garraio-zerbitzu publikoa ez bada haraino heltzen etab., asko oztopatzen da lokalak bete behar dituen zereginen betearazpena, taldearen barnean, zein gizartearekin duen loturan.
4. *Espazio gutxiegi.* Gutxiengo erlijiosoen beharrak artatzeko gurtza-zentroen eskasia egon badago Euskal Herrian. Erakunde erlijioso batzuk ez daukate beren gurtza-zentrorik eta beste erakunde batzuekin

partekatu behar izaten dute gurtza-lekua. Aspalditik egiaztatu den egoera da hau<sup>10</sup>, eta azpial honetan jasotako alderdiek eragina dute egoera horretan.

5. *Lurzuaren erregularizazioa, udal-plangintza eta erlijio-ekipamendurako lurzatiak gordetzea.* Euskal udalerriek erlijio-ekipamenduari dagokionez duten egoera eta eman duten erantzuna benetan desberdina da, eta horrek komunitate erlijiosoen koherentzia gutxiko erregularizazioa eta plangintza erakusten du eta eragina du komunitate erlijiosoen ezarpenean eta beren gurtza-zentroen kokapenean. Batzuetan, erlijio-ekipamendurako lurzatiak gorde dira baina ez dirudi lurraldean dauden erlijioen beharrei buruzko azterlan xehatuaren ondorio izan denik.

## 2.5. Espazio publikoen erabilera: auzo etxeak, kirol zentroak edo kultur etxeak

Gutxiengo erlijiosoen behin eta berriz errepikatzen duten gaietako bat, oro har, espazio publikoa edo titulartasun publikoa duten bestelako espazioak erabiltzearena da, esaterako auzo-etxeak, kirol-zentroak edo kultur etxeak. Gurtza-zentrorik ez izateak, gurtza edo ospakizun berezi batzuk egiteko zentroak ez direla nahikoa edo espazio publikoak erabiliz gizarte-proiektzio handiagoa nahi izate hutsa dira espazio horiek eskatzeko arrazoi edo zergatietako batzuk. Sarritan, erlijio edo komunitate erlijioso batzuen gurtza eta erlijio-askatasuna gutxitu erabili ahal izateko oinarritzko beharrezko harriztat hartzen da espazio hauen erabilera.

Espazio edo ekipamendu publikoak noizbehinka erabiltzeko komunitate erlijiosoen egiten duten eskaerak, beren jardueretarako eskaera hau egiten duten gizarte zibileko gainerako erakundeentzako dauden prozedura berbera jarraitu eta trataera berbera izan beharko du. Ez dirudi hau egoera orokorra denik, izan ere, beste gai batzuen artean, titulartasun publikodun zentroen erabilerari buruzko erregelamenduak ez du oso argi uzten erabilerak zeintzuk diren, funtsean erlijio gutxiengo batzuek antzeman ahal izan dituzten zailtasunengatik eta hainbat egoeretan, antza, hauteman diren irizpide ezberdinengatik.

1. *Titulartasun publikodun espazioetara sarbidea* (Zentro publikoak). Egoera batzuetan antolamendu zorrotzegia antzematen da laikusaren ikuspegitik zentro publiko horietan erlijio-erakundeek espazioak erabiltzen uzterakoan. Aintzatespen formala duten erlijio-erakundeak (adibidez Erlijio Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea) sarritan titulartasun publikodun espazioen erabileratik kanpo uzten dira, nolabaiteko diskriminazio-maila sortuz beste gizarte-erakunde batzuekin alderatuta.
2. *Bide publikoa erabiltzea erlijio-erakundearen jardueretarako.* Zailtasun batzuk identifikatu dira erlijio-erakundearen jardueretarako, ospakizunetarako, zein gizarte-izaera handiagoa duen jardueretarako, bide publikoa erabili ahal izateko. Aurreko puntuan agertzen diren antzeko argumentuak adierazi dira espazio hauek ez uzteko edo komunitate erlijiosoen lotutako jardueretarako baimena ez emateko.
3. *Erakunde erlijiosoen baliabide publikoak eskuratzeko duten aukera.* Aurreko gaiekin lotuta, erlijio batzuek finantza-baliabide publikoak eskuratzeko aukera izatea eskatzen dute<sup>11</sup>. Eskaera hauetako batzuk erabat erlijiosoak diren ekintzentzako laguntzarekin lotuta daude, eta beste batzuk gizarte-izaera handiagoa duten alderdiekin, hau da, gizarte-ekintzaren arloko lanekin lotutako ekintzak dira. Azken kasu honetan bakarrik dago justifikatuta baliabide publikoen erabilera. Eliza katolikoaren egoerarekin konparaziozko osagaia oso elementu nabarmena da eskaera hauei dagokienez.

## 2.6. Laneko ordutegiak eta gurtza denbora

Jakina da, gurtzak, ospakizun esanguratsuak komunitatean burutzeko erlijio bakoitzak dituen egun esanguratsuak asteko egun ezberdinetan izaten dira, eta baita ospakizun orokorrak ere erlijio batzuen zein besteen kasuan. Egutegi zibilak, dagozkion jaiegunekin (astekoak eta urtekoak), eragin negatiboa izan dezake egutegi orokorrenekin bat ez datozen jaiegunak dituzten erlijioek gurtza ospatzeko aukeran. Beraz, urteko egutegiak eta laneko edo eskolako orduen banaketak zailtasunak sor ditzake gutxiengo erlijiosoen eta

<sup>10</sup> Ikus 2. oharra

<sup>11</sup> 2.1.1 atalarekin lotutako alderdia

---

beren fededunen jardunbide erlijiosoak moldatzeko. Laneko egutegiari dagokionez, autonomia-erkidegoek oso aukera gutxi dituzte gai honetan. Hala ere, erlijio ezberdinen presentziari buruzko gaien bezala, alderdi hauetan ere ezjakintasuna dagoela antzematen da. Ondoren, jaiegunen egutegiaren, laneko ordutegiaren eta gurtzarako denboraren kudeaketarekin lotutako bi gai nagusienak aztertu ditugu.

1. *Jaiegunen egutegia eta urteko eta asteko ospakizunen egutegia.* Erlijio gehienentzako beren jaiegunak bat datoz ohiko egutegiarekin, funtsean oinarri kristaua dutenekin. Beharbada, horregatik ez dira antzeman ordutegien eta gurtzarako denboraren bateraezintasunari buruzko eskaerak eragiten dituzten egoera larregi. Bestalde, uztartzeko jardunbide batzuk, edo hobeto esanda ohitura tradizionalak egokitzeko jardunbideak hautematen dira, izan ere, ohiko jardunbideetako bat gutxiengo erlijiosoetako kide diren pertsonak banakako kudeaketak burutzea da, jai berezietan edo norberaren jardunbideetan parte hartu ahal izateko. Nolanahi ere, zailtasun hauen aurrean izan behar den jarrera pertsonarentzako (heldua zein gaztea) ahalik eta kalte txikiena bilatzearena da, eta ildo horretan, egoera honek eragindako erlijioetako fededunek joera dute prozesu partikular horietan amaitzeko, baina prozesu horiek ez diote egiturazkoagoa den egoerari heltzen eta beraz, gai hauek nahiko ezkutuan daude oraindik ere.
2. *Laneko ordutegia arautzea gurtzarako.* Gai hauek, hainbat erlijioeko fededunengan eragin arren (musulmanak, ortodoxoak, adbertistak) islamiar komunitatean bakarrik antzeman dira asegabetasunak edo ardura, lanetik edo prestakuntza-ikastaroetatik irtetzen ez dietelako utzi otoitz egiteko edo egun garrantzitsuetan. Gai zehatzak badira ere, gatazka gehiago sortu ditzakeen gai berria da.

## 2.7. Ehorzketak, hilerriak eta hileta zerbitzuak

Biziaren amaiera, eta beraz, pertsonen bizitzaren amaieran ematen zaien arreta, eta ondorengo ehorzketa, gai oso garrantzitsua da dauden erlijio edo sinesmen guztietan. Gizarte honetan erritu hauek fede erlijioso bakar batean oinarrituta burutu dira, kasu honetan erlijio katolikoan oinarrituta, eta beraz, dagoen erlijio-aniztasuna erronka bat da aniztasunaren benetako gizarteratzean.

Euskadin dauden gutxiengo erlijiosoetatik, komunitate islamiarrak dira gai horretan zailtasun gehien dituztenak. Izan ere, Islamak berezitasunak ditu erlijio honetako pertsona bat hiltzen den unean eta ehorzterakoan. Gorpua ganoraz garbitu, eta ondoren tapaki zuri batean biltzen da eta zuzenean ehortzi egiten da Mekarantz begira. European ehorzketetan bete behar diren osasun-baldintzak ez datoz bat ehorzteko modu honekin, European gorpua hilkutxen barnean ehortzi behar baitira.

Horregatik, komunitate islamiar batzuk horri buruzko eskaerak egin dituzte, erlijio honetako pertsonentzako lekua eskatuz dagokien tokiko hilerrian. Eskaerek erantzun eta emaitza desberdinak izan dituzte, Bilbon, hitzarmen baten bidez leku bat erabili dezakete hilerrian (hilerria Derion dago), Arabako hiriburuan, aldiz, eskaera ezin izan zen bete.

Laburbilduz, ehorzketen eta gutxiengo erlijiosoek ematen duten aniztasunaren gaien, batzuetan ez da ezartzen dagoen legea. Lege horren arabera hilerriak zibilak dira, eta beraz, herritarrek, beren erlijioa edo erlijiorik eza kontuan hartu gabe, eskubidea eduki behar lukete legearen betez duintasunez ehortziak izateko.

1. *Lurzatiak gorde eta kudeatzea.* Araudiaren esanetan, hilerri guztietan pertsona guztientzako lekua egon behar da, baina erlijio gutxiengo batzuetako kideek zailtasunak dituzte hurbilen duten hilerrian ehortziak izateko. Administrazio-izaerako kontuek ere oztopatu egiten dituzte gutxiengo erlijioso batzuekin egindako lankidetzak-hitzarmena duten hilerrietako ehorzketak, udalerrian bizi diren pertsonak bakarrik ehortzi baitaitezke bertan, beraz fededun batzuk ez dute estaldurarik.
2. *Hilobiratzei eta hileta-errituei buruzko arau tradizionalak errespetatzea.* Dirudienez, ez dira hilobiratzei eta hileta-errituei buruzko arau tradizionalak errespetatzen, horri buruzko araudia egon arren. Beharbada, araudi hori ez ezagutzeak galarazi egiten du arauak betearaztea.
3. *Erlijio aniztentzako kaperak.* Euskal Herriko hilerri gehienek, tradizio erlijioso dela eta, kaperak katolikoak dituzte, baina ez dira egungo egoerara egokitu (ikuspegi akonfesionala zein herrian aintzatetsita dagoen erlijio-aniztasuna kontuan hartuta). Egoera honek lekuak kudeatzeko modua hausnartu behar dela ematen du aditzera, inklusiboagoak izan daitezken, bai fededunentzako, bai fededunak ez direnentzako.

## 2.8. Elikadura

1. *Ohiko elikadura*. Elikadura pertsonen oinarrizko beharretako bat da, eta beraz oso gai garrantzitsua. Euskadin dauden gutxiengo erlijiosoetatik, elikadurarekin arazoak eduki dituela adierazi duen erlijio bakarra Islama izan da. Erlijio islamikoaren arau eta tradizioen arabera, musulmanek ezin dute txerri-haragirik eta txerrikirik kontsumitu, eta ezta alkoholik ere. Hala ere, beste haragi mota batzuk kontsumitu ditzakete, baina animaliak lege islamikoak (*Sharia*) esaten duen moduan hil behar dira. Modu hori *halal* izenez ezagutzen da. Gainera, halal haragia saltzen duten establezimenduak baldin badaude, derrigorrez erosi behar dute, lortzea zaila izanagatik ere.

Hala ere, beste bi sinesmen erlijiosok elikadurari buruzko aginduak jarraitzen dituzte: Eliza Adbentistak eta judaismo. Adbentistek, oro har, dieta obo-lakto-begetarianoa dute (batzuetan begetariano hutsa, arrautza eta esnekirik gabe). Juduek berriz, *Koxer* janaria jaten dute, hau da, juduen elikadura-legeak errespetatzen dituzten elikagaiak jaten dituzte.

2. *Zentro publikoetan menuak egokitzea*. Bestalde, elikadura-berezitasun honek eragina du hainbat zentro publikotako menuetan) ikastetxeetan, ospitaleetan, atzerriko adingabeei harrera egiteko zentroetan eta espetxeetan (espetheen eskumena ez da Euskal Autonomia Erkidegoarena). Halako jakiak jasotzeko eskubidea «Espainiako Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko Lankidetzak Akordioan» ezartzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, baita uztailaren 7ko 131/2008 Dekretuan ere, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzekoan, baina ez da beti betetzen.

3. *Udal-hiltegien erabilera*. Egun garrantzitsuetan, esaterako, islamiar komunitatearen «Bildotsaren jaia»n, bildotsa hil egiten dute, ondoren erlijio horretako fededunek jan dezaten. Euskal Herriko islamiar komunitateek bildotsa hiltzeko udal-hiltegiak erabiltzerako zailtasunak dituztela adierazi dute. UCIPVren<sup>12</sup> arabera, 2007. urtera arte, Zorrotzako hiltegia erabili da, baina itxi ondoren ezin izan dute beste hiltegi batean egin. Komunitateek beharrezkoa dela uste dute jairako instalazio horiek erabiltzea, animaliak hiltzean sortzen diren klandestinitate-egoerak eragozteko. Gainera, Europako Erregelamenduan jasotzen da<sup>13</sup>.

## 2.9. Jantzkerak

Jantziek, eguraldi txarraren aurka babesteko zeregina ez ezik, funtzio sinboliko nabarmena ere betetzen dute, eta horien bidez mezu ugari adierazten dira, bai norberak eta bai gizarte-harremanetan. Aintzatetsitako tradizio kultural eta erlijioso gehienetan, janzkerak honako hau adieraz dezake: nortasuna, desberdintasuna, gaitzespena, kritika, etsipena, etab.

1. *Gizarte-espazioetan*. Euskal lurraldean dauden gutxiengo erlijiosoen artean, islamiar erlijioeko pertsonak bakarrik adierazi dute janzkera desberdintasunaz jabetzen direla, eta baita desberdintasun horri eusteko asmoa ere. Jakin badakigu, janzkeran duten bereizketa horrek eztabaida sortzen duela mendebaldeko herrialdeetan.

<sup>12</sup> Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasuna.

<sup>13</sup> Gai hau Estatuak arautzen du (azaroaren 7ko 32/2007 Legea) eta lege horren 6. artikuluan animaliak erritu erlijiosoen arabera hiltzeari buruzkoa da. EAEk azaroaren 7ko 218/2000 Dekretuan animalien hilketa arautzen du, arau hau Estatukora moldatu behar da, azken honek erkidegoko araudia betetzen baitu:

Europako araudia:

- 88/306/EEE Erabakia, Kontseiluarena, 1988ko maiatzaren 16koa, hiltzeko animaliak babesteari buruzko Europako Hitzarmena onesten duena.
- 93/119/EE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1993ko abenduaren 22koa, Hil edo akabatzeke unean animaliak babesteari buruzkoa.
- 178/2002 Erregelamendua (EE) Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, urtarrilaren 28koa, elikadurari buruzko legediaren oinarri eta eskakizun orokorrak ezartzen dituena.
- 853/2004 Erregelamendua (EE) Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2000ko apirilaren 29koa, animalia jatorriko elikagaien higiene-arau espezifikoak ezartzen dituena.
- 854/2004 Erregelamendua (EE) Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, gizakiek jateko izan eta animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzeke arau espezifikoak ezartzen dituena.
- 1/2005 Erregelamendua (EE), Kontseiluarena, 2004ko abenduaren 22koa, garraioan animaliak babesteari eta horri lotutako jardueri buruzkoa. Horrez bidez, 64/432/EEE eta 93/119/EEE zuzentarauak eta 1255/97 araudia (EE) aldatu dira.
- Erregelamendu-proposamena, kontseiluarena, 2008ko irailaren 18koa, hiltzeko unean animaliak babesteari buruzkoa[COM (2008) 553 azkena – Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea].

---

Oro har, egindako ikerketa-lanak kontuan hartuta, Euskal Herrian, gutxienez orain arte, erlijio-arrazoiengatiko janzkerak ez du eragozpenik sortu, ez-ohiko gizarte-harremanetan, ez araugintzaren esparruan. Dena den, adierazi beharra dago, janzkerarekin lotutako gaiak, oro har, askatasun-eskubidearen adierazpena direla.

2. *Establezimendu publikoetan*. Hala ere, hiyab-aren (zapia) gaiari buruz, oso gutxitan agertu da komunikabideetan kasuren bat. Adibidez, Andoainera aurtengo ikasturte hasieran iritsi ziren ikasle bi ez zituzten herriko ikastetxean onartu zapia eramateagatik. Ondorioz, beste herri bateko ikastetxera joan behar izan ziren, konponbide egokirik aurkitu gabe. Kasu hauetan, barne-erregelamenduak egiten dira, eta oztopatu egiten dute, eta baita eragotzi ere, gutxiengoa beren eskubideez baliatzea, hezkuntza-eremuan emakumezko ikasleei aintzatesten zaizkien eskubideen aurkakoak baitira.

## 2.10. Osasun ohiturak

Osasun-sistemari dagokionez bi egoera hartu behar dira kontuan. Lehenengoa Jehovaharen lekukoak eta odol-transfusioarekin lotutakoa da, eta bigarrena, islamiar komunitateekin eta umeen zirkunzizioaren tradizio erlijiosoarekin lotutakoa.

1. *Odol-transfusioak*<sup>14</sup>. Jehovaharen lekukoek odol-transfusioari uko egiteari dagokionez, erantzukizuna osasun-sistemarena dela uste dute, eta osasun-sistemak gaixoak dituen eskubideak errespetatu behar dituela; era berean, ulertzeko modu honen barnean osasun-langileei eskatzen zaie gaixoaren egoerara eta jartzen dituen baldintzetara egokitzeko ahalegina egin dezaten, ez da ahaztu behar gaixoaren baimenak legezatzatzen duela ebakuntza medikoa. Bestela esanda, medikuak ezin du ebakuntzarik egin gaixoaren baimenik gabe<sup>15</sup>.

Ikuspegi honek zailtasun bi dituela uste dugu, eta ez dirudite uztartzeko errazak. Alde batetik, Jehovaharen lekukoak odol-transfusioari uko egitearen erabaki edo jarrerak medikuaren kontzientzia-eragozpena eragin dezake eskakizun hau egiten duen gaixoa tratatzeko. Beste aldetik, tratamendua burutzeko odol-transfusioa behar duten adin txikikoen egoerak dakarren arazo etikoa ere hor dago.

2. *Zirkunzisia*. Islamiar komunitateari dagokionez, zirkunzizioaren gaia hartu behar da kontuan. Egindako ikerketa-lanei esker, ziur gaude osasun-sistemaren barnean kudeaketak egin direla, sare publikoaren bidez zirkunzisia egiteko aukerarekin lotutako protokoloa gauzatzeko. Baina dirudenez, orain arte elkarrizketa antzua izan da, eta osasun-sistemak, oraingo, balizko fimosiaren tratamenduaren trataerarako bakarrik aurreikusten du.

## 2.11. Ikastetxeak (erlijio ikasgaiaren irakaskuntza)

Erljio-ikasgaiaren irakaskuntzari dagokionez, egungo egoera korapilatsua da. Ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan erlijio-ikasgaia derrigorrez eskaini beharrekoa eta nahi izanez gero aukeratzekoa dela kontuan hartuta, honako kasuistika hauek sortzen dira. Batetik, Estatu akonfesional-laikoak, akordioak sinatu ditu Eliza katolikoarekin eta baita beste hiru erlijioekin ere (Islama, ebanjelikoa eta judaismoa) ikastetxeetan derrigorrez erlijio-ikasgaia emateko konpromisoa hartuz. Dena den erlijio-ikasgaiaren aukeraketa borondatezkoa izango da eta modu konfesionalean burutuko da. Beraz, ez zaie ikastetxeetan aukera hau eskaintzen inskribatutako gainerako erlijioei. Bestetik, herritar batzuk ez daude ados hezkuntza formalaren barnean erlijioa modu konfesionalean ematearekin, eta sektore batek jarrera beligerante argia du gai honi buruz.

Egungo egoerak hainbat bidegabekeria sortzen ditu: erlijioetako organoek hautatzen dute irakaslea, baina jardunean hasitakoan, gainerako irakasleekin aritzen da lehian puntuengatik. Gainera, erlijio-ikasgaia ematen aritu diren irakasleak beste ikasgai batzuetako zerrendetan sar daitezke, itxita egon arren, baremazioa errepikatzen den prozesuetan zehar.

---

<sup>14</sup> [http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/recomendaciones\\_para\\_la\\_elaboracion\\_de\\_protocolos\\_de\\_atencion\\_sanitaria\\_a\\_personas\\_que\\_rechazan\\_la\\_terapia\\_con\\_o\\_sangre\\_o\\_hemoderivados/](http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/recomendaciones_para_la_elaboracion_de_protocolos_de_atencion_sanitaria_a_personas_que_rechazan_la_terapia_con_o_sangre_o_hemoderivados/)

<sup>15</sup> Odol-transfusioei dagokienez; adin nagusikoen kasuan uko egiteak erlijio-askatasunari (uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoa) eta gaixoaren autonomiari heltzen dio (azaroaren 14ko 41/2002 Legea).

Eliza Katolikoak hezkuntza-sisteman duen lehentasuna begi-bistakoa da beste alderdi batzuetan ere. Erlijio katolikoa irakasteko nahikoa da ikasle bakar bat egotearekin, baina beste hiru erlijioen kasuan, ikasle gehiago behar dira eta oso zaila izaten da ikasle-kopuru hori batzea. Erlijio katolikoaren ikasgaietan ikasle bakar bat badago, beste guztiek ordeztu behar dutela esan nahi du. Bestela, denbora hori beste irakasgai batzuetarako erabiliko da.

Hala eta guztiz ere, eskola-sisteman erlijioa irakastea legez erregulatuta dago eta guztiz diskriminatzailea izango litzateke tradizio erlijioso bat eskola-sisteman egon ezina eta gainerako erlijioek aukera hau ez edukitzea.

## 2.12. Laguntza erlijiosoa eta gurtzarako lekua zentro publikoetan

1. *Gurtzarako lekuak.* Atal hau osasun eta espetxe arloko zentro publikoen barnean gurtzarako lekuak egoteari buruzkoa da (espetxeen arloa, oraingoz EAEko erakundeen eskumena ez bada ere). Ezer baino lehen, gurtzarako lekuak dauden zentro publikoen benetako mapa eduki beharko genuke, beren egoera zein den jakin kudeaketari dagokionez, eta erabiltzeko interesa eduki dezaketen pertsonen lekua irekitzeko.
2. *Laguntza erlijiosoa.* Zentro publikoetan laguntza publikoa ematea erlijio-askatasunari buruzko lege organikoaren 2.3 artikulua aintzatesten die pertsona guztiei, beren erlijioa zein den kontuan hartu gabe, nahikoa da inskribatuta egotearekin. Horretarako aukera ematea Administrazioaren betebeharra eta erabiltzaileen eskubidea da. Hala ere, erlijio batzuei dagokienez, egoera hau ez dago araututa, Eliza Katolikoaren egoera ez bezala.

Eliza katolikoaren kasuan, laguntza erlijioso katolikoaren arduradunarekin ospitalea bera jarriko da harremanetan eta bertatik kudeatuko da. Izan ere, ospitaleak kapilaua du esleituta eta batzuetan ospitaleak berak emandako bilaketa-gailua (bilagailua) edukitzen du, edo normalean zuzenean harremanetan jartzeko telefonoa, eguneko 24 orduetan deitu ahal izateko. Laguntza erlijioso katolikoa 1979an Vatikanorekin sinatutako konkordatu-akordioek arautzen dute eta Estatuaren aurrekontuetako funts publikoek finantzatzen dute, lege honek ezarritakoa betez. Finantzaketa publiko honek bermatu egiten du kapilau katolikoak egotea ospitale publiko guztietan eta ospitale bakoitzari dagokion langile katolikoak ezartzen ditu, ospitaleak dituen oheen arabera.

Gutxiengo erlijiosoen kasuan egoera oso desberdina da. Kasu honetan ezartzen den laguntza erlijiosoaren eredu sartzeko askatasuna da. Gurtza-zerbitzariak ez du kontratuzko harremanik ospitalearekin, eta komunitateko kideren batek bere laguntza behar duenean sartzeko da, beraz ospitaleak sartzeko utzi behar dio. Eredu honetan, zerbitzuak eskaintzeak sortzen dituen gastuak erlijioak berak hartzen ditu bere gain. Errotze sakona aintzatsita duten erlijioak zerbitzu hau garatzen saiatu dira, hots, erlijio-buru batzuen laguntza jaso nahi duten fededun edo pertsonen laguntza ematea, baina oraindik ere zailtasunak sortzen ditu.

## 2.13. Herritarren segurtasuna

Polizia-kidegoek herritarrekin, oro har, eta kasu honetan erlijio-komunitateekin duten harremanarengatik: espazio publikoetan, gurtza-zentroetan, jaiegunen ospakizunetan eta abarretan duten parte-hartzeagatik, erabakigarria da arlo hau kontuan hartzea, erlijio-aniztasuna modu positiboan kudeatzeko.

Gaur arte, kasu batzuetan prozedurak ez dira egokiak izan, esaterako gurtza-zentroetan zein otoitz egiteko unean indarrez sartu dira, horri buruz ezarritako legea hautsiz. Kasu hauetan eta beste batzuetan, dagoen protokoloa ez dela ezagutzen antzematen da, eta ezta araudia ere. Era berean, elkarrizketarako bideak falta dira. Horregatik, proposamenetan adierazten den bezala, erabakigarritzat jotzen da legea ezagutu eta legea oinarritzat hartuz arduraz jardutea.

Ildo horretan, Euskal Herrian hainbat prestakuntza-ikastaro egin zaizkie segurtasun-erkidegoei (Ertzaintza eta Udaltzaingoa), aniztasunaren inguruko gaiei buruz. Ikastaro hauetako batzuetan, erlijio-aniztasunaren gaia landu da, baina labur-labur.

---

## 3. Proposamenak

---

Erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoari lotutako eskaerak, beharrak eta arazoak identifikatu eta diagnostikatu ostean, hurrengo orrialdeetan EAEn erlijio-aniztasuna modu positiboan kudeatzeko proposamen edota neurri zehatz batzuk biltzen dira. Horietako batzuk neurri edo proposamen jakinak barne hartzen dituzte politika publikoetan errazago txerta daitezzen.

Lehenengo ekimen orokorra eta ondoren agertzen diren neurrietako batzuk bildu ditzakeena, herri-administrazioaren eta errotze sakona aintzatetsita duten konfesioen arteko lankidetzako esparru-akordioaren garapena da. Estatuan gertatzen den bezala, akordio hauek autonomia-erkidegoetan ere gauzatu daitezke, eta beraz, Euskadin ere garatu ahalko lirateke. Gutxienez, aukera aztertu ahalko litzateke.

Ondoren, bigarren ataleko azpi-gai bakoitzarentzako neurri zehatzak biltzen dira<sup>16</sup>. Halaber, neurri bakoitza zein erakunderi zuzentzen zaion aipatzen da:

### Eusko Jaurlaritzarentzako zein Udalantzako proposamenak

#### Errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasuna

2.1.1. Ahalik eta mapa soziologiko zehatz eta eguneratuena edukitzea konfesio erlijiosoen ezarpenari buruz. Erlijio Aniztasunaren Behatokiak duen eredia izan liteke jarraitzeko erreferentzia bat.

2.1.2. Erlijio-erakundearen erregistroari buruzko liburua edo zerrenda izatea, Erlijio Erakundearen Erregistroko Informazioarekin bat datorrena eta Katalunian daukatenaren antzekoa. Erregistro horri esker, EAEn dauden konfesio bakoitzeko erreferentziako pertsona identifikatu ahalko litzateke<sup>17</sup>.

#### Erlijio erakundearen eta herri administrazioaren arteko harreman instituzionalak eta elkarrizketa

2.1.1. Herri-administrazioetako, zein erlijio-erakundeetako ordezkariak identifikatzea, solaskideak argi eta garbi identifikatuta egon daitezzen.

2.2.2. Arlo honetan prestakuntza-politikak diseinatzea herri-administrazioaren funtzionarioentzako, bai autonomia-erkidegoan eremuan, bai toki-eremuan.

2.2.2. Autonomia-erkidegoan herri-administrazioa eta konfesio erlijiosoen artean lankidetzak-hitzarmen espezifikoa ezartzeko aukera aztertzea, Estatuarekin ere lankidetzak-akordioak sinatuta baitituzte.

2.2.3. Euskadin dauden erlijioetako ordezkariak EAeko erakundeek sustatutako ekitaldi publikoetara gonbidatu eta/edo joateko protokoloa izatea. Egoera horietarako irizpideak «denak edo inor ez» esamoldea bete beharko luke.

2.2.4. Erlijio-ekitaldietara joateko protokoloa egitea ospakizun erlijioso hutsetatik bereiziz, bai erakundeari dagokionez, bai norbanakoari dagokionez. Ezaugarri hauek dituen protokolorik ez dagoen bitartean, erne jardun behar da, desorekak ekidin eta agintaritzak publikoak izatera erlijiosoa duten ospakizunekin identifikatzea eragotzeko.

#### Inguru sozialarekiko hartu emanak

2.3.2. NIMBY egoerarako jarduera-protokoloa izatea, adibidez gurtzarako lekuak irekitzeko, irekitzerakoan lagun egiteko prozedurarekin edo gatazka-egoerarako bitartekotza-mekanismoak identifikatuz<sup>18</sup>.

---

<sup>16</sup> \*Hurrengo orrialdeetan jasotako proposamenak aurreko ataleko gaikako atalen segida jarraitzen dute. Hala, adibidez, lehenengo bi proposamenak (2.1.1 eta 2.1.2) «2.1 Errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasuna» atalari lotutakoak dira. Proposamenak hartu behar dituzten erakundeei dagokionez, batzuetan, gomendatzen diren proposamenak eskumenetatik kanpo egongo dira, baina garrantzitsua dela uste dugu proposamenen egokitasuna jasota uztea.

<sup>17</sup> \*Ikusi Katalunia: [https://www.boe.es/diario\\_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-18179](https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2010-18179)

<sup>18</sup> \*Ikusi gurtzarako zentroak zabaltzeko jardunbide egoki hau: [http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/acompanamiento\\_a\\_las\\_comunidades\\_religiosas\\_en\\_la\\_apertura\\_de\\_lugares\\_de\\_culto/](http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/acompanamiento_a_las_comunidades_religiosas_en_la_apertura_de_lugares_de_culto/)



2.3.3. Kazetari eta komunikabideentzako gaiari buruzko prestakuntza-ikastaroak sustatzea.

2.3.3. Gutxiengo erlijiosoei buruz, bereziki eta erlijio-aniztasunari buruz, oro har, dauden aurreiritzi eta este-reotipoak bukarazteko plana egitea.

#### **Laneko ordutegiak eta gurtza denbora**

2.6.1. Malgutasun-teknikak sartzeko aukera aztertzea: jaiegunetako ordutegiak eta gurtzarakoak<sup>19</sup>.

2.6.1. Asteko atsedeen-egunei buruzko informazioa edukitzea eta aintzatespen formalerako bideak aztertzea.

2.6.1. Euskadin dauden erlijio bakoitzeko jaiegunen egutegia edukitzea eta herri-administrazioko langileen-tzako prestakuntza-kanpaina garatzea<sup>20</sup>.

2.6.2. Erlijioen ospakizun erlijiosoei eta egunei buruzko informazioa hedatzeko kanpainak sartzeko sindika-tuekin egindako lanean<sup>21</sup>.

#### **Elikadura**

2.8.2. Elikadurari buruzko arau-erlijiosoetara egokitutako menuen eskaintza bermatzea ikastetxeetan, harrera egiteko zentroetan, ospitaleetan, egoitzetan, gizarte-jantokietan/eguneko arretarako zentroetan.

2.8.2. Hiltzeak erabiltzeko eskubidea babestea egun garrantzitsuetan (Bildotsaren Jaia) animaliak hiltzeko.

## Udalentzako proposamenak

#### **Inguru sozialarekiko hartu emanak**

2.3.4. Espazio horiek errotze sakona aintzatetsita duten beste erlijio batzuei ere uztearen egokitasunari bu-ruzko gogoeta egitea.

#### **Espazio publikoen erabilera**

2.5.1. Dagoen araudia ezartzea erlijio guztiak kontuan hartuta. Ekipamendu eta espazio publikoetan erabil-tzeko protokolo orokorrak sortzea, eskatzen duten erakunde guztien artean tratu-berdintasuna bermatuz, bai erraztasunetan eta sartzeko baldintzetan, bai erabiltzeagatik izango dituzten betebeharretan.

2.5.1. Komunitate erlijiosoetan, zein gai hauen kudeaketaz arduratzen diren langileei informazio egokia eskaintzea ekipamendu edo espazio publikoetara sartzeko baldintzei buruz. Tokiko araudiak ekipamendu edo espazio publikoen erabilera mugatzen badie udal-erregistroetan izena emanda dauden komunitateei eskakizun hau jakinaraztea.

2.5.1. Zentro publikoak erabiltzeko protokoloa egitea adibide hauetan oinarrituta:

- a. Auzo etxeak gurtzarako erabili ahalko dira baina ez aldizka, eta prestakuntza, katekesi hitzaldi eta abarrek inbentario jardueretarako, berriz, aldizka erabili ahalko dira.
- b. Titulartasun publikoa duten beste zentro batzuk ospakizun erlijiosoetarako eta jai garrantzitsueta-rako erabili ahalko dira, salbuespen gisa.

2.5.1. Ospakizun edo jarduera erlijiosoak egiteko titulartasun publikodun lokala erabiltzeko aukera aztertzea.

2.5.2. Bide publikoa erabiltzeko aukera izan beharko lukete, beste edozein gizarte-erakundek bezala.

2.5.3. Finantza-baliabide publikoak eskuratzeko aukera izan beharko lukete, helburua erlijiosoa ez baldin bada. Gizarte-ekintzaren arloko lanak finantzatzea bidezkoa da, ekintzak denentzako baldin badira, eta ez fededunentzako bakarrik.

---

<sup>19</sup> «Zentzuzko Doikuntzarako Teknikak» aplikatu edo kontuan hartzeko aukera aztertzea.

<sup>20</sup> [http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/calendario\\_de\\_celebraciones\\_y\\_festividades\\_de\\_las\\_principales\\_confesiones\\_religiosas\\_de\\_cataluna/index.html](http://www.observatorioreligion.es/banco-buenas-practicas/calendario_de_celebraciones_y_festividades_de_las_principales_confesiones_religiosas_de_cataluna/index.html)

<sup>21</sup> Egundak horietako batzuk Estatua eta konfesio erlijiosoen arteko lankidetzak-akordioetan jasota daude.

---

## Ehorzketak, hilerriak eta hileta zerbitzuak

2.7.1. Komenigarria litzateke, araudia aldatzea gutxiengo erlijiosoan hileta-errituak jaso ditzan.

2.7.1. Araudiak jasotzen duenaren ezarpena aintzat hartzea erlijio bakoitzak hilerri bakoitzean ehorzteko lurzati bat eduki ahal izateari buruz, edo Lurralde Historiko bakoitzean erreferentziako hilerri bat ezartzea erlijio bakoitzarentzako, neurri batek zein besteak eduki dezakeen ondorio banantzailea kontuan hartuta.

2.7.2. Pertsona guztiek ehortziak izateko duten eskubidea bete beharko litzateke, **azaroaren 3ko 49/1978 Legeak, udal-hilerrietako ehorzketei buruzkoak jasotakoaren arabera**<sup>22</sup>.

# Eusko Jaurlaritzarentzako proposamenak

## Inguru sozialarekiko hartu emanak

2.3.4. Euskadiko erlijio-aniztasunaren informazio-trataerarako politika inklusiboa diseinatzea.

## Hirigintza plangintza eta kudeaketa

2.4.1. Gurtzarako zentroei buruzko legea egitea. Erlijio guztientzako legea, katolikoarentzako ere bai, eta udalerrri guztietako beharrei erantzuteko, lurzoruaren esleipen-irizpideak barne hartuko dituen, eta hala ba- legokio diskriminazio positiboko neurriak, lizentziak eta izapideak arintzeko neurriak aplikatuko dituen, eta erlijio aniztenezko lekuen egokitzapena proposatu edo bultzatu, hezkuntza, osasun eta komunikazioaren arloko erakunde publiko edo pribatuak.

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzako proposamenak

### Janzkera

2.9.1. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gutun bat bidali beharko luke ikastetxeetara *hiyab*-a (zapia) daramaten ikasleei eskolaratzea ez eragozteko eta horrela ikastetxe guztiek berdin jarduten dutela bermatuko litzateke.

2.9.2. Emakumeei zapia eramatea debekatzeko dien lege orokorrik ez dagoenez, zapia daraman pertsona identifikatu behar denean soilik, berme guztiekin egingo da.

### Ikastetxeak

2.11.1. Komenigarria litzateke, erlijio ikasgaia derrigorrezko ikasgai bezala irakasten duten ikastetxe pribatu itunduetan legea betearazten dela bermatzeko neurri egokiak hartzea.

2.11.2. «Erlijioen Historia» ikasgaia. Komeniko litzateke, gertakari erlijiosoari, erlijioen historiari edo erlijioen arteko elkarrizketari buruzko gaiak lantzea.

2.11.3. Erlijio ikasgaia irakasteko ikasleen kuotak berdintzea konfesio erlijioso guztientzako.

2.11.4. Erlijio katolikoko irakasleen kopurua ikasgaia aukeratzen duten ikasleen kopurura egokitu beharko litzateke, eta irizpide berbera jarraitu beharko litzateke ikastetxe publikoetan eta ikastetxe pribatu itunduetan erlijio ikasgaia irakasteko eskatzen duten gutxiengo erlijiosoentzako.

2.11.5. Erlijio ikasgaia irakasteko eskatzen zaien prestakuntza. Administrazioak, ahalegina eginez, «aldi iragankorra» emateko proposatzen dugu, islamiar erlijio ikasleek behar dituzten egiaztagiri guztiak lor ditzaten, gaur egun zaila baita profil oso bat lortzea.

---

<sup>22</sup> **Lehen artikulua:** Udalek bermatu behar dute beren hilerrietan egiten diren hobiratzeetan ez dela egongo inolako diskriminaziorik; ez erlijioagatik, ez beste inolako arrazoiengatik.

**Bigarren artikulua:** Hileta-errituak hilobi bakoitzaren gainean egingo dira zenduak xedatutakoaren edo familiak erabakitakoaren arabera. Halaber, gurtza-ekitaldiak egin ahal izango dira hilerrietan hartarako dauden kaperetan edo tokietan.

Hala eskatzen dutenek, baimena izango dute udal-hilerrietan aurreko lerrokadan aipatutako kaperak edo kultu-tokiak ezartzeko.

**Hirugarren artikulua:** Udalek, lege honetan xedatutakoa betetzeko hobiratze-tokirik ez dutenean, udal-hilerriak eraiki beharko dituzte.

## Osasun Sailarentzako proposamenak

### Osasun ohiturak

2.10.1. Zirkunzisia osasun-prestazioetan aurreikusita dago, baina arrazoi medikoengatik ez dira arrazoi erlijiosoak kontuan hartzen, eta beraz kontuan hartzea proposatzen da.

### Laguntza erlijiosoa eta gurtzarako lekua zentro publikoetan

2.12.1. Zentro publikoen barnean dauden gurtzarako lekuak identifikatzea eta isilik egoteko lekuen edo gurtzarako lekuen eskaintza proposatzea zentro publikoetan erlijio aniztentzako lekuetan.

2.12.2. Erlijio-askatasunaz baliatzerakoan berdintasuna bermatzea establezimendu publikoetako erlijio-laguntzari dagokionez, pertsonak beren kabuz betebeharrak erlijiosoak bete ezin badituzte.

## Segurtasun Sailarentzako proposamenak

### Herritarren segurtasuna

2.13.1. Polizia-agenteei erlijio-aniztasuna erregulatzen duten legeei eta araudiari buruzko prestakuntza eskaintzea.

2.13.2. Segurtasun-agenteei gurtzarako zentroak erregulatzen dituzten araudia eta legeak ezagutzen dituztela bermatzea.

# 4. Berehalako gomendio espezifikokoak

---

### Errealitate sozio-erlijiosoari buruzko ezjakintasuna

2.1.1. Ahalik eta mapa soziologiko zehatz eta eguneratuena edukitzea konfesio erlijiosoen ezarpenari buruz. Erlijio Aniztasunaren Behatokiak duen eredia izan liteke jarraitzeko erreferentzia bat.

2.1.2. Erlijio-erakundearen erregistroari buruzko liburu edo zerrenda izatea, Erlijio Erakundearen Erregistroko Informazioarekin bat datorrena eta Katalunian daukatenaren antzekoa. Erregistro horri esker, EAEn dauden erlijio bakoitzeko erreferentziako pertsona identifikatu ahalko litzateke.

### Harreman instituzionalak

2.2.1. Herri-administrazioetako, zein erlijio-erakundeetako ordezkariak identifikatzea, solaskideak argi eta garbi identifikatuta egon daitezen.

2.2.2. Arlo honetan prestakuntza-politikak diseinatu eta ezartzea.

### Hirigintza plangintza eta kudeaketa

2.4.1. Gurtzarako zentroein buruzko legea egitea. Erlijio guztientzako legea, katolikoarentzako ere bai, eta udalerrin guztietako beharrei erantzuteko, lurzoruaren esleipen-irizpideak barne hartuko dituen, eta hala bailegokio diskriminazio positiboko neurriak, lizentziak eta izapideak arintzeko neurriak aplikatuko dituen, eta baita erlijio aniztentzako lekuen egokitzapena proposatu ere<sup>23</sup>.

### Espazio publikoen erabilera

2.5.1. Dagoen araudia ezartzea erlijio guztiak kontuan hartuta. Ekipamendu eta espazio publikoetan erabiltzeko protokolo orokorrak sortzea, eskatzen duten erakunde guztien artean tratu-berdintasuna bermatuz, bai erraztasunetan eta sartzeko baldintzetan, bai erabiltzeagatik izango dituzten betebeharretan.

---

<sup>23</sup> Eranskinean Euskal Autonomia Erkidegoko Kultu-aretoen lege-aurreproiektuaren bertsioa daukazu.

---

## 5. Intereseko dokumentuak eta loturak

---

### 1. Oinarrizko araudia (<http://www.observatorioreligion.es/recursos-juridicos/>)

- Egoitza Santuarekin izenpetutako Akordioa (1976).
- Egoitza Santuarekin izenpetutako Akordioa, Militarren Erljio Laguntzari buruzkoa.
- Egoitza Santuarekin izenpetutako Akordioa, Ekonomia Gaiei buruzkoa (1979).
- Egoitza Santuarekin izenpetutako Akordioa, Gai Juridikoei buruzkoa (1979).
- Egoitza Santuarekin izenpetutako Akordioa, Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzkoa (1979).
- 24/1992 Legea, FEDERekin izenpetutako Lankidetzak Akordioa onartzekoa.
- 25/1992 Legea, FCIEkin izenpetutako Lankidetzak Akordioa onartzekoa.
- 26/1992 Legea, CIEkin izenpetutako Lankidetzak Akordioa onartzekoa.
- 7/1980 Lege Organikoa, Erljio Askatasunari buruzkoa.

### 2. Pluralismo y Convivencia Fundazioaren gidak

[http://www.observatorioreligion.es/publicaciones/guias\\_para\\_la\\_gestion\\_publica\\_de\\_la\\_diversidad\\_religiosa/](http://www.observatorioreligion.es/publicaciones/guias_para_la_gestion_publica_de_la_diversidad_religiosa/)

### 3. Kotsultarako oinarrizko bibliografia

Pluralidades latentes: minorías religiosas en Euskadi

[https://www.euskadi.eus/r47-dhlinea1/es/contenidos/informacion/ddhh\\_diversidad\\_religiosa/es\\_ddhh/adjuntos/Pluralidades\\_Latentes.pdf](https://www.euskadi.eus/r47-dhlinea1/es/contenidos/informacion/ddhh_diversidad_religiosa/es_ddhh/adjuntos/Pluralidades_Latentes.pdf)

Bouchard Taylor txostena

[http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/documentos\\_internos/txostena5\\_eus\\_opt.pdf](http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/documentos_internos/txostena5_eus_opt.pdf)

Francisco Diez de Velascoren Erljioari eta erljioei buruzko glosarioa

<http://fradive.webs.ull.es/introhis/materialreligion.es.pdf>

José M<sup>a</sup> Contreras Mazaríoren Espainiako erljio-faktorearen esparru juridikoa

[http://www.observatorioreligion.es/upload/48/89/Marco\\_juridico.pdf](http://www.observatorioreligion.es/upload/48/89/Marco_juridico.pdf)

# Eranskina

## Aurreproiektua

## Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-aretoen legea

### Atarikoak

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak bezalaxe, pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen dute, oinarrizko eskubidetzat hartuta, eta berme juridiko handienarekin. Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez eta Estatuak elizekin eta erlijio-erakundeekin egindako lankidetzahitzarmenen bidez garatu da. Europa mailan, berriz, gogoan izan behar da eskubide horri zer-nolako babesa ematen dioten Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulua, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

Era berean, azken hamarkadetan, erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kidetza-sentimenduen aniztasunari dagokiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Eta euskal gizartean zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela-eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoa, funtsean, nahikoa homogenea izan da zenbait mendez, erlijio-adierazpenei dagokienez; baina, gaur egun, paisaia dibertsifikatua eta askotarikoa dugu, bai hainbat erlijio-tradizio daudelako, bai erlijioak modu desberdinetara antolatzen direlako. Euskal gizartearen ezaugarri hori, erlijio-aniztasun gero eta handiagoa, hainbat faktore sozialen ondorio da. Azkenaldiko migrazio-mugimenduek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-tradizioak ugaritzea edo lehendik zeudenak finkatzea ekarri dute. Horrez gain, beste prozesu sozial batzuk ere kontuan hartu behar dira; hala, esaterako, bereizitako taldeen arteko gizarte-elkarreraginerako aukera handiagoa dago, komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenek eta bizi-esperientzien gizarte-eskaintza handiagoak eraginda. Azken batean, euskal gizartean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa eta itzulezina izango da.

Hori horrela izanik ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die nahikoa arau-tresna ematen erakunde publikoei errealitate plural berri horren ondorioz praktika sozialean sortzen diren gai eta eskaera asko eta asko kudea ditzaten. Arauetan edo kudeaketa politikoaren printzipioetan dagoen zehaztugabetasun hori, besteak beste, kultu-areto edo -guneen auzian islatzen da; areto edo gune horiek, hain zuzen, beharrezko parametroak dira sarri, erlijioaskatasunaren eskubideak duen kanpoko alderdia edo alderdi kolektiboa behar bezala gauzatzeko. Erlijio Askatasunari buruzko 1980ko uztailaren 5eko Lege Organikoak, bigarren artikuluan, elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu-edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea bermatzen du, oinarrizko askatasun haren zatitzat. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-lekutzat definitzen ditu «soil-soilik» otoi ez egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren «eraikin edo lokalak». Kultu-aretotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea soilik; horrez gain, konfesio bakoitzeko erlijio-agintariak emandako berariazko «ziurtagiria» behar da.

Nolanahi ere, orain artean, Estatuko edo autonomia-erkidegoetako hirigintza-arauegietan, ez da finkatu berariazko estandarrik «erlijio-ekipamendu» mota honetarako; salbuespen da Kataluniako Autonomia Erkidegoko uztailaren 22ko 16/2009 Legea, kultu-aretoei buruzkoa. Hain zuzen ere, ez Lurzoruari buruzko Estatuko 8/2007 Legeak, ez Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko EAEko 2/2006 Legeak, ez dute kultu-lekuak antolatzeko eta irekitzeko arau zehatzik ezartzen. Azken lege horrek aurreikuspen lotesle bat baino ez du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, «ekipamendu kolektibo pribatuarentako, hala nola merkataritza-zentro,

---

erlijio-zentro...» (54.2e art.) Halaber, tokiko sistemen zuzkidura-sarearen ezinbesteko elementuen artean sartzen ditu «erlijio-erabilerarako ekipamendu pribatuak» (57.2.e art.).

Beraz, ezinbestekoa da gure autonomia-erkidegoak kultu-gune eta -aretoei buruzko berariazko araudia izatea, gune horiek izan nahi dituzten erlijio-elkarteei erlijio-askatasunerako duten eskubidea babestu ahal izateko, eta ezinbestekoa da, halaber, administrazio publikoei kudeaketarako irizpide egoki eta sendoak ematea, gune eta areto horiei lotutako eskaerak hirigintzako plangintza orokorraren esparruan administratzeko

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza gaitan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste hainbat gaitan ere, hala nola osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko-kulturala. Hala, Autonomia Estatutuaren 9.2. artikulua adierazten du euskal botere publikoek konpromisoa dutela «herritarren oinarrizko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia» zaintzeko eta bermatzeko, eta, hortaz, «gizakien eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro» hartzeko betebeharra dute. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatzea lortzen da Konstituzio Auzitegiak «laikotasun positiboak» izendatu duena praktikatzeko eta bermatzeko; maila berean dagokie hori botere publiko estatal, autonomiko, foral edo lokal guztiei. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren 16. artikulua agintzen du, agindu edo obligazio bidez, erlijio-konfesio guztiekin lankidetzan aritu behar dutela botere publiko guztiek.

Horrek guztiak esan nahi du euskal botere publikoek neurri positiboak hartzeko betebeharra dutela – neurri arauemaileak barne, aztergai dugun hau bera bezala–, beren lurraldean oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa. Horrek guztiak justifikatzen du kultu-aretoak edo -guneak irekitzeko buruzko berariazko araudia egiteko beharra, Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuak dakartzan obligazio horiei eraginkortasunez erantzuteko bide eman dezan.

Esparru horretan, lege honek neurriak hartzen ditu administrazio eskudunek beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezar ditzaten, eta kulturako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbesteko baldintza tekniko eta materialak ezar ditzaten. Legearen helburua da, guztiaren gainera, erlijio-askatasunerako eskubideaz baliatzen laguntzea, baina baita euskal administrazio publikoei, batik bat toki-administrazioei, erreferentzia-irizpideak ematea ere, eskubide hori ziurta dezaten eta kultu-guneen baldintza egokiak berma ditzaten, hirugarrenen eskubide oro errespetatuz. Hala, arau honen oinarrizko ekarpena da udalen hirigintza-antolamenduko planetan erlijio-erabileretarako komunitate-ekipamenduetara bideratutako lurzoruak erreserbatzeko betebeharra ezartzea. Aldi berean, lege honetan aipatzen diren lizentziek ez dakarte, inolaz ere, oinarrizko eskubide bat gauzatzearen ondorio diren erlijio-jarduerak baimentzea, baizik eta jarduera horiek egiteko lokalei baldintza duin eta egokiak bermatzea, hirugarrenen eskubideak babestuta. Hala, kultu-lekuak irekitzeko berariazko lizentzia ezartzeak bide emango du aplikatzeko den administrazio-prozedura zehazteko eta kontzentratzeko; horrek udalerrien erabakietan koherentzia administratiboa erraztuko du, eta, hortaz, segurtasun juridikoa emango die eragindako erlijio-elkarteei. Azken batean, legeak erantzun arauemaile koherentea, bideragarria eta gure antolamenduaren printzipioekin bete-betean bat datorrena eman nahi dio estu-estu oinarrizko eskubide bati lotuta dagoen errealitate sozial berri horri, eta, hala, Estatutuaren agindua bete: herritar guztien eta herritarrek beren eskubideak baliatuz osatzen dituzten taldeen berdintasun benetakoa eta eraginkorra bultzatzea, demokratikoa eta aldi berean plurala den gizartean.

## Xedapen orokorrak

### **1. artikulua. Xedea**

Lege honen helburua da erlijio-askatasunaren oinarrizko eskubidearen erabilera bermatzea euskal gizartearen baitan diharduten elizei, konfesioei eta erlijio-elkarteei, eta horretarako kultu-aretoak eta bestelako erlijio-guneak irekitzea eta funtzionamenduan jartzea berariaz arautzea, inolaz ere onartu gabe konfesioen eta erlijio-elkarteen artean bereizkeriarik egitea.

Helburu hori lortzearen, lege honek neurriak hartzen ditu administrazio eskudunek beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak ezar ditzaten hirigintza-antolamenduko bitartekoetan, eta kultu-erabilerarako edo beste erlijio-helburu batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko ezinbestekoak diren baldintza tekniko eta materialak ezar ditzaten.

## **2. artikulua. Printzipioak eta eskubideak**

Lege honen printzipioak honako hauek dira:

1. Euskal Autonomia Erkidegoan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldean baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horiei mugak jartzeko justifikazio bakarra izango da segurtasuna, ordena publikoa, osasun publikoa eta ingurumen egokiarekiko errespetua tarteko izatea.
2. Euskal gizartean dauden erlijio-elkarte eta -konfesioen artean tratu-berdintasuna bermatzea, bai kultu-aretoak irekitzeari dagokionez, bai lege honen eta lege hau garatzeko araudiaren arabera ezarritako funtzionamendu-kontrolari dagokienez.
3. Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik hoberenak bermatzea eta ezartzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko orduan.
4. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio, konfesio eta erlijio-elkarteek erlijio- eta kultuaskatasunaz baliatzeko lekuak edukitzeko duten eskubidea.

## **3. artikulua. Aplikazio-eremua**

1. Lege hau aplikatuko zaie Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren kultu-aretoei, baita aldi batez edo noizean behin erlijio-jardueraren batera bideratzen diren gune eta ekipamendu publikoei ere.
2. Orobat lege hau aplikatuko zaie konfesio eta erlijio-elkarte guztien hilerriei, bai eta udalhilerrietan horiei eslehi dakizkien ehorzketa-guneen erreserbei ere; hori guztia, hiletetako osasun-neurrien eta toki-araubidearen arloan indarrean dagoen legediaren arabera.
3. Lege honen aurreikuspenak ez dira aplikatuko titulartasun publikoko ospitale, laguntzazentro, ikastetxe, beilatoki eta espetxeetako kultu-lekuetan, horiek gai bakoitzari dagokion berariazko araudiaren arabera arautuko baitira.

## **4. artikulua. Kultu-aretoaren definizioa**

Kultu-aretotzat hartzen da etengabe eta soil-soilik kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikin, lokal edo areto erantsiak, edozein dutelarik titulartasuna, publiko zein pribatua, baldin eta, Erlijio Askatasunari buruzko Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dena delako elizak, konfesioak edo erlijio-elkarteak; eliza, elkarte edo erlijio-elkarte horrek nortasun juridikoa eduki behar du.

## **5. artikulua. Aplikazio komuneko arau-esparrua**

Lege honetan araututako kultu- eta erlijio-jarduerak gauzatuko dira Konstituzioaren 16. artikulua, erlijio-askatasunari buruzko legedi organikoak, erlijio-konfesioekin hitzartutako Estatuak Akordioak eta oinarritzko eskubideen esparruan Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko tratatuek ezarritako arau-esparrua errespetatuz, eta lege honen xedapenekin zein bere erregelamendu-garapenarekin bat.

## Lehenengo kapitulua

Kultu-askatasuna hirigintza-antolamenduaren esparruan

## **6. artikulua. Hirigintza-antolamendua eta EAEko botere publikoen obligazioak kultulekuei dagokienez**

EAEko administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte, hiri-plangintzaren sistemen barruan, lege honek biltzen dituen erlijio-jarduerak gauza daitezen bermatzeko; horretarako, kulturako edo beste

---

erlijio-jarduera batzuetarako ekipamenduak ezartzeko guneak eskainiko dituzte, eta inola ere ez da bereizkeria zuzenekorik zein zeharkakorik egingo, ezta murrizte arbitrariorik ere.

#### **7. artikulua. Hiri-antolamenduko planen bidez erlijio-erabilerak determinatzea**

1. Lege honen helburuak betetzeko, EAEko udalek hiri-antolaketaarako egindako plan berriek kulturako eta erlijio-laguntza emateko lekutzat erabiltzeko gune nahikoa erreserbatu beharko dute, betiere dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udalerrri bakoitzean gai honetan dauden premien eta eskaeren arabera.

2. Obligazio hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun kultu-askatasunaren oinarriko eskubidean bereizkeria zuzeneko zein zeharkakorik edo mugatze arbitrariorik eragiten duten irizpideen arabera; batik bat, jarduera horretarako gune erreserbatuak erabakitzeko edo gune horiek konfesioei eta erlijio-elkarteei esleitzeko orduan.

3. Nolanahi ere, udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatu ahal izango dituzte, erlijioekipamendu eta kultu-lekuentzako kokapenik egokienak zein diren erabakitzeko, herritarren interes orokorra zainduz eta elkarbizitza sustatuz; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.

4. Erlijio-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi estatuala eta autonomikoa aplikatuko dira, bai eta dagokion foru-araua eta garatzen diren erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

#### **8. artikulua. Titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak aldi batean edo noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea**

1. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-konfesio eta -elkarteei eskubidea dute, administrazio publikoen aldetik, tratu berdinean, benetako eta eraginkorra jasotzeko, hala ekipamendu eta gune publikoen erabilera-lagapen eta -baimenei dagokienez, nola, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, jabari publikoaren erabilera pribatiboak, bide publikoen aldi baterako okupazioa edo ondarezko ondasunen aldi baterako lagapena ekar dezaketen jarduerari dagokienez.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokienez, udalaren hiri-antolamenduko planek konfesio askok erabiltzeko leku, lokal edo erakinak bideratu ahal izango dituzte, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.

## Bigarren kapitulua

Kultu-aretoak (eta beste erlijio-gune batzuk) irekitzeko lizentzia

#### **9. artikulua. Kultu-aretoak (eta erlijio-erabilerarako beste gune batzuk) irekitzeko eta erabiltzeko lizentzia**

1. Jendeari irekitako kultu-areto berri bat zabaltzeko eta funtzionamenduan jartzeko, aldeztu aurretik, udal-lizentzia bat eskuratu beharko da. Lizentzia horrek, betiere, izaera arautua izango du. Administrazio eskudunak ezingo du ukatu lizentzia hori, erlijio-erakunde eskatzaileak erlijiozentro bat irekitzeko eska daitezkeen hirigintza eta teknika arloko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuta ondoren. 6 hilabeteko gehienezko epea ezarriko da lizentzia izapidetzeko; epe hori igarotzen delarik, administrazio-isiltasuna eskatzailearen aldekoa dela ulertuko da.

2. Obra handiaren izaera daukaten eraberritze-lanei ekitea proiektatzen denean ere –eta haiek egiteak, ondorioz, kasuan kasuko lizentzia lortzea eskatzen duenean– beharrezkoa izango da kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko lizentzia eskatzea. Bi lizentziok aldi berean eskatu ahal izango dira.

3. Baldin eta, lege honekin bat etorritik, kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentzia behar duten lokalek hirigintza-lizentzia ere behar badute, eskatzaileak edo sustatzaileak, kasuan kasuko elizaren, erlijio-konfesioaren edo erlijio-elkartearen izenean, bi lizentziok eskabide-orri bakar batean eskatu behar



ditu. Eskabide-orriari, proiektu bakar bat erantsi behar zaio, aplikatu beharreko hirigintza arloko arauak betetzen direla egiaztatzeko.

4. Erregelamenduz zehazten den edukiera gainditzen ez duten lokalen kasuan, kultu-aretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentziaren ordeztu, aldeztu aurreko komunikazio bat eskatu ahal izango da, baldin eta lokal horiek gainerako baldintzak betetzen badituzte (pertsonek segurtasuna, osasungarritasuna, irisgarritasuna, eta hirugarrenentzako immisio eta eragozpenak).

#### **10. artikulua. Segurtasunari eta osasungarritasunari buruzko baldintza material eta teknikoak, kultu-aretoek nahitaez bete beharrekoak**

1. Sarrera irekiko kultu-aretoek, betiere, erabiltzaileen segurtasuna eta instalazioen higiena bermatzeko, bai eta hirugarrenei eragozpenak ekiditeko ere, beharrezkoak diren baldintza material eta teknikoak eduki behar dituzte. Baldintza horiek, kasu guztietan, ezarriak izan diren helburuarekiko egokiak eta heinekoak izan behar dute, eta ezingo dute inola ere eragotzi edo zaildu, era arbitrarioan edo arrazoirik gabe, areto horietan gauzatu den jarduerara.

2. Eusko Jaurlaritzak erregelamenduz ezarriko ditu sarrera irekiko kultu-aretoek bete behar dituzten segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun, babes akustiko, edukiera eta ebakuazioko gutxieneko baldintza tekniko eta materialak, bai eta hirugarrenei eragozpenak ekiditera bideratuak ere, aretoen tamaina eta kokapena kontuan hartuta; horrez gain, toki-erakundeek baldintza horiek bete daitezkeen zainduko dute.

Udalbatza batek irizpide eta baldintza horiek ez betetzeak, edo erlijio-elkarteen eskariei erantzuteko orduan udalbatzek erakusten duten pasibotasunak, Eusko Jaurlaritzaren bitartekotza ekarriko du. Bitartekotza, betiere, lege honetan bertan jasotzen den aholku-batzordearen esparruan gauzatu ahal izango da.

3. Honako lege honetan araututako aretoei ez zaie inola ere ezarriko jendeari irekitako establezimenduei oro har eskatzen zaizkienak baino segurtasun- eta higiena-baldintza zorrotzagoak.

#### **11. artikulua. Kutsadura akustikoaren kontrako babesa**

Kultu-aretoek, betiere, arauketa estatalean eta autonomikoan –bai eta helburu horrekin onartutako udal-ordenantzetan ere– kutsadura akustikoari buruz bildutako ingurumen arloko arauedapenak bete beharko dituzte.

#### **12. artikulua. Kultu-aretoak irekitzeko arauko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak, zehapen-izaerarik gabekoak**

1. Kasuan kasuko udaleko udalbatzaren osoko bilkurak honako lege honetan aurreikusten diren baldintza tekniko eta materialak betetzea exijitu ahal izango du, betetze hori ezinbestekoa denean kultu-aretoaren segurtasun eta osasungarritasun publikoak ziurtatzeko. Baldin eta eskakizun horri erantzuten ez bazaio, eragindako erlijio-erakundeari entzun eta erlijio-gaietarako berariazko batzordeari iritzia eskatu ondoren, udalbatzak itxi eta hustu ahal izango ditu kultuaretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentziarik ez daukaten jendeari irekitako lokalak, edota, lizentzia edukirik, lizentzia horren edukia betetzen ez duten edo lokalaren segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko exijitzen diren arauak urratzen dituzten aretoak, hariak eta arauko udal-lizentzia lortzen duten arte edo exijitzen diren legezko eta erregelamenduzko baldintzen aurkako akats edo irregulartasunak zuzentzen dituzten arte.

Akats edo irregulartasun horiek zuzentzeko, epe egokia eta nahikoa emango da, erregelamenduzko aurreikuspenekin eta beharrezkoak diren obren ezaugarri eta baldintza teknikoekin bat etorrita; epe hori akatsak konpondu gabe eta irregulartasunak ebatzi gabe igarotzen bada, udalbatzak aretoa itxi ahal izango du.

2. Hala ere, kultu-askatasunaren erabilera bermatzeko, udalbatzak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, 1. zenbakian aipatzen den establezimendua ixteko neurria ordeztu erabaki ahal izango du, baldin eta pertsonen segurtasuna bermatuta geratzen bada, eta neurri horren ordeztu, instalazioen zati bat zigilatzea erabaki ahal izango du.

3. Agindu hau betetzeko hartzen diren neurriek ez dute zehapen-izaerarik izango; haietako batek ere ez. Neurri horien helburua, soil-soilik, oinarritzko eskubideak babestera eta pertsonen segurtasuna zaintzera bideratu beharko da, bai eta ingurumen egokia babestera ere.

---

## Hirugarren kapitulua

### Hirigintza-lizentziak eta beste baimen batzuk

#### **13. artikulua. Hirigintza-lizentziak**

1. Kultu-lokalak eta gainerako erlijio-ekipamenduak kultu-aretoak irekitzeari eta funtzionamenduan jartzeari buruzko hirigintza-lizentziei aplikagarri zaien araubide orokorraren mende daude.

2. Hirigintza-lizentziak udalek eman beharko dituzte, hirigintzaren arloan indarrean dagoen legediaren, hirigintza-plangintzaren eta udal-ordenantzen arabera, eta inola ere ez da onartu ahal izango erlijio-ziozko bereizkeriarik.

Hirigintza-lizentzia behar duten jarduketak, kasuan kasuko hirigintza-plangintzaren eta udalordenantzen arabera, honako hauek izango dira:

- a) Kultu-areto berrien eraikuntza- eta eraikingintza-obra, bai eta lehendik dauden eraikin, eraikuntza eta instalazioen handitze-, eraberritze-, eraldatze- edo birgaitze-obra ere.
- b) Kultu-lokaletarako eraikinen lehenengo erabilera eta okupazioa.
- c) Eraikinen eta instalazioen erabilera-aldaketa, baldin eta kultu-lekuak lehendik dagoen eraikin batean finkatzen badira eta eraikin hori beste jarduera batzuk gauzatzeko erabili bada.
- d) Hirigintza arloko legediarekin edo udal-ordenantzekin bat etorritz, aipatutako lizentzia behar duen edozein jarduketa.

3. Hirigintza-lizentziak emateko edo ukatzeko prozedura toki-araubideko araudiak ezarritakora egokitu behar da, eta administrazio erkidearen eta foru- eta udal-administrazioaren artean hirigintzaren arloan indarrean dagoen eskumen-banaketa errespetatu behar du.

#### **14. artikulua. Beste baimen batzuk**

Kultu-aretoek, areto horietan gauzatu daitezkeen beste jarduera jakin batzuei dagokienez, aplikatu beharreko sektore-arauetan ezartzen diren baimenak eduki behar dituzte. Baimena eskatetik salbuetsita egongo dira, edozein kasutan, hitzaldiak edo beste zernahi kultura- edo jolas-jarduera.

## Laugarren kapitulua

### Administrazio-, irekiera- eta hirigintza-prozedurari buruzko xedapen orokorrak

#### **15. artikulua. Administrazio-espeditente bakarra**

1. Kasuen arabera egokitzen den hirigintza-lizentzia, bai eta kultu-aretoak irekitzeko eta funtzionamenduan jartzeko udal-lizentzia ere, espeditente bakar batean izapidetu behar dira, lizentzia bakoitzerako eska daitezkeen dokumentazio teknikoak aurkeztu beharra baztertu gabe.

2. Erakunde interesdunak eskabide-orri bakar batean eskatuko ditu aurreko zenbakian aipatzen diren bi lizentziak. Eskabide-orri horri kasuan kasuko dokumentazio teknikoak erantsiko zaio, eta dokumentazio hori ere espeditente bakar batean bildu daiteke.

3. Lizentziaren izapidetzeak toki-erakundetik bertatik datozen edo haren beraren esku dauden ziurtapen, txosten edo alde aurreko beste dokumentu batzuk edukitzea eskatzen badu, espeditente nagusia izapidetzen duen bulegoak zuzenean eskatu beharko ditu horiek guztiak, eta erakunde interesdunari jakinarazi.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek, kultu-aretoak finkatzeari dagokionez, honako lege honetan zehatz-mehatz ezarritakoez gain, ez dute beste lizentziarik edo baimenik exijituko.

## Bosgarren kapitulua

Erlijio-erakundeen parte-hartzea erlijio- eta kultu-lekuak zehazteko prozeduretan

### **16. artikulua. Erlijio-konfesio eta -elkarteen parte-hartzea kulturako edo erlijio-izaerako beste jarduera batzuetarako gune publikoak erabiltzeari buruzko administrazio prozeduretan**

1. Kultu-leku eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan parte hartuko dute eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkartek, hirigintza arloko legedian aurreikusitako jendaurreko informazioko eta herritar-lankidetzako kanalen bidez.

2. Euskal Autonomia Erkidegoaren eta erlijio-konfesio eta -elkarteen arteko elkarriketarako eta lankidetzaren instituzionalerako organo izateko, aholku-izaerako batzorde bat sortuko da, aholkuak eta irizpenak emateko berariaz erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen ekimen eta erabakietan. Batzorde horretan orobat ordezkariak izango dituzte foru-aldundiek, udalek, hainbat adituk eta honako lege honen aplikazioan interes kualifikatua duten beste herritar-elkarte batzuek.

## Xedapen gehigarriak

### **Lehenengo xedapen gehigarria. Egoitza Santuarekiko eta beste eliza, erlijio-konfesio eta erlijio-elkarte batzuekiko akordioak**

Lege honetan ezarritakoak ez ditu baztertzen Egoitza Santuarekin izenpetutako akordioak, ez eta Estatuak elizekin, erlijio-konfesioekin eta erlijio-elkartekin sinatutako lankidetzak-akordioak onartzen dituzten lege-mailako arauak ere.

### **Bigarren xedapen gehigarria. Lizentzia lortzeko egiaztapena**

Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko Akordioaren 1.2 artikuluan gai juridikoei buruz xedatzen dena alde batera utzi gabe, beren jardura Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten eliza, erlijio-konfesio eta -elkartek, hirigintza-lizentzia eskatzeko eta kultuaretoak irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentzia edo 9. eta 13. artikuluetan aipatzen den noizean behingo erabilerarako lagapena edo baimena eskatzeko, erlijio-erakundeen erregistro estatalean edo Euskal Autonomia Erkidegoan sor daitekeen antzeko izaerako beste edozein erregistrotan inskribatuta daudela egiaztatuta beharko dute.

### **Hirugarren xedapen gehigarria. Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria kultu-askatasunaren erabileran**

Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek, kultu-leku edo guneen irekierarekin eta funtzionamenduarekin lotutako alderdiren batean, tratu desberdina jasotzen duenean, beste eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek antzeko egoera batean jaso duenaren aldean, baldin eta tratu-desberdintasunak alde hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat ez badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.

Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek edota itxuraz neutroa den irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte bati, beste batzuen aldean, kulturako leku edo gune bat edukitzeko eskubidean.

Ez dago zeharkako bereizkeriarik jarduketak hura modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.

---

## Xedapen iragankorrak

### ***Lehenengo xedapen iragankorra. Udalaren hirigintza-antolamenduko planak lege honetara egokitzea***

1. 7. artikuluan ezartzen den eskakizuna aplikagarri zaie, lege hau indarrean sartzen den unean izapidetze egoeran edo berrikuste prozesuan egonik, behin betiko ebazpena jaso ez duten hiriantolamenduko planei ere.
2. 7. artikuluko zehaztapenetara egokituta dagoen udal mailako hirigintza-antolamenduko planik ez daukaten udalerriek, haietara egokitu beharko dute, honako lege hau indarrean sartu ondoren onartzen den hirigintza-plangintzaren lehenengo aldaketan.
3. Udalerriek, edozein kasutan, honako lege honen 4. artikulura egokitu behar dute beren plangintza orokorra, indarrean sartzen denetik 5 urteko epean. Epe hori hirigintza-plangintzaren eraberritzea eta egokitzapena gauzatu gabe amaitzen bada, erlijio-elkarte eta herritarrek jurisdikzio-bidean exijitu ahal izango dute egokitzapen hori.

### ***Bigarren xedapen iragankorra. Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko Inbentarioan sartutako kultu-aretoetarako legedi aplikagarria***

1. Euskal Kultur Ondarearen Inbentarioan sartutako kultu-aretoak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren bidez arautzen dira. Beraz, lege hau ez da aplikagarria areto horientzat.
2. Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legea orobat hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen den epearen barruan Inbentarioan sartuta dauden kultu-aretoei eta haiei bakarrik aplikatzekoa izango da.

### ***Hirugarren xedapen iragankorra. Euskal Kultur Ondarearen Inbentarioan sartuta ez dauden kultu-aretoak***

Honako lege hau onartzen den unean dauden sarrera irekiko kultu-aretoek, baldin eta bigarren xedapenean aipatzen den inbentarioan sartuta ez badaude, honako lege honen garapenean erregelamendu bidez ezartzen diren oinarrizko eskakizunak (segurtasun-, osasungarritasun- eta ingurumen-baldintzak) bete beharko dituzte. Egokitzapena bost urteko epean egin beharko da, erregelamendua onartzen denetik aurrera. Ondorio horietarako, kultu-aretoetako titularrak behartuta daude udalei jakinaraztera aipatutako eskakizunak betetzen dituztela.

### ***Laugarren xedapen iragankorra. Kultu-aretoen baldintza tekniko eta materialak egokitzeko aldia***

Honako lege hau indarrean sartzean 10. artikuluan aipatzen diren eta erregelamenduan ezarriko diren gutxieneko eskakizun material eta teknikoak betetzen ez dituzten kultu-aretoek, gehienez ere, 5 urteko epea izango dute eskakizun horietara egokitzeko.

## Azken xedapenak

### **Azken xedapenetatik lehenengoa. Erregelamendua onartzea**

Eusko Jaurlaritzak, honako lege hau indarrean sartzen denetik sei hilabeteko epean, lege honen garapeneko erregelamendua onartu behar du.

### **Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea**

1. Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.

